

יהודה הלוי ✡ Yëhudah ha-Levi

HAIZEAREN HEGALETAN

עלי כנפי רוה

SOBRE LAS ALAS DEL
VIENTO

Poesi antologia

אנתולוגיה של שירים


Antología poética

Argitalpen hirueleduna:
euskara, gaztelania, hebreera

מהדורה תלת-לשונית: עברית, ספרדית, בסקית

Edición trilingüe: vasco, castellano, hebreo





Yēhudah ha-Levi judua (1070-1141), Tuterako semea, pe-nintsulako Erdi Aroko hebrear poesiaren gailurrik nabarmenena dugu. Gaztetan bere jaioterra, Benjamin Tuterako bidaiariaren eta Abraham ibn 'Ezra' filosofoaren sehaska ere izandakoa, utzi ondoan Al-Andaluseko musulman herrialdeetara joan zen bizitzera. Han hezkuntza bikaina eskuratu zuen, bai zientzietan, medikuntzan batez ere, eta bai lege, teologia eta poetikan ere.

Bere garaiko poeta judu eta arabiar hoberenekin harreman estuetan ibili eta bizi zelarik ere ohi ez bezalako ospea ukan zuen. Gaur egun ere haren poema ederrak atseginez irakurtzen dira.

Maitasun eta ardo giroko gaiak ukitzeaz gainera, adiskidetasuna goraiatu eta hildakoengatik negar egiten ere jakin zuen. Giza gai sakonei buruzko gogoetak landu, Jaïnkoa goretsi eta bere herri erbesteratua kontsolatzen saiatu zen. Bere bizitzaren bukaera aldean Sefarad utzi eta Israelerantz abiatu zen itsasoz, bere azken egunak beti bihotzean eraman zuen arbasoen herri maite ahantzezinean emateko.

El judío tudelano Yēhudah ha-Levi (1070-1141), es sin duda el máximo exponente de la poesía hebrea peninsular medieval. Tras dejar en su juventud su ciudad natal, cuna también de otros escritores ilustres, como el viajero Benjamín de Tudela y el filósofo Abraham ibn 'Ezra', se estableció en las tierras musulmanas de Al-Andalus, recibiendo allí una esmerada formación tanto en ciencias, particularmente en medicina, como en leyes, teología y poética.

Tuvo estrechas relaciones con los mejores poetas judíos y árabes de su época, gozando ya en vida de una fama extraordinaria, siendo aún sus versos leídos con deleite en la actualidad.

Tocó temas amorosos y báquicos, cantó a la amistad, lloró por la muerte de los seres queridos, reflexionó sobre asuntos muy humanos, ensalzó a Dios y trató de consolar a su pueblo en el exilio. Al final de su vida, dejó Sefarad y embarcó hacia Israel, deseando pasar sus últimos días en la añorada tierra de sus antepasados, por él tan amada.

Yěhudah ha-Levi

יהודה הלוי

HAIZEAREN HEGALETAN

עלי כנפי רוה

SOBRE LAS ALAS DEL VIENTO

Poesi antologia

אנתולוגיה של שירים

Antología poética

Argitalpen hirueleduna: euskara, gaztelania, hebreera

מהדורה תלת-לשונית: עברית, ספרדית, בסקית

Edición trilingüe: vasco, castellano, hebreo

- © Euskaltzaindia-Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea
- © Poemen gaztelaniazko itzulpenarena / De la versión castellana de los poemas: Ángel Sáenz-Badillos y Judit Borrás Targarona
- © Euskarazko itzulpenarena / De la traducción vasca: Xabier Kintana
- © Hebrear konposizioarena / De la composición en hebreo: Clásicos Alfaguara

Diseinu Grafikoa / Diseño Gráfico: Fernando García Angulo

Azaleko irudia: *Keter Damesek* edo “Damaskoko koroa” deritzon Bibliako eskuizkribuaren tapiz-orrialde bat, landare apaindurez hornitua. Burgos, 1260.

Ilustración de la portada: Página-tapiz del manuscrito bíblico denominado *Keter Damesek* o “Corona de Damasco”, adornada con motivos vegetales. Burgos, 1260.

Fotokonposizioa / Fotocomposición: Composiciones Rali, S.A.
Particular de Costa, 8-10 - Bilbao

Inprimatzea / Impresión: Elkar, S. Cooperativa

1. Argitalpena: 2002.eko urria / 1. edición: Octubre de 2002.

I.S.B.N.: 84-95438-07-0

Lege Gordailua /Depósito Legal: BI-2177-02

Liburu honetako testuak ezin kopia daitezke, osorik edo zatiz, informatikaz edo beste edozein bidez, aurretik copyright-en jabearen baimen idatzirik gabe.

Queda prohibida la reproducción y copia, parcial o total, de los textos de este libro por cualquier método gráfico o informático sin la autorización escrita del propietario del copyright.

Stephen Jay Gould
Biologo handiaren
eta Euskal Herriaren adiskide zintzoaren oroitzapenaz

A la memoria de
Stephen Jay Gould,
gran biólogo y amigo de nuestro pueblo

לזכר
סטפן ג'יי גולד
ביולוג דגול
וחבר נאמן של הבסקים

J. M. Jimeno Jurio,
pertsone on,
adiskide zintzo,
historialari bipil eta
ohorezko euskaltzainari,
Nafarroako lehengo eta gaurko
hizkuntz aberastasunaren maitale,
oroitzapenez.

A la memoria de
J. M. Jimeno Jurio,
hombre bueno,
amigo fiel,
historiador infatigable
y miembro de honor de Euskaltzaindia /
Real Academia de la Lengua Vasca,
estudioso de la rica tradición lingüística
pasada y presente de Navarra.

לזכר
חימנו חוריו
איש טוב, חבר נאמן,
היסטוריון מתמיד
וחבר כבוד של האקדמיה
המלכותית של השפה
הבסקית

Aurkibidea - Indice - תכן העניינים

Tutera eta Yēhudah ha-Levi olerkaria	11
Rabi Yēhudah ha-Levi bere histori testuinguruan	15
Edizio honen atarikoak	21
Hebrear alfabetoa	35
Laburdurak	37
Poesi antologia	39
Maitasun eta ardo bertsoak	41
Eztei-kantak	67
Gorespenak eta adiskidetasun-kantuak	81
Eresiak eta negar-kantak	105
Gogoetak eta igarkizunak	121
Sinagoga-poemak	131
Sion gogoratzeko poemak	157
Itsasoko poemak	173
Egiptoko poemak	189
Bibliografia - Bibliografía - ביבליוגרפיה	195
Tudela y su poeta Yēhudah ha-Levi	201
Rabi Yēhudah ha-Levi en su contexto histórico	205
Introducción	211
Alfabeto hebreo	225
Abreviaturas	227
Antología poética	229
Poemas de amor y vino	231
Cantos de boda	257
Panegíricos y poemas de amistad	271
Elegías	295
Reflexiones y adivinanzas	311
Poemas sinagogales	321
Poemas de Sión	347
Poemas del mar	363
Poemas de Egipto	379
392	אנתולוגיה של שירים
394	שירי אהבה ושירי יין
430	שירי חתונה
450	שירי ידידות ושירי תהילה
478	קינות
500	חידות ושירי מוסר
518	שירי קודש
558	שירי ציון
580	שירי ים
600	שירי מצרים

TUTERA ETA YĔHUDAH HA-LEVI OLERKARIA

Naturaren berezko baliabide ikuspegitik desberdintasun nabarmenetako lurraldea da Nafarroa. Kontinente osoei dagokien aldakortasun interesgarria eskaintzen du, eskuarteko neurri mugatuan besterik ezpada ere, hedadura gutxiko bere lur eremuan. Mendialdeko oihan eta belardien berdetasun hezearen jantziak, erdialdeko lur erre eta ardantze horixken biluzgorriko larruazal lehorra txandakatzen du. Bardeetako basamortu hitsa eta Tuterera herriko baratze jori emankorra eskuz esku batzen dira maiteminduen besarkada estuan. Pirinio mendi harroen elurretako ur garden freskoa eta galdara beroko bainu urak aho betean irensten ditu sabel berean Ebro ibai aseezinak.

Mendi gailurren lepo malguak direla bide, Europa zaharraren eta Afrikarantz uzkailetako Espainiaren arteko atari baliotsua izan da garai guztietako bidaiarientzat. Duela bi mila urteko erromatarren galtzada nagusia zihon bertatik gudaostearen ibilbide, merkatarien diru-iturri, alferren iheslari eta kultur berrien haize berri. Erdi Aroan done Jakueren bide bihurtu zuen orduko erromes uholde bedeinkatuak.

Estrabon greziararen eskutik datorkigu J. K. aurreko mendean Pirinioetako bizkarrezurraren alde bietan kokaturik bizi ziren euskaldunen aipamen zaharrenetakoa. Bazuen herri honek Erribera barrenean jotako bere diru txanpon zaharra eta Kalahorrraino iristen zen erromatarren mapetan euskaldunen lurraldea.

Hizkuntzari dagokionez, herri askoren mintzairerako maileguz aberasten joan zen euskara, Tuterera aldean garaian garaiko etorkinek gaudituta galdu bazen ere. Hori dela eta, iberiar, zelta, erromatar, goto eta arabiarren eragina izan zuen gureak, besteak beste, eta nola ez, hebraiera eta gaskoia luzaz egon ziren sendo erroturik hemen merkatari, artisau eta ofizio desberdinen lokarriekin. Errege eta handizkien jauregietan, Elizaren izkribuetan bezala, latina zen hizkuntza ofiziala Erdi Aroan bertako erromantzea nagusitzen hasi arte, administrazio, legeria eta erlijio gaietarako euskara ofizialki herri mailan bazterturik zetzalarik. Kultura eta hizkera askotariko herria izan da, beraz, betidanik Nafarroa aniztasunak dakarren aberastasunarekin.

Horrek ez du esan nahi egoerak iskanbila, tirabira eta erasorik sortuko ez zuenik eguneroko bizitzan. Tuterera lau haizetara irekitako bidegurutze gunea izanki, inork baino hobeki daki horrek dakartzan ondoreen berri. Onerako eta txarrerako patu horrekin idatzi du bere historia eta ikasi zuen herri arrotzak uztartu eta beraiekin baketsu bizitzen, arraza, sineste, ekonomia eta lanbide guztien mugak gaudituz. Arabiar eta juduek indar handia hartu zuten bertan eta euren hizkuntzak normalki entzun ohi ziren biztanleen eguneroko harremanetan. Euskara, aldiz, galdu zen, neguko bazkaz joandako artzain eta merkatuetako euskaldunen lekukotasun urrira iritsi arte Erriberako hiriburuan.

Honelako egoeran igaroko ziren XI. mendean Yĕhudah ha-Levi gaztearen lehenbiziko urteak bere hirian, munduan zehar ibiltari izateko bokazioarekin sortu bazen ere Tuterako semea .

Liburu Santuetako oihartzuna

Ahalez eta moldez Liburu Santuetan oinarritzen da idazle honen lana, juduentzat ohikoa zen Testamentu Zaharretik xurgatuz sentipenen espresioa eta jainkozaletasunaren irudi poetikoa. Esanguratsua da Jakobena seme gazte Josefek izandako gari espalen ametsa, lastoak burua makurtuz anaien etorkizuna adierazten zuena. Irudi bera datorkio naturalki burura urrundutako maitalearen goratzarrea egin nahi duelarik. Honela dio: *Neskatxa maitatuen alorrean maitasunaren gari-azaoak / zureen aitzinean makurtzen dira* (9. poema, 32. b.).

Baina ez da pasarte solteen kontua bakarrik; Liburu Santuetako pertsonaia ezaguna den Josef handia hartzen du eredutzat izen bereko jaun baten goratzarrea egiteko: *Jakoben seme Josef gizaldiz gizaldi / bidali du Jainkoak janari emateko: (...)* *Izen bereko beste bat sortu da gure egunetan / haren itxura eta itzal kementsuarekin; / printzea deitu zitzaion hari anaien artean, eta beste hau benetako / printze eta jauna da bere garaiko buruzagien artean* (50. poema, 1-5 b.).

Arrotzentzat hain gardena ez daitezkeen Liburu Santuetako zenbait leku-izenen esanahia dago bertso batzuen funtsean. Hermon eta Dimon dakartza, adibidez, maitalearen aurrean senti ohi den poza, alde batetik, eta urruntzeak daraman nahigabea, bestetik, kontraesan esanguratsu bezala jartzeko. Hau dio hitzez hitz: *Negar haiek, behiala Hermon-go ihintza bezalakoak, / zergatik eta nola bilakatu ziren Dimon-go ur? Garden zihoazen, amodioen hasieran, / baina hastantzeak gorritu zituen* (42. poema, 1-2. b.). Hermon zorionaren adierazgarria da salmoetan, adiskideak elkarrekin biltzeari darion edertasun, sosegu eta goxotasuna alegia: *Bai eder dela, bai gozo, senideak elkarturik bizitza! Gantzuketako olio bikaina bezala da, buruan isuri eta bizarrean behera, Aaronen bizarrean behera soinekoraino jaisten den olio lurrintsua bezala; Sion gainetik jaisten den Hermon mendiko ihintza bezala.* (133. Sal.) Dimon izenak, alderantziz, Jainkoaren mendekua eta zigorra dakar Isaias profetaren hitzetan: *Dimongo urak odolez beteak daude, baina oraindik ere zoritxar handiagoak bidaliko dizkiot Dimoni: lehoiak jango ditu Moaben onik aterako direnak, lurralde hartan bizirik geldituak* (Is. 15, 9.).

Poetak aurki ditzakeen hitz samur eta goxoenak 'Kantarik Ederrena' izeneko liburutik xurgatzen ditu Yēhudah ha-Lavi tuterarrak. Nardo eta mirraren usain gozoa da beretzat maiteminaaren zantzu lirikora hurbiltzeko zirrarak sotilena. *Zori eskuzabalari ez diot zatiko hau besterik eskatuko: / zure ezpainen haria, zure gerriaren gerrikoa; / nire abaraska-eztiak ezpainen artean dituzu, / ene nardo eta ene mirra zeure bi bularren artean* (9. poema, 25-26. b.). Hau dio, bestalde, Liburu Santuetako testuak: *Ene erregea etzanik dagoela, nire nardoari usain gozo darío. Ene maitea niretzat mirra-zorrotxoa: nire bularren artean du atsedan* (Kant. 1, 12-13).

Harri bitxiaren distiraz baliatzen da Erriberako judua emakumearen gorputz-atalen berezko edertasuna azpimarratzeko: *Errubi irudia dakusat zafiroen gainean / zure ezpainen-hortzei begiratzean.* (9. poema, 19. b.) Bide beretik zihoan Liburu

Santuetako eredua: *Haren eskuak urretan biribilduak, / topazioz tarteka
apainduak./ Haren bularra / marfilez landua, zafiroz estalia* (Kant. 5, 14).

Olerki hauen edukia ez da hezur eta haragizko pertsonen arteko erakartasun liluragarria goraiatzete hutsa. Erdi Aroko poetak, Liburu Santuen ildo beretik, gizonaren eta Jainkoaren arteko maitasuna hizkuntza lirikoan azaldu nahi du. Kreatura eta kreatorak elkarrekin duten amodiozko harreman gorenaren ahotsa da. Yēhudah ha-Levi, izan ere, ez da literatura hutsean gelditzen. Jakintza, trebetasuna eta israeldarren herrimina maisuki erakutsi arren, bere bihotza aurrerago doa; poeta izateaz bestalde mistikoa ere bada eta erantzukizunari uko egin dion jainko-herri aukeratuaren dolumina darie bere hitzei. Malenkonia da olerki hauen doinu berezia eta noizbait bere herriaren etorkizuna bideratuko den amets itxaropentsua mantentzen du. *Orein eme poxpolina* (= Israel), *zure egoitzatik aldendua!* *Maite zaituena* (= 'Ēlohim) *haserre dago!*, eta etsipenaren doinu ezkorrean, hau dio: *Non da profezia, non argimutila, non Itunaren Kutxa?* (85. poema, 1. eta 4. b.).

Bada olerki ederrenen artean, Sion gaitzat hartuta, sentimendu handiko kantu bat, non juduen erbestea saminki aipatuta hitz gogotsuekin itzulia amesten duen. Honela dio: *Zure atsekabeagatik negar eginez txakala naizen arren, zure gatibuen / etorreraz amets dagidanean zure kantiketarako lautea naiz. (...) Nahi nuke ene arima heda ledin / 'Ēlohim-en izpiritua zure hautatuen gainera isuri zen tokian. / Oi ibil ahal banendi Jainkoa bere igarle eta mezulariei / agertu zitzaizen lekuetatik! (...) Ahuspez eror ninteke zure hautsaren gainera, zure harriak / biziki maitatuz, haien hautsa ferekatuz, / negar eginen nuke neure asaben hilarrien ondora iristean / eta hunkiturik nengoke Hebron zure hilobi hautatuen aitzinean.* (100. poema.).

Hitz samurrenak baino sinesgarriagoa da, halere, poetaren bizia bera, eta amets kutunen ildotik egindako bide luzeak izan zuen ondore onik. Alexandriatik at gainditutako itsaso zakarren sari, lur santua ukitu zuten bere oinek, aberri bihotzekoa alegia, non pausatu baitziren betirako mundu honetako haren azken urratsak arbasoen hilobi ondoan.

Herri literaturako Judu Erratuaren pertsonaia haragiz jantzia da Yēhudah ha-Levi sentiberaren espiritua, bere aberriaren jabegorik gabe munduan zehar erromes doan herri baten itzal iluna. Euskal Herriko ipuinen arabera, juduek beren lurraz nagusiki jabetzen diren une berean izango da munduaren azkena, hori baita Jesukristoren heriotzaz daramaten gurutzebide astuna.

Ohore Tuterari! Historian zehar ziurtatu izan duen bere irekitasun eredugarria agertu du berriro ere XI. mendeko ondare hau berreskuratzean, bere altxorretako bat izandako euskara zaharrari muzin egin gabe, denbora berean. Zorionak.

Josemari Satrustegi,

Euskaltzaina.

RABI YĔHUDAH HA-LEVI BERE HISTORI TESTUINGURUAN

Iberiar Penintsulak aldaketa handiak izan zituen XI. eta XII. mendeetan zehar, bai politikan eta bai kultur arloan ere. Horiek penintsularen birkonkistan garrantzizko epeak izan ziren eta ororen aurrean kristau eta musulman munduen arteko borroka agertzen zaizkigu nagusi. Garai horretan kristauek indar handiak behar izan zituzten herrialdeak eskuratu eta Islamaren osteak hegoalderantz bultzatzeko. Alfonso VI.a erregeak (1065-1109) Gaztelako eta Leongo eskualde batzuk bildu ahal izan zituen. Aragoik eta Kataluniak, beren aldetik, handik laster elkartu eta izakunde politiko bat eratu zuten. Harrezkero Islamaren boterea jaisten hasi zen, emirerriak osatuz, izatez hiriekin eta inguruko herrialdeekin osatuak. Taifa horietan "alderdietako erregeek" gobernatzen zuten, banderizo gisa. Penintsularen kristau aldeak mesfidantzaz so egiten zien etsaitasun-gune ziren hirioi eta hauek berehala dei egingo zieten ipar Afrikako erasotzaileei beren alde etortzera. Alexandro II.a aita santuak (1061-1073), bestalde, 1063.ean bulda bat luzatu zuen, Islamaren aurkako borrokan arituko ziren frantses zaldunei betiereko salbazioa prometatuz. Zaldun horiek, musulmanekiko guduan jarduteari infidelen aurkako gurutzada iritzirik, Cluny-ko monasterioko monjeekin lagundurik zetozen, eta beren bidean, konkistatzen zituzten hirietako meskitak eliza bihurtzen zituzten.

Judu-elkarteak, egoera horren osakide, antolakuntza politiko berrian sarturik aurkitu ziren, ia hiri konkistatu guztietan juduteriak izaten baitziren. Bartzelonan, adibidez, juduek printzerriaren eta hiriaren bizitzan esku hartzen zuten. *Usatges* izeneko ohitura idatziek (1053-1071) orduko politika-mailaketan zuten lekua ongi erakusten dute eta, garai hartako baremoen arauz, gizarte segur eta ongi garatuaren lekukotasuna eskaintzen digute. Gaztelan eta Nafarroan era berriko populaketak sortu ziren "juduen hiri berriak", eta hiri nagusietan agintariek oso begi onekin zekuskiten juduen aljamak, birpopulatzailerak eta muga herrietan jendetza finkatzeko zereginetan.

XI. mendearen azkenaldian Herrialde Santua konkistatu eta bera Islamaren eskuetatik askatzeko antolatu ziren gurutzadek Europa osoa inarrosi zuten. Jakina denez, astinaldi horiek zirauten denboran, gurutzatuek Alemaniatik eta Europa eta Ekialde Hurbileko beste leku batzuetatik pasatzean judu elkarteei eraso eta izugarritzko hilketak eta sarraskiak egin zituzten. Horixe izan zen Jerusalemeko bizilagun juduen zoria, 1099.ean odoletan erabat suntsitua.

Garai honetan jaio zen Yĕhudah, Šĕmuel ha-Leviren semea, hegoaldeko politikagune nagusietatik aski urrun, Tuterako hirian, orduan Banū-Hūd -tarren dinastiak, Al-Muntadir (1041-1081) erregearekin, agintzen zuen denboran. Haren jaioturtea zehazki esaterik ez dugun arren, ezaugarri batzuei esker, hura % 10eko oker-tarteaz koka dezakegu. Izan ere, Yĕhudah gazteak Toledoren 1085eko konkistaren aipamena egiten du eta Guadalajararena ere bai, *harja* famatu batean Yosef ha-Naši Ferrusiel gorapatuz, gatibu juduak salbatu zituelako, hura, Guadalajarako juduteriarentzat, eguzki-izpia balitz bezala aurkeztuz.

Poetak urte haietan Penintsulako egoera nagusia azpimarratzen du zirrara handiz:

“*Se ‘ir eta Qedarko osteen artean
galdu dira ene tropak eta ez dago
nor bildu Israelen indarren alde.
Haiek beren artean borroka egiten duten artean,
gu hil egiten gara haien porrotekin,
Israelen beti ere gertatu den bezala*’¹.

.....
*Filistearrak bildu egiten dira eta edomdarrek ebasten digute.
Batzuk orgetan, besteak zaldiekin*”²

Egun haietako gudu-giroak Rabi Yēhudah-ri eragin zioten, bere bizitza alderraiaz penintsulako judu-elkarte ezberdinetatik hara eta hona ibiliz hasi zenari. Bere bidaiez ematen dizkigun berriek oso garbi azaltzen digute XI. mendearen bukaeran Andaluzia zer nolako egoeran zen. Granadako Ibn ‘Ezra’tarren senide batzuek hiri hartatik ihes egin behar izan zuten, hara berriz ere ez itzultzeko. R. Yēhudah ha-Levi harreman hertsietan ari zen Lucenako aditu eta jakintsuekin, garai hartan hiri horrek *Alisana al-Yahūd*³ arabiar izena izanik. Han R. Yiṣḥaq Alfasi-k irakasten zuen, bertako yešibah-ko buruak⁴, eta berau hil zenean, kargu hori R. Yosef Ibn Migaš-ek hartu zuen 1103. urtean. Lucenan Yēhudah ha-Levi-k R. Baruk ben Yiṣḥaq Ibn Albaliarekin eta beste pertsonaia, poeta eta jakitun batzuekin izan zituen harremanak.

Uste izatekoa da ongi jabetuko zela Toledoko egoeraz, orduan Alfonso VI.aren agintepean (1109.ean hila), geroxeago, haren alaba eta ondorengoa zen doña Urracaren eskura pasatuz. Aipaturiko hiri horretan 1126rarte egon zen eta, horregatik, 1118.eko Azaroaren 18an Alfonso VII.a erregeak jendeari eta hiriari eman zizkien eskubideen ondorioen lekuko zuzena gertatu zen. Honi doakionez, aipa dezagun erregeak hiriari emaniko pribilegioaren bitartez, monarkak bere burua behartzen zuela ezein juduri edo juduen ondorengori -hau da, ezein konbertituei-behin ere kargurik ez ematera, horrek aldean kristauen gaineko aginte edo jurisdikziorik bazekarren⁵. Era berean erregeak juduak hiltzen zituztenei jarririko isunak eta zigorrak ezereztu zituen, bilau edo nekazari bat hiltzeagatik jartzen zirenak baino handiagoak ez zitezela izan aginduz. Eta hori guztiori Alfonso VII.ak zenbait judurekin harreman aski onak izan arren, horiek itzultzaile eta diplomatiko gisa erabiliz.

Egun haietan R. Yēhudah-k Egiptoko merkataria aberats eta handiki nabari batekin gutun-harremanak izan zituen, Ḥalfon zeritzonarekin, eta hortik jakin dezakegu zer nolako ahaleginak egin behar izan zituzten juduek andre gatibu judu bat doña Urraca erregearen eskuetatik berrerosteko. Sokatira hauetan, Toledokoaz

¹ Ikus 89. poema, 6-10. b.

² Ikus 90. poema, 1-2. b.

³ ‘Juduen Alisana’, arabieraz, Alisana hitza toponimoa izanik..

⁴ Yešibah edo yeshiva: ‘eskola talmudikoa’.

⁵ Ikus H. Beinart, *Conversos ante el tribunal de la Inquisición*, Barcelona, 1984, Reg. s.v.

gainera, beste juduteria batzuek ere esku hartu zuten, Malaga eta Luzenakoek adibidez, eta andre gatibuaren aitak ere bai, Granadan bizi zenak. Arartekotasun horretan R. Yēhudah-k berak zerikusi handia izan zuen⁶.

Gure rabbiak, halaber, bazekien Aragoiko eta Nafarroako egoera nagusia nolakoa zen. Urrundik izan arren, Alfonso I.a Borrokaliariaren garaiko (1104-1131) aldaketa politikoak ere ongi nabaritu zituen. Horrela, 1115.ean errege kristau horrek Tuteran, haren jaioterria, konkistatu zuen, baina R. Yēhudah jadanik ez zen egunotan han. Hiria kapitulatzeko akordioak garrantzi handiko atalak dauzka bertako judu-elkartearen geroagoko garapenerako; adibidez, haien kideei hirira itzultzen uzten zitzairen, hura setiaturik egon zen denboran utzia balute; etxeak eta soroak atzera emanen zitzaizkien dohainik, haiengatik inolako erreskate-ordainik eskatu gabe, garai hartako ohituraren arauz ohikoa izango zatekeenez. Horren orde, juduek erregeari lehenagoko gobernari musulmanari ordaintzen zizkieten zergak berak pagatzeko hitza ematen zuten, eta horrez gainera, merkatura joateko, hirira sartu eta irtetean ordaindu beharreko arielez ere salbuetsirik gelditzen ziren⁷.

Erabaki berberak hartuak ziren jada Naxeraren kasuan, eta hango forua aplikatu zitzairen Tuterakoei ere, kristau eta juduen arteko tratuak arautzeari zegokion guztian. Horrek argiro erakusten du zer nolako harreman onak zeuden erregearen eta juduen artean, eta hauek hiriaren garabide eta ongizatean izaniko ekarpena ere bai.

Interesgarria da, halaber, xedapen horiek Antso VII.a erregeak hiriko juduei 1170.ean emandako pribilegioan ezarriko zirenekin konparatzea. Horren bitartez, juduei gazteluan bizitzen uzten zitzairen, hori haientzako egoitza gisa geldituz. Baina R. Yēhudah-k ez zuen jadanik haiez gozatzerik izan, ordurako hila baitzen.

Halako momentu batean, eta mereziko luke hori argitzea, R. Yēhudah-k Espainiatik irten eta Aginduriko Herrialdean kokatzea erabaki zuen. Dirudienez, alde honetatik Abraham bar Hiyya' matematikari eta filosofoak *Megilat ha-megaleh* obraren egileak (1136.ean hilak) eragin handia ukan zuen beragan. Egun haietan, almorabideen eta haien ondorengo politikoak ziren almohadeen pean, Al-Aldalus-en jazotzen ari ziren gertakarien aurkako ideologi erreakzioztat hartu behar da liburu hori, haiek erlijio arloan zerabilten fundamentalismoaren eta musulman eta kristauen arteko borroken argitan. Haien ondotik heltzen ziren zakuratze, ebasko eta erasoetan anitz judu-elkarte erabat hondaturik gelditu ziren. Kordoba aldean Islamen fanatismo erlijiosoa zen nagusi. Almorabide eta almohadeen gehiegikeriak neurrigabeak ziren eta juduak haien armadari eutsi eta mantentzera behartu eta bortxaturik egon ziren, horrek, bere aldetik, juduen aurkako lapurretan, eta ohorgoan iraun zezan. Kristau eta musulman bandoen arteko borrokek judu jendeari etengabeko oinazea zekarkioten, harekin ez baitzuten miseriakordiarik ez

⁶ Ikus J. Schirmann, *Letoldoth ha-shira I*, 247-249 orr.

⁷ Ikus F. Baer, *Die Juden im christlichen Spanien I*, Berlin, 1929, 920-921 orr.

batzuek ez eta besteek ere. Eta honela egiten zuen Yēhudah ha-Levik negar bere herriaren patuagatik⁸:

*“Eta hirira oldarka sartu ziren egunean
Še ‘ir-ko semeen mendekua jalgi zen,
Israeli gertatu zizaionez.
Kaleak gorpuz bete ziren
eta eraileek beren ahotsa altxatu zuten
Israeli birjinak bortxatuz.
Eta mendekuaren ezpata iragan ondoren,
gatibutasuna, gosea eta egarria
aurkitu zuten Israeli seme-alabek”*

R. Yēhudah ordurako zaharturik eta alargundurik zegoen, eta bere izen bereko iloba baten aitona ere bazen, Yēhudah-rena. Haren adiskide eta belaunaldiko lagun asko zenduak ziren jadanik. 1128ko agorril edo irailean Yosef ibn ‘Ezra’ hil zen eta 1135ean R. Mošeh ibn ‘Ezra’, bere adiskide handia, galduko zuen. Beroni, bizitzan hainbeste gorabehera eta miseria ezagutu zituenari, hitz egiten zion Yēhudah ha-Levik Lizarrara idatziriko gutun batean, hiri horretatik itzul zedin. Gelditzen zitzaizkion ezagun gutxi haietarik, batzuk harrez gero barreiaturik zeuden, Narbonara edo Ipar Afrikara alde eginik. Horietako bat, gazteena, Abraham Ibn ‘Ezra’ zen, haren ahaidea, Tuteran 1089an jaioa. Hori ere alde batetik bestera zebilen, alderrai, eta mezenasen emaitzei esker bizi zen.

1114.ean, Almumin-en ondorengoak almorabideak garaitu zituen; almohadeak Iberiar Penintsulako atarian zeuden zelatan, eta Mendebalde osoak bazuen haien gaiztakerien berri. Egun haiexetakoa da, bada, Abraham bar Hiyya’-ren obra, *Megilat ha-megaleh*, gorago aipatua. Hartan Herrialde Santuaren inguruetan Edomen (kristautasunaren) eta Ismaelen (Islamen) artean gertatzeko ziren guduez mintzo zen autorea. R. Yēhudah ha-Levik berak ere Israel berrerosia izanen eta bera Aginduriko Herrialdera berriz ere helduko zen egunaz egiten zuen amets. Juduherria, bere sakabanaketan zapaldua, Mesiasen berehalako etorreraren zain zegoen, Sionera itzultzeko gertu. Era berean, Islama 1130. urtean garaituko zela eta Daniel profetaren iragarkizunak betetzea espero zuten. Egun haiexetan erabaki zuen R. Yēhudah ha-Levik, jadanik berrogeita hamarretatik hirurogei urte bitartean zituelarik, Jerusalemara abiatzea, Sionera itzultzeko sentitzen zuen herri-min sakon hura egia bihurtzeko. Bidaia hori egiteko ideia bera kritikatzin zioten gaizki-esaleei honela erantzun zien⁹:

*“Ba al dugu Ekialdean edo Mendebalean
esperantza-tokirik, bertan segur egoteko?”*

Haren ahaide eta lagun Abraham ibn ‘Ezra’ bere aldetik, Espainiatik 1140.ean irten zen baina, hark ez bezala, mendebaldeko European barreiaturiko judu

⁸ Ikus 89. poema, 40-46. b.

⁹ Ikus 103. poema, 15. b.

diasporara zuzendu zituen bere urratsak. R. Abraham poeta, exegeta eta gramatikariak almohadeen inbasioaren beldur utzi zuen penintsula, bere hitzez halaxe aitorturik.

Aginduriko Herrialdera joateko xede hori burutu ahal izateko, R. Yēhudah ha-Levik bere indar izpiritual guztiei eta zeukan sentiberatasun osoari eutsi behar ukan zien. Israel Herrialde Santura itzultzean, berak hala uste, hebreera birbiztuko zen, bere jendearen herri-hizkuntza, Bibliakoa eta profezietako mintzaira zaharra. Herrialde horri, judu nazioa mamitu eta bere handitasuna lortu zuen lekuari, Jainkoak santu izateko aukeratu zuenari, honela kantatu zion¹⁰:

*“Ez litzaidake neke izanzen Sēfaradeko edertasun guztiari uko egitea,
Tenpluko hondakinen hautsari begiratu ahal izatearen truke”*

Aginduriko Herrialdean judu oso-osoan izan zitekeen, kazartarren erregearen aurrean mantendu zuen bezala, liburu batean hari agur esatean, Israelerantz joateko (*Kuzari*, 5, 23). Aldi berean, ordea, *Sēfarad*¹¹ bere asaben herria dela aitortzen du, haiek ehortzirik dautzan lekua baita. Azpimarratzekoa da Herrialde Santurako igoera (*alayah*) haren obran garrantzi handiko motiboa dela, eta berrerospenerako aitzin-urratsa. Herrialde Santura itzultzea profezia berriatzera laguntzeko igoera da, eta horren ondorioz, Mesias etor dadin ere bai. Honela kantatzen zuen R. Yēhudah-k bere poema *Yonat rehoqim*¹²:

*“Uso urrunekoa, jo soinua dakizun ongien:
doinurik hoberenaz erantzun iezaiozu deitzen zaituenari,
Gogoan izan zeure Jainkoa dela: zoaz laster!
Makur zaitetz ahuspez! Aurkez ezazu zeure eskaintza!
Abia zaitetz zeure habiara, zeure dendarantz,
Sionera, ipini seinaleak bidea erakusteko!
Zeure maiteak, zeure gaizki eginengatik erbesteratu zintuena,
gaur berreroslea duzu, zer erantzunen diozu?
Egon zaitetz prest Lurralde Ederrera itzultzeko!
Errauts itzazu 'Edom eta Arabiako soroak!
Suntsi ezazu zeu porrokatu zintuztenen etxea!”*

Yēhudah-ren ustez, beraz, Sionera itzultzea oinarritzko kate-maila zen nazio-berrerospenerako bidean.

Kuzari liburuko kapitulu batzuetan Israelgo misio profetikoak eta haren jendea beste nazio batzuen artean barreiaturik egoteko patu historikoak planteatzen zituzten kontraesanak gainditzen saiatu zen autorea. Aitzinsolas honen laburrak ez digu uzten horiek guztiok banan-banan eta xeheki aztertzen. Israelgo Herriak, Yēhudah-k dioenez, Jainkoaren Legea gordetzen duelako sufritzen du, eta haren

¹⁰ Ikus 98. poema, 3. b.

¹¹ *Sēfarad*: Espainiaren izena hebreeraz.

¹² Ikus 93. poema.

barreiaketak ez dio Herri Hautatua izateko egoerari kontra egiten. Israel lurreen ereiniko hazia da, berriro erne eta fruitu emateko gertu.

Aginduriko Herrialdea berrerosia izateko, juduek bertan kokatu beharra dute. Berrerospena ate joka ari da! Ideia honek obsesionatu egiten zuen bera. 1140.eko udan Espainiatik irten zen, agian Sibiliako portutik, Ekialderako bidean. Haren itsasontzia Alexandriara 4900. urteko Elul hilabeteko 24an heldu zen, hau da, 1140.eko irailaren 8an.

Ez dugu hain zaila bidaia hura nolako egoeran egin zuen asmatzea. Haren poema ederrenak bidaia horretan idatzi zituen, hor bere bertso batean adieraziriko herri-minak betetzen zituen eta: "*Ene bihotza Ekialdean da eta ni, berriz, Mendebalde muturrean*"¹³. Alexandriatik Sinaiko basamortua zeharkatzen ahalegindu zen, baina azkenean itsasoz segitzea erabaki zuen, eta 1141.eko maiatzaren 14an ontziratu zen. Egun haietan Aşqalonera era honetako bidaia egiteko hamar bat egun behar ziren, eta pixkat gehiago Akreraino heltzeko. Ikertzaileen arabera, R. Yēhudah 4901.eko Menaḥem Ab-eko hilabeteen hil zen, hau da, 1141.eko uztail-agorrilean, Egipto utzi eta handik bi hilabete geroago.

Haren heriotzaz legenda bat bilbatu zen. Horren arabera, arabiar gertari batek zaldipean ohondikaturik hil omen zen, Jerusalemera heltzean Deitoreen Hormaren aitzinean makurtu zenean, hango harriei muin ematera zihoanean. Honela, hain heroismo handiarekin betetzen ahalegindu zen amets hura heriotza tragikoan amaituko zen.

Beharbada aitzinsolas hau bukatzeko ongi datozke Senecak Polibiori¹⁴ esandako hitzok):

"Immortalis est ingenii memoria".

Honetara ba, Nafarroako seme honi oroigarri izpiritual bat eraikitzen diogu, hor bere izatearen bi muturrak sinbolikoki elkartzuz: bere Tuterako sehaska eta Jerusalemeko heriotza.

Haim Beinart

Jerusalemeko Hebrear Unibertsitatea

האוניברסיטה העברית בירושלים

¹³ Ikus 98. poema, 1. b.

¹⁴ *Ad Polibium; de Consolatione*, 16, 2.

EDIZIO HONEN ATARIKOA

Erdi Aroan Nafarroan bizi izandako judu komunitateak ospe handiko pertsonak eman dizkigu. Horietako hiru nabarmenenak, gainera, Tuterako semeak izan dira: Yēhudah ha-Levi poeta gorena (1070-1141), Benjamin Tuterakoa bidaiari ospetsua (1130-1175) eta Abraham ibn ‘Ezra’ matematikari, astronomo, exegeta eta poeta sonatua (1092-1167), nor bere arloan hirurak hebreerazko literatura lantzen saiatuak.

1994an, Juan Cruz Alli jaunak, garai hartan Nafarroako Gobernuaren lehendakaria zenak, eta orduko Hizkuntza Politikarako Zuzendaria zen José María Rodríguez Ochoa jaunak, hebraista bera, kultur gaietan erakutsiriko interes nabarmenari esker, beraz duela zortzi urte, Benjamin Tuterakoaren Bidaien Liburuaren edizio hirueleduna argitaratzeko aukera izan genuen, Erkidegoko lehendakariaren hitzurre bikainaz hornitua. Obra horrek harrezkero bi edizio ukan ditu gutxienez, jendeak egin dion harrera onaren lekuko.

Oraingoan haren aberkide izandako Yēhudah ha-Levi-ren lana ezagutarazteko asmoz gatoz, jatorrizko mintzairaz gainera, haren poemak Nafarroako bi hizkuntza ofizialetan ere eskainiz, tuterarrek, nafarrek eta, oro har, euskaldun guztiek estima bera egingo diotelakoan.

Yēhudah ha-Levi-ren poesien antologia honetako aitzinsolasa idazteko nengoela, Tuterako adiskide eta liburu honen prestakuntza hain interes handiz bultzatu duen Fernando Mikelarena historialariak, dokumentu interesgarri bat eskuratu dit ustekabeen. Berak jakinarazi didanez, bere herriko katedralaren ondoko etxe zahar batean, behialako judu-auzotegia izan omen zen tokian, Done Petri kalean, hain zuzen, igeltsero batzuk konponketa lanak egiten ari zirelarik, horma bat haustean zulo bat agertu eta han, Torah, eta Tamud pusketak batzuekin batera, hebreerazko paper zahar batzuk ere aurkitu omen zituzten. Oraindik ongi datatu ez arren eta beren benetakotasuna behar den bezala egiaztatu ez bada ere – beraz apokrifoa izan daitezke – horietako batzuk, beren interes bereziagatik itzuli eta hemen argitara ematea erabaki dugu, gure poetaren bizitza argitzeko balioko dutelakoan. Honela diote:

“Agur, anaia, arreba, senide eta lagunok! Nola ez dakidan arren, espero dut –ailetsa Jainkoari!– orain idazten ari naizen gutun hau egunen batean Tuterako, nire jaioterriko senideren baten eskuetara heltzea. Badakit ez dela erraza, oraingo gerra giro honetan, bideak arriskuz beteak eta lapur eta gaizkilez aserik daudenean, mezulari edo ustekabeko bidaiariren baten bitartez ene hitzak horraino iristea, baina zergatik ez? Egia esan, ba ote daki inork etorkizunaren berri? Izan ere, gaztetan neure hiri maitea utzi nuenean, iparraldeko nafar kristauak, Ebrotik aski urrun zeuden oraindik, eta orain aldiz, badira hogeit hamar urte

Tuteraren jabe direla¹. Jakin dugunez, badirudi juduak errespetatu dituztela eta beren etxeak eta ondasunak gordetzen utzi dietela, baina infidel horien portaera, ilargia bezain aldakorra, ikusita, nork segura diezaguke noiz arte iraunen duen horien eskuzabaltasuna? Baina hori Guztiahaldunak ez bestek daki!

Baina barka, ez baitizuet oraindik erran nor naizen. Yēhudah ben Šēmuel ha-Levi nauzue, Tuteran 1070. urtean jaioa. Orain kristauen menpean gauzak segur aski aldatu badira ere, ene haurtzaroan juduok sinagogaren inguruko kaleetan bizi ginen. Han merkatarien dendak, zilargin eta larru-ontzaileen lantegiak, eskribauen eta medikuen etxeak aurkitzen ziren, musulmanen legeek ez baitziguten uzten nekazaritzalurren jabe izaten. Izan ere, ene garai hartan, hiriko lagun gehienak, hain zuzen, arabiarrek ziren, eta, ohi bezala, agintari, gobernu-arduradun eta soldaduez gainera, ia guztiak nekazariak izaten ziren, eta egia esan, oso onak izaten ziren beren ofizioan, Ebro bazterreko soro emankorretatik era guztietako fruitu eta barazkiak biltzen baitzituzten, egunero azokan salgai eskaintzeko. Kristauak, ordea, oso gutxi ziren orduan. Gure artean, gerrarik ez zegoenean behintzat, ongi xamar konpontzen ginen, baina soldadu infidelek kanpotik erasotzen zigutenean, aldiz, beldur izaten ginen eta mesfidantzaz ikusten genituen barruko auzo kristauak.

Larunbatero, *šabbat*² eguna ospatzeko, sinagogara joaten ginenean, Baruk rabbi zaharrak –ni hona etorri baino geroago hil omen zen–, egunari zegozkion Torah-ren pasarte batzuk irakurri ondoan, bere ustez zatirik interesgarriena azaltzen zuen, aste hartan gure artean izandako jaiotza-heriotzengatik gogoeta batzuk eginez.

Gure aita, Šēmuel, merkataria zen, salerosketan oso aditua, eta ardura handia ukan zuen bere hiru semeok jakitez ongi horni gintezen. Horretarako, geure dendan lan egin ondoren, arratsero sinagogako rabbiagana bidaltzen gintuen, hebreeraz mintzatzeko, irakurtzeko eta izkiriatzeko ondo ikas genezan. Gure aitak berak ere ongi zekien hizkuntza santua eta, ahantz ez zekion, egunero bera erabiltzen zuen, bere dendako erosketa, salmenta eta diru-kontu guztiak hebreeraz izkiriaturik. Horrek, gainera, berak esan ohi zuenez, inor lapurtzera sartuz gero, ezkutatu egiten ziekkeen musulmanei zein kristauei haren diru-kontuak zertan ziren.

Rabbi Baruk gizon jakintsua eta umoretsua bazen ere, ez zuen horregatik sobera pazientziarik. Eskuan beti edukitzen zuen kanabera

¹ Alfonso I Borrokariak Tuteran 1119. urtean konkistatu zuela kontuan izanda, esan liteke poetak gutun hau 1139an idatzi zuela, Al-Andalus-tik Israelera itsasoz abiatu baino urte bete lehenago.

² *Šabbat*: ‘larunbata, juduen jaieguna’ *šabat* ‘atsedena hartu’-tik eratorria; hortik dator latinezko *abbātus*, Bizkaiko euskara dialektaleko *zapatu* hitzaren etimoa.

luze bat, eta irakasten zigunari adi ez geundenean, harekin beldurgarrizko zartadak ematen zizkigun inolako errukirik gabe. Edonola ere, aitortu behar dut hari zor diodala dakidan gehienaren oinarria, bai eta poesiarako zaletasuna ere. Ikasketak, batez ere, gure Torah-ri buruzkoak izaten ziren, baina horregatik, haur nagusiagoen kasuan, Talmud eta Halak³ah ahantzi gabe³.

Noizean behin Zaragozatik, judu merkatariekin batera, mediku eta jakituria handiko rabbiak etortzen ziren Tuterara. Gure aitak, Jainkoaren beldurpeko gizon abegikorra izanez, pozik gonbidatzen zituen gurera eta nik, halakoetan jangelaren hegaletik, ahoa zabalik, haien hizketa zuhurrak entzuteko aukera izaten nuen. Gure hiritik kanpoko gauzez mintzo ziren maiz eta horrek, jakina, nigan toki harrigarri horiek bisitatzeko gogoa bizten zuen.

Ene anaia nagusi biak, Abraham eta Yosef, argi eta garbi, merkatalgo kontuetan ni baino trebeagoak zirenez, gure gurasoei bere lanbidean laguntzeko gelditu ziren. Ni ordea, oraindik gaztetxo nintzen arren, jakituria eta letretarako zaletasun handiagoa erakusten nuen, eta horregatik gure aitak ni Al-Andalusen hegoaldera bidaltzea erabaki zuen, berton neure hezkuntza osa nezan. Honainoko bidaia luzea bezain malkartsua izan zen, baina orduko urteekin bidean ikusten nituen jendeak, lurraldeak, mendiak, hiriak, herrixkak, aziendak, artaldeak, janzkerak eta ohiturak guztiz liluragarriak iruditzen zitzaizkidan, eta ez nintzen inguruko arriskuez ohartu ere egiten.

Hasieran Granadako hiri zoragarrian izan nintzen. Ikaragarri ederra zen: nire sorterriko Tuterara ez bezalako erabat. Nolako aberastasuna hangoa! Nolako eguzki bizi zoragarria! Eta zer esan zeru urdin mugagabe hartaz? Haiak bai kale koloretsu eta plaza zabalak! Eta zerekin konpara nitzake hango jauregiak? Hiri osoa palmondoz eta lorategiz betea zen, eta etxe gehienek bazuten beren baratze paretaduna, era guztietako frutarbolez betea. Txorien kantuak edonon entzun zitezkeen. Jendea oso ongi jantzita zebilen, soineko eta arropa brodatuak zeramatatzatela, balio handiko bitxiez apaindurik. Haietako anitz, bestalde, arraza oneko zaldi, mando eta asto gainean ibiltzen ziren. Han hor hemenka meskita ederren dorre meheak zeruetaraino altxatzen ziren eta muezinek arratsero Jainkoa laudatzeko otoitz deiak egiten zituzten ozenki.

³ *Torah*: Jainkoak Moisesi Sinai mendian emandako legea. Hedaturaz, Bibliaren lehen bost liburukoak (Pentateukoa), gutxi gora behera kristauen Testamentu Zaharra. *Talmud*: Judaismoaren doktrina tradizionala, rabbiak Israelgo eta Babiloniako akademietan 425.etik 500.era. Testamentu Zaharreko pasarte askoren esanguraz egindako eztabaidetatik bildua. *Halak³ah*: Hebrear Zuzenbideko lege-materialen multzoa, Torah eta Talmud-etik bildua.

Gogoan dut bertako aljaman⁴ ongi hartu nindutela, bai eta, handik laster, poeta eta jakintsuen artera eraman ere. Asko ikasi nuen haiengandik. Poeta horien guztien artean, adiskidetasun berezia izan nuen Mošeh ibn ‘Ezra’-rekin, orduko poeta judu nagusiarekin. Elkarren arteko harremana bertsozaleen bilera batean hasi zen. Han norbaitek Yosef ibn Şaddiq poeta sonatuaren *Lel maḥşebot* izeneko poema irakurri ondoren, berehalaxe gure artean apustua sortu zen ea gutariko zeinek imitatuko zuen bertso mota zail hura. Erranen dudana apaltasunaren kontra badoa ere, egiaren amoregatik aitortu beharra daukat neu izan nintzela garaile bakarra, eta hantxe biribildu nuela, bat-batean neure bertsoa⁵, inguruko lehiakide guztien aurpegien mirespena neuganatuz. Bertso hura, esker onez, Mošeh-ri eskaini nion, berak Granadako bere etxera gonbidatu ninduenz gero. Horrelaxe hasi zen bion arteko adiskidetasun luzea.

Han haren beste hiru anaiak Yişḥaq, Yēhudaḥ eta Yosef ere ezagutu nituen, guztiak letretarako ongi hornituak, eta Mošeh ahantzezinarri esker, beste letra-gizon ugarirekin ere hasi nintzen biltzen, esaterako, Abraham ibn ‘Ezra’ filosofo eta jakintsu sakonarekin, ni bezala Tuterako semea zenarekin, Yosef ibn Maḥnūn eta, batez ere ene adiskide zintzo Abū Zakkariya Yēhudaḥ ibn Gayyāt-ekin, poeta bikaina bera. Halaxe ezagutu nuen, halaber, Šēlomoh ibn Ferrusiel jauna ere, luzaro laguntzaile eta babesle zintzoa izan nuena, harik eta 1108an musulman fanatiko eroek hilarazi zuten arte.

Lucenako hirian medikuntza ikasi nuen Yişḥaq al-Fāsi rabiaren talmud-eskolan. Ondoren, Sibilian, Kordoban eta Toledon ere bizi izan naiz, sarritan mediku moduan. Artean ezkondu eta alaba bat izan nuen, Šošanah, geroago iloba bat emanen zidana: Yēhudaḥ txikia, neure izena daramana.

Ia neure bizi osoan Al-Andalusen bizi izan naizen arren, ez dut horregatik ahantzi neure jatorrizko Tuterara maitea, eta gogoan daukat oraindik haurtzaroko egun haiek. Maiz atzo egindakoa burura ekartzerik ez dudan arren, nolako bizitasunaz oroitzen naiz, ordea, neure umezaro zoriontsuaz. Gure aitaren dendan lanean edo sinagogan ikasten ez geundenean, ene bi anaia nagusiak eta hirurok Ebrora joaten ginen, gure auzo Binyamin, eta Ismail eta ‘Abdallāh izeneko haur musulmanekin, kanabera eta lezka artean jolastera, eta, udako berotasunean, uretan bainatu eta igerian egitera ere bai. Inoiz amuarrainak eta barboak harrapatzen saiatzen ginen, baina arrakasta gutxirekin, egia esan.

⁴ *Aljama*: ‘juduen auzotegia’ < arabierazko *al-ŷamā‘at* (*al-yahūd*) ‘juduen batzarra’.

⁵ Ikus antologia honetako 44. poema.

Beste batzuetan zubiaren ondoan esertzen ginen, handik, ibai-bazterrean etengabe kroaka ari ziren igelei harriak jaurtitzen. Han geundela, nekazari eta merkatarien gurdi astunek bideko harriak ohondikatzen zituzten artean, udaberrian maiz ikusten genituen geure ondotik nafar artzain kristauak ere pasatzen, iparraldeko mendialdeetatik beren artaldeekin Tuteraraino zetozela, zorua gorotz beltzez ereiten, gure azoketan arkumeak, gaztak eta artilea saltzeko. Haiekin erdizka arabieraz, erdizka edomeraz⁶ eta erdizka euskaraz jardun behar izaten genuen. Hizkera bitxi eta xelebrea zerabilten eta haurroi irri eragiten zigun. Halere, elkarrekiko tratuari esker, merkatura joaten ginen guztiok bagenekien haien mintzairan zenbait hitz esaten: *merkea*, *garestia*, *ona*, *txarra*, *zenbat balio du*, *ez dut nahi* eta halakorik, *deabruak haramala* bezalako madarikazio batzuekin batera.

Artzain horietako gehienak itxuraz basati xamarrak ziren baina, egia aitortuz, gehientsuak behintzat barrutik pertsona on eta zintzoak izaten ziren. Bat dut bereziki gogoan, *Martie* zeritzona. Inoiz bere seme *Enekorekin* etortzen zen, aurpegi gorriko umea berau. Bazuten txakur zurixka bat, *Laster* izenekoa, ardiak bezain iletsua. Gure amak Martieri ezta erosten zion, eta arkume batzuk ere bai, gure etxeko patioan hazi eta Pazkoan hiltzeko. Behin Enekok gazta zati bat eman zidan. Ez zen *kašer*⁷ baina hargatik nik gustura jan nuen, bekatu egin arren.

Orain, zahartzaroan, hirurogeita hamar urteak iraganik, nolabaiteko herri-min nostalgikoaz dakuskit iraganeko egunak, ‘Abd Allāh erregeren garaikoak, almorabide fanatiko haiek 1090ean heldu baino lehenagokoak, nik ere, haiengandik ihesi, zenbait urtetan Toledora joan behar izanik. Urte onak benetan, bake santukoak, adiskidetasun-egunak, bertso-egunak, jan-edan bikainen egunak...

A zer nolako jai eta bilerak egiten genituen Al-Andaluseko poeta gazteok! Haiek bai ardo eta bertso orduak! Orduan maiz lagunene seme-alaben ezteietara gonbidatzen ninduten, eta jakina! hartarako bertsoak eskatzen zizkidaten beti. Gaiak askotan Torah-tik ateratzen nituen, psalmoetatik eta Salomonen Kantiketako kantiketarik batez ere. Baina aldi berean, ezin utzizkoak nituen Al-Andaluseko arabiar poeta ospetsuen ezohiko errima bitxiak, ezusteko gaiak, tankera berriko irudiak, kolorez eta zaporez aseak, biziak orduan hain esku zabalik eskaintzen zizkigun atsegin ugariak kantatzeko.

Ene poema batzuk irakurrita, agian erranen didazue batzuetan gaiak eta irudiak errepikatzen direla, horietako ez gutxi berdin xamarrak

⁶ *Edomeraz*: erromantzez, kristauen erdaraz, kasu honetan nafar erdaraz, ikus 18. (25.b.) eta 46. (5. b.) poemak.

⁷ *Kašer* edo *košer*: Moisesen legearen arabera prestaturiko janaria, judu ortodoxoek bereziki zaintzen dutena.

direla, ezkontzen diren neska guztiak ezin daitezkeela hain politak izan, ez eta senargaiak hain bulartsu eta azkarrak ere. Baina kontua ez da hori. Segur bainaiz ezen ikusi bazenituzte haiek entzutean ezkongai horiek agertzen zituzten zorion-aurpegiak, errazago barka zenitzaketela ene poesietako gezur gozoak, jai giro horretan bertsogileok jendea poztu eta, egun batekoagatik bederen, senar-emaztegaiei errege-erreginak direla sentiarazi behar diegulako.

Bestetik, inoiz erran didate eguzkia, ilargia eta izarrak maizegi aipatzen ditudala konparazioetan, eta loreak ere bai. Ez dakit nik zuen herrian zer nolako gauak ikusten dituzuen, ez baitut uste txikitan Tuterako zerura adi luzaro egoten nintzenik, baina Granadako gau ilunotan zeruko argizagiok egiazko harribitxiak dirudite, beren diamante-argiaz begiak itsutuz. Eta bertoko eguzki distiratsupean hazten diren lili ederren lurrin goxoa inoiz usandu ez baduzue, nola uste nik sentsazio hori hitz hutsez azal niezazuekeela?

Luzaro uso, usapal, orein, orkatz eta gazelen irudiak erabili ditut neure bertsoetan, neska-mutil gazte bikainak ederresteko. Aitor dut horien izenak Torah-tik eta arabiar poeta famatuen izkribuetatik jasoak nituela, hegaztienak salbu, beste animalia horiek egiazki nolatsu ziren jakin gabe. Behin, ordea, neure adiskide zintzo Mošeh ibn 'Ezra'k bere lagun musulman aberats baten jauregira eraman ninduen eta, haren lorategi ederrean Afrikatik ekarririko animalia lirain eta zoragarri horiek, haien itxura eta ibilera dotoreak mirestean, berehala ulertu nuen zergatik zituzten poetek haiek hainbeste goraiatzen.

Baina ene bertso guztiak ez dira pozgarrizkoak izan, ez eta azalekoak ere. Gauza sakonagoak ere ukitu ditut, gizaki orok, leku eta denbora guztietan, sentitu, sentitzen eta sentituko dituzten kezka larriak hortxe izanen baitira betiko. Ezin izan dut sekula ahantzi, bestalde, Israel nire herriaren patu latza, oraindik erbesteratua eta sorterririk gabea, berreroslearen zain. Jakin dut, halaber, bertso tristeak egiten, senide eta adiskide maiteen heriotza eta dolurako egokiak. Egiazki, ez dago hitzik semea edo alaba galdu duten gurasoen samina ken dezakeenik, baina jakizue inoiz ene poemek ematu bederen egin dietela nolabait mingostasun hori, Guztiz Gorenarengan dugun fedea bezalatsu.

Eta izan ere, nik beti fedea eduki dut, fede sakona, bai baitakit gure Jainkoak, -goraipatua biz Haren izena!- azkenean errukiturik, ez duela bere herria bazterrean utziko, ez dela juduoz ahantziko. Hori dela eta, Beraren omenez eta gure erlijio santuari buruz ere bertso anitz eginak ditut, Jaunaren eta ene sineskideen gogokoak izanen direlakoan. Halaxe prestatu nuen, neure ohiko bertso lanez landa, arabierazko liburu bat

كتاب الحجة والدليل في نصر الدين الدليل⁸, elkarrizketa gisa moldatua, egiazko sinesmen bakarra juduona dela frogatzeko, kristau-musulmanak erabat oker eta itsu dabiltzan bitartean.

Fedea daukadala erran dut, baina inoiz, zorigaitzoz, ilusio faltsuak ere bai, era horretako sineskeriek aldean beti desilusioa dakartela arinegi ahantzirik. Halaxe gertatu baitzait inoiz niri ere, kabalan adituei kasu egiteagatik, horiek 1130.urtean gu islamaren menpetik salbatzeko, Mesias etorriko zela iragarri zutenean.

Harrezkero ordea, hamar urte iragan dira. Halere, musulmanak ondo zutik daude agintean eta bitartean guregana inolako berreroslerik heldu ez. Dena den, pentsatzen dut sufrimendu honek honenbeste irauteko arrazoiren bat ukanen duela gure Jainkoak. Agian oraindik ez dugu Haren barkamena merezi. Beharbada gure jatorrizko herritik, Jainkoak berak gure gurasoei agindu zien Lurraldetik, luzaroei egon gara hastandurik. Ene ustez, hamar mende denbora luzeegi da herritik kanpo bizitzeko. Horregatik, aurten Jerusalemera joatea erabaki dut, gure arbasoen sorleku sakratuan bizitzera, eta hiltzera ere bai, bertan gelditzeko asmoa dut eta.

Adiskideek ez joateko erran didate behin eta berriro, baina nik erabakia sendoki hartua daukat. Bai, Jerusalemera noa. Orain arte ez naiz behin ere itsasoratu eta, zertarako uka, beldur naiz, anitz gauza ikaragarri entzun baititut horrelako bidaiez, ekaitz, zorabio eta itsaslapurrez beteak izaten dira eta. Halere, Jainkoa dut nik artzain eta horregatik badakit Berak ez nauela galtzen utziko.

Beraz, honezkero ontzi-kapitain batekin mintzatua naiz, ene itsas bidaia antolatzeko. Kristaua izan arren, fidatzekoa omen da eta ibilaldiaren saria ere berbatua dugu. Hemendik Alexandriara abiatuko naiz, Egiptora. Han, beharbada, denbora pixka bat eman beharko dut, Israelgo Herrira itsasoz eramango nauen beste ontzi bat edo lehorrez Jerusalem santura gida nazakeen karabanaren bat aurkitu arte. Edonola ere, segur naiz azkenean bertara helduko naizela.

Hara joan aitzin baina, gutun hau izkiriatu dizuet, Tuteran oraindik zaituztedan anaia, senide eta ahaideoi. Urte hauetan ez dugu elkarren berri handirik ukan, ez baita hain erraza izaten, eten gabeko gerra giro honetan, infidelen herrialdeetatik bidaiatzea, ez gutunak igortzea ere. Halere, ene bizitzaren amaieran bederen –ene adinarekin ezin baitut

⁸ Hau da *kitāb al ḥuj̄yā wa-l-dalīl fī nuṣr al-dīn al ḍalīl*, hots, 'Erligio mespretxatuaren aldeko froga eta oinarriari buruzko liburua'. Halere, gaur egun ezagunagoa da *Sefer ha-Kuzari* hebreerazko izenburuarekin, Yēhudah ibn Tibbon-ek, beste bi itzultzaile judu ospetsuen aita eta aitonak eta 'judutar itzultzaileen patriarka' deituak, jadanik XII. mendean egindako itzulpenagatik. Espainieraz bada itzulpen bat Jesús Imirizalcuk egina: *Cuzary. Libro de grande ciencia y mucha doctrina*, Madrid, 1979.

anitz urterik espero— nahi nuke umetan ezagutu ninduzuenok azkenik ene berri ukaitea, eta besteok, loba, lehengusu eta senide ezezagunok, gutxienez, nor nauzuen, zer egin dudan eta nondik nora ibili naizen jakitea, orain noan lekutik zuengana berriro itzuliko ez naizelako segurtasunean. Oroigarritzat, gainera, aparteko liburu gisa, neure bertsoen kopia bat bidaltzen dizuet, neronek presaturiko *dīwān*-ean⁹.

Beraz, izan zaitetze guztiok ongi eta euzue bakea, osasuna eta zoriona, eta otoitz egiozue, otoi, Guztiz Gorenari ene arimaren alde, nik ere zuen alde erregutzen diodan bezala: Amen”.

Bada beste orri solte bat hebreerazko esaldi labur honekin:

שלום, אהם זחברים, שלום

šalom, 'aḥim we-ḥaberim, šalom. ‘Agur, anaiok eta adiskideok, agur’, baina hebreeraz *šalom* hitza, euskarazko *agur* bezala, bai hasierako eta bai bukaerako diosala egiteko erabil daitekeenez, ezin jakin dezakegu aurrena ala azkena den.

* * *

Eskuizkribu honetan esaten denetik landa, deus gutxi heldu zaigu tuterar poeta famatuaren gainerako bizitzaz. Bere poemei esker badakigu, jakin, bere itsasaldian poema batzuk idatzi zituela. Ondoren, berak iragarri bezala, Egipton urtebete pasatu zuen, egotaldi horren lekuko poemak ere utziz. Azken berri seguruen arabera 4901. urteko Siwan hilabetean, gure egutegiko 1141.eko maiatzaren 14an, Alexandriatik itsasontziz irten zen, zalantzarik gabe Israeleratzeko asmoz. Hortik aurrera ez dugu ezaupide zehatzik, urte bereko *Ab* hilabetean hil zela izan ezik

Legenda batek dioenez, arabiar zaldun batek bere zaldiaz zapaldu eta kolpeaz hil omen zen Tenpluko Mendebaldeko Hormara otoitz egitera zihoanean, hots, gure artean Deitorean Horma deitu ohi dugunaren ondoan. Hogeita hamar bat urte geroago bere herrikide zen Benjamin Tuterakoak bere Bidaien Liburuan Galilea Beherean haren hilobia ikusi zuela diosku, baina autore batzuek, horien artean Giulio Busik datu hori zalantzan ipintzen dute, Yēhudah Israelera iritsi baino lehen hil zelakoan¹⁰.

Nolanahi ere den, Tuterako poeta ospetsu honek, bere obragatik toki gorenetakoa bat gordeko du betiko, penintsulako Erdi Aroko hebrear poesiaren ordezkari bikainena bilakaturik. Guk Yēhudah ha-Levi denboraren eta orain arteko

⁹ *Dīwān*: arabiar edo hebrear poemen bilduma. Zoritzarrez, Tuterako etxe horretako horma artean, gutun hau topatu den txokoa, ez da aipaturiko *dīwān* horren aztarrenik aurkitu.

¹⁰ *Ikus Benjamin Tuterakoa. Bidaien liburua*, Iruñea, 1984, 82. orr., eta Giulio Busi, *Binyamin da Tudela, Itinerario*, Ed. Luisè, Rimini, 1988, 42. orr.

utzikeriaren ahanzturatik atera eta haizearen hegalean gainean guregana erakarri nahi izan dugu, aurtengo *Nafarroa oinez* herri jaialdia Tuterako *Argia* ikastolaren alde antolatu den honetan berak ongi merezi duen ohore handiaz omentzeko. Honexetarako moldatu dugu, hain zuzen ere, hebreera, euskara eta gaztelaniazko antologia hirueledun hau *Haizearen hegaletan / Sobre las alas del viento* izenburuduna, Tuterako poetak bere poemetan¹¹ errepikatzen duen bertso zatiaz baliatuz: עלי כנפי רוּחַ 'aley kēnafey ruah.

Hebreerazko testuak *Clásicos Alfaguara*-ren dohaineko lankidetasun desinteresatuari esker argitaratzen dira, editorial honek 1994ean plazaratu zuen *Yehuda ha-Levi. Poemas*¹² hebreera-gaztelaniazko edizio elebidunetik jasoak. Gaztelaniazko itzulpen bikaina, oharrak eta poema-iturrien bibli aipamen zehatzak **Ángel Sáenz-Badillos** irakasle jaunaren eta **Judit Targarona Borrás** andre doktorearen kortesia, borondate on eta eskuzabaltasunari zor dizkiegu, guk horietako batzuk laburtu baditugu ere; berauena da, halaber, poeta honen poema-liburu hoberenak kontuan harturik eta Al Kairoko *Gēnizah*-ko dokumentu zaharren argitan¹³, poemen hebrear testuak prestatzeko lana, beti ere erabiliriko argitalpenak, eskuizkribuak eta atalak aipatuz.

Eskerrak ematen dizkiot, halaber, Jerusalemeko Hebrear Unibertsitateko irakasle den **Haim Beinart** doktore jaunari, egin duen aurkezpen baliosagatik, gure poeta bere garaiko testuinguru historiko-kulturalean kokatzeko ezin argigarriagoa. Era berean, eskertu nahi diot neure adiskide on **Jose Maria Satrustegi** nafar euskaltzain eta etnologo handiari eskaini digun lankidetzaz, gaurko egoeran egilearen erreferentzia hurbilagoa prestatzean, bai eta **Andolin Eguzkitza** euskaltzain adiskideari, testuak birbegiratzeko laguntzagatik.

Guztiori geure eskerrik beroenak helarazi nahi dizkiegu bihotzez, bai eta edizio hau argitaratzeko laguntza eskaini diguten erakunde guztiei ere. Euskarazko itzulpena behean sinatzen duenak egina da, horretarako Hebrear Hizkuntzaren Akademiako **Mordekhai Mishor** jaunaren laguntza eskergaitza izanik. Gauza xeheetan aholkulari zintzo izan ditudalako, halaber, ezin ditzaket aipatzeke utz **Karmel Avivi** andrea, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle den **Alex Feinstein**, eta neure arabiera irakaslea izandako **Shaalán Hares** adiskidea ere, ez eta *last but*

¹¹ Ikus, adibidez, 1, 16 eta 37. poemak. Hitz horiek, azken buruan Bibliatik jasoak dira, cf. 2Sm 22,11.

¹² *Yehuda ha-Levi. Poemas*, Intruducción, traducción y notas: Ángel Sáenz-Badillos y Judit Targarona Borrás. Estudios literarios: Aviva Doron. Ed. Clásicos Alfaguara, Madrid, 1994.

¹³ *Gēnizah* גניזה hebreerazko hitzak eskuarki 'artxiboa' esan nahi du, baina bereziki erlijiozko liburu eta izkribuen gordailua adierazten du, barruan Jainkoaren izen santua daukatelako suntsitu edo desegin behar ez direnena. Horregatik, batzuetan, juduen hilerrietan, *gēnizah* izenburu bakarraz hilarri bat agertu ohi da. Honen kariaz, 1890ko hamarkadan Al Kairoko Fustat auzotegi zaharreko Ben 'Ezra' sinagoga zaharraren azpian, kripta batean ezkutaturik, X. mendetik XIX. mendearen bukaerara arteko izkribu baliotsu asko aurkitu ziren, horien artean, Mošeh ben Maimon 'Maimonides' Kordobako filosofo handiaren zenbait testu autografo eta Yēhudah ha-Leviren obra batzuk.

not least, neure aita **Benjamin** ere, bere 86 urteak gora behera, Bibliako aipamen guztiak banan-banan egiaztatzeko hartu duen arduragatik¹⁴.

Hebreerazko poemagintzaz zerbait¹⁵

Greziera, latina eta bokal luze-labur edo ireki-hertsiaak zituzten antzinateko beste hizkuntzetan gertatzen zenez, hebrear poeta klasikoak errima kuantitatiboaz baliatzen ziren hoskidetasuna lortzeko, hau da, poemarako aukeraturiko hitzen silaba labur –ahopekoak edo xuxurlatuak ere deituak– eta luzeen arteko konbinazioez baliatuz, horrela belarrirako eragin atseginak lortzeko. Horrez gainera bertsoen amaieran – eta inoiz erdian ere bai – errima lagungarriak ager zitezkeen.

Lerroen bukaerako silaben errima hutsez egindako bertsoak, ordea, geroagokoak omen dira, bokalismoan kantitaterik ez duten hizkuntzetan agertua. Aski esanguratsua da, bertsogintza eredu berriago honen eredurik zaharretako bat, non eta Georgian aurkitua izatea, hau da, euskararen antzera, bokaletan holako bereizketarik egiten ez duen hizkuntza batean¹⁶. Horrez gainera, mendebaldean ere, eredu estrofiko berria latinezko eliz kantu berantiar batzuetan azaldu zen (*Tantum ergo, Dies irae dies illa*) eta latinetik sorturiko hizkuntza erromanikoetan berehala zabaldu zen. Hori da, bestalde, euskal poesiaren iturria ere, bai herritarraren eta bai landuarena ere¹⁷.

¹⁴ Bibliako aipamenak direla eta, argi esan behar da gure artean nagusi dabilen *Elizen ateko Biblia*, itzultzaileek kristau fededunei Jainkoaren hitza baino gehiago Haren mezu eguneratua eskaintzeko izandako kezkatatik –hots, lehen itzulpen askeegi eta orain itzulpen dinamiko deitzen direnen alde agertu direlako– ez dela beti literatur testu fidagarria izaten Yēhūdah ha-Leviren poemekin parekatzeko. Neurri handiz, hitzak eta esaldiak hobeki errespetatu zituelako, hau da, Bibliaren literatur balioak zehatzago transmititzen jakin zuelako, helburu honetarako, maiz askoz egokiagoa izaten da Duvoisinien itzulpen klasikoa.

¹⁵ Azalpen hauetako gehienak Sáenz-Badillos eta Judit Targarona irakasleek goian aipaturiko obran egindako sarrera zehatzetik jasoak dira, 22-23. orr.

¹⁶ Aurkikuntza, Stalinen jaioleku izandako Gori hiritik hurbil egin zen, Sioniko monasterioan, hain zuzen. Santutegi hau VII. mendean eraikia izan arren, bere hormetako bertso horiek IX. mendeko estratuan agertu ziren *asomtavruli* alfabetoan idatzirik. Honetaz, ikus Zaza Aleksidze-ren lana: ატენის სიონის ოთხი წანწენი *at'enis sionis otxi c'arc'eri* (= 'Ateniko Sioniko lau izkribu') in “საბჭოთა საქართველო *sabč'ota sakartvelo*”, Tbilisi, 1983. Aipaturiko bertsoak zazpi lerro dauzka, -არი *-ari*, errima kontsonantearekin, azken hitzotan argi nabari denez: მოძუარი *mozpuari*/გუჟარი *vuč'ari*./საყმარი *saq'mari*/ნაკმარი *nakmari*/ვიტარი *vitari*/საკმარი *sakmari*/მდიდარი *mdidari*

¹⁷ Euskal poesiaren jatorriari buruz Jon Juaristik bere iritzi aski heterodoxoa publikatu zuenetik arazo honetaz sortu den polemika interesgarria dela eta, ondoko lanak kontsulta daitezke: René Lafon, “Sur la versification de Dechepare” in *Boletín de la real Sociedad bascongada de los Amigos del País*, Donostia, 1957, 392. or.; Luis Michelena, *Historia de la Literatura vasca*, Ed. Minotauro, Madril, 1960, 22-26 eta 45-48. orr.; Jon Juaristi, *Literatura vasca*, Col. Historia crítica de la Literatura Hispánica, Taurus, Madril, 1987, 30-39 orr., eta batez ere Patxi Altunaren artikulua eta ikerlanak, orainsu ateratako liburu mardulean bilduak: Patxi Altuna, *Haizeak ez eramango!*, Deustuko Unibertsitatea, Donostia, 2002, 36-104 orr.

Tuterako poetak, Bibliako eredu klasikoekin batera (*Psalmok, Kantiketako kantika...*), orduko arabiar poesia jori eta aberatsa ere izan zuen jarraibide. Semitar hizkuntza bietan baina, poetek kantitate silabikoaz jokatzen segitzen zuten, silaba luze-laburren arteko konbinaketak eginez, eredu jakinen gainean. Halere, erromantzez mintzo ziren kristauen eredu estrofikoak ere erabiltzen ziren, eta gure poetak, gutxitan bada ere, horiek imitatu nahi zituela ematen du. Halere, erlijio-poema batzuk seguraski Kordobako poeta judu berritzaileek asmatu metro silabikoari jarraikiz paratu zituen, haiek arabiar ereduari itsu-itsuan segitzearen aurka zeuden eta.

Horiez gainera, *muaxaha* (arabieraz *muwaššaha* موشحه) izeneko poema mota erabili zuen, hots, bukaeran *harja* edo herri-hizkerako kantutxo bat (arabieraz *خرجه ḥaryā* ‘irteera’ zeritzona) zeukana, mozarabieraz, arabiera klasiko edo dialektalez zein hebreeraz zegokeena, baina beti ere hebrear letrekin idatzia. Uste denez, mota honetako bertsoak kristauen eredu estrofikoa imitatu nahian sortu ziren, harjaren eritmoaren arabera. Azkenean, beste poema estrofiko batzuk, sinagogakoak bereziki, egitura askeagoa erakusten dute, bertso bakoitzaren ondoan sarrerako lerro bat errepikatuz, poesia antifonalaren antzera, gutxi edo asko arabieraz *zāyāl* (زجل) deritzon eta euskaraz *zajal* gisa letraldatu dugun herri-beretsoaren formara hurbilduz.

Nolanahi ere den, haren eta gure bertsogintzaren arteko ezberdintasun handia ikusita, euskarazko itzulpen honetan ez gara saiatu hebrear poemak errimaz ematen, gure ahalmen urrien arabera alfer-lana zelakoan. Halere, Ángel Sáenz-Badillos jaunaren pausoei jarraikiz, jatorrizko testutik hurbil ibiltzeaz gainera, maiz poema motari buruzko argibideak eskaintzen ditugu, irakurleen informaziorako. Era berean, poetak erabiliriko neurkerak ere ezarri dira: *ha-mērubbeh*, *ha-šalem*, *mišqal ha-tēnu* ‘ot, *ha-qalua* ‘ etab.

Zoritxarrez, – *traduttore, traditore* – bada itzulpen orotan galtzen den zerbait: jatorrizko hizkuntzako hitzen forma, kolorea eta usaina, konnotazio bereziak, aliterazioak, homonimia eta erretorika-baliabide eta jokoak. Eta Yēhudah ha-Leviren kasuan horiek maiz indar guztiaz lehertzen dira beren poemetan su eder argitsuak udako gau ilunetan bezala. Horregatik inoiz hebreerazko testu jatorrean holako batzuk badirela espresuki adierazten da.

Bestalde, Yēhudah-ren poemak bibli aipamenez josiak daude. Begien bistan dago Torah, gure Testamentu Zaharra, goitik behera eta buruz zekiela berak, oraingo judu askoren antzera, eta atsegin zuela pasarte horiek tarteka bere poemetan txertatzea, Jainkoaren ahotiko harri bitxiak bailiren. Interesgarria bezain jakingarria delakoan, saiatu egin gara, halaber, horiek guztiak ematen.

Berariak ezkutaturiko iragana berreskuratu nahirik

Erdi Aroan zehar Al-Andalusko arabiar eta hebrear poesi panorama goren eta distiratsua ikusita, norberari, ezinbestean, gogora dator kio garai beretsuko kristau bertsogintzaren hasi-masiko egoera penagarria. Izan ere, nola ahantz orduko herri

poesia epikoaren forma urriak, XII. Mendeko Mío Cid hura lekuko, edota, *mester de clerecía* landuagoaren poemagintza bera, XIII. mendeko Gonzalo de Berceo-gandik XIV.eko Juan Ruiz-engana helduko zen *cuaderna vía*-ko tetrastrofo monorrímo primitibo, zurrun eta mergatz haiek ezin gaintuz?

Eta bitartean IX. mendetik hegoaldean Al-Mundir ben Sa'íd al-Balluti, Al-Zubaydik, Ibn Ḥazm Kordobakoa XI.ean -*Usoaren idunekoa*-ren egilea (XI. mendekoa)- arabiar idazleek, eta Šēlomoh ibn Gabirol, Mošeh ibn 'Ezra' edo Yēhudah ha-Levi autore juduek lirika bikaina lantzen ari ziren, kristauek, dirudienetik, horren berri handirik izan gabe¹⁸.

Zoritzarrez, penintsulako kultura ezberdinen arteko urruntasun hori, denboran zehar, irauteaz gainera, handitu ere egin da. Egia da bai arabistek eta bai hebraistek ere ahalegin txalogarriak egin dituztela andalusiarrak mundu garrantzitsu eta iradokigarri hori, hizkuntza ezberdintasunagatik arrotz gertatzen zitzaiguna, jendartean erazagutzeko, horregatik horiekin dugun zorra kitagaitza izanik. Halere, ez da gezurra, oro har, horien lana ez dela oraindik irten aditu eta intelektual talde aski urritik kanpora, ongi merezi duten dibulgazio eta zabalkundea botere publikoek eskaini nahi ez dietelako. Eta ez dezagun deus esan beste zenbaitzuei buruz, hezkuntza arloan administrazio-erantzukizunik izanda, nola edo halako aurreiritziengatik, penintsulako gainerako ondare kulturalak –lehenagokoak eta oraingoak– propiotzat hartzearen aurka agertu direnez, informazio hori eskola-programetan oztopatzen eta ezkututzen saiatuz.

Inorena mesprezatzeko inertzia historiko hori, tamalez, ez zaigu semitar munduan mugatzen. Aitzitik, europar etnozentrismo orokorragoaren isla dugu, hortik, norberarena neurrigabeki balioestean, beste herri batzuk kolonizatu, beren kulturak saihestu eta haien zapalkuntza zurrizko oinarri ideologikoa antolatuz¹⁹.

¹⁸ Américo Castro-k eta Emilio García Gómez-ek azaldu dutenez, badira, izan, zenbait kidetasun Ibn Ḥazm-en *Usoaren idunekoa*-ren eta Hitako Artziprestearen lanaren artean, baina bai urri xamarrak direlako eta bai horien izaera aski orokor eta lainotsuengatik ere, ez dirudi nahikoak direnik hortik Erdi Aroko espainiar idazle kristauek arabiar liburuak ulertu eta eskuarki irakurtzen zituztelako ondorioa ateratzeko. Hori hobeki azal liteke penintsulako geografi eta kultur giro amankomunaren ondorio gisa, horrek garai hartako bizimodua, ohiturak eta pentsaera kutsatzen baitzuten, orduko koblakari ibiltariek eta zenbait itzultzailek, musulmanek bereziki, tematika eta poesi berrikuntzak barreiatuz. Ikus: Américo Castro, *España en su historia. Cristianos, moros y judíos*, Buenos Aires, 1948; Ibn Hazm de Córdoba, *El Collar de la Paloma*, versión de Emilio García Gómez, Alianza Ed. Madrid, 1971, eta Juan Vernet, *Literatura árabe*, El Acantilado, Barcelona, 2002, 281-297. orr.

¹⁹ Hau are nabariagoa dugu antzeen esparruan. Hortxe da gure testu-liburuetan oraindik asiarrak, afrikarrak eta amerindiar kulturei eskaintzen zaien ohiko trataera baztergarria. Mesopotamiako, Egiptoko, Greziako eta Erromako arteari eta mendebal Europako estilo ugariak (erromaniko, gotiko, Bizkundekoa, barrokoa, neoklasikoa, erromantikoa, modernismoa...) azaltzeko zenbatnahi orrialde utzi ondoren, kasurik onenean, hiruzpalau orrialde aski ditugu gainerako giza zibilizazioen antzearen berri emateko, horietako batzuek, India edo Txinakoak, adibidez, milaka urteko historia etengabea duten arren. Eta Europakoa ez den musikaren mundura iraganez gero, gutariko gehienok aitortu beharko dugu, arlo hori Marte planetaren gainazala baino ezezagunago zaigula.

Gaur egun ere, kultur aniztasunaren eta mestizajearen aldeko aldarri horiek guztiok gora behera, objektibitate eta kalitateaz hainbeste mintzatzen zaigunean, penintsulako hizkuntza eta kulturen herentzia historiko erraldoia, praktikan erabili gabea, bazterrean uzten segitzen da, beste batzuen artean, musulmanak eta juduak zortzi mendetan zehar auzo eta herkide izan ez bagenu bezala.

Pozik geundeke argitalpen honek, Tuterako semearen omentzeaz batera, bide batez, arabista-hebraistei beren lana hedaraztera lagunduko balie, eta orain arteko injustizia historiko hori nolabait salatu eta ordaintzeaz batera, luzaroegi ezkutatu diguten kultur errealitate distiratu horretarantz begiak irekitzeko balioko balu.

Xabier Kintana Urtiaga,
Euskal Herriko Unibertsitatea,
2002.eko uztailean.

HEBREAR ALFABETOAREN TAULA

Letra	Zenbaki-balioa	Izena	Transkripzioa	Hotsa
א	1	alef	ʾ	bokala, maiz a bokala
ב, בּ, בֵּ	2	bet	b, <u>b</u>	b, <u>b</u> = v
ג	3	gimel	g	beti biguna, euskaraz bezala
ד	4	dalet	d	d
ה	5	he	h	aspiratua, baina gaur eskuarki mutua
ו	6	waw	w, u	gaur u edo v
ז	7	zayin	z	euskarazko z
ח	8	ḥet	ḥ	espainolezko j [x]
ט	9	tet	t	t
י	10	yod	y	euskarazko j edo i
כ, כּ, כֵּ, ך	20	kaf	k, <u>k</u>	k, <u>k</u> = espainolezko j [x]
ל	30	lamed	l	l
מ, מּ	40	mem	m	m
נ, נּ	50	non	n	n
ס	60	sameḥ	s	s (gure s bezalako)
ע	70	ayin	ʿ	bokal guturala
פ, פּ, פֵּ, ף	80	pei, fei	p, f	p, f
צ, ץ	90	ṣade	ṣ	euskarazko tz
ק	100	kof	q	k
ר	200	reš	r	r, gaur frantsesa bezalako
ש, שׁ, שׂ	300	śin, šin	ś, š,	ś = gure s; š = euskarazko x
ת	400	tav	ṭ	t aspiratua. Gaur t

Kaf, mem, nun, fei eta ṣade letren aldaerak, eskuarki luzeagoak, hitzaren bukaeretan erabiltzen dira.

Hebreerazko bokal labur edo “xuxurlatuak” adierazteko, beren gainean zeinu okertu bana daramate: ă, ě, ǒ. Luzeak apostrofoz adierazten dira: ʾa, ʾe, ʾo. Guturalak, ayin-ekin idatziak bestaldeko apostrofoz ʾa. ʾe...

Arabierazko bokal luzeak, ordea, lerro zuzena daukate: ā, ī, ū.

Hebreerazko Bibliaren aipamenen laburdurak

- Ab: Abdia, 'Obadyah עובדיה
Ag: Ageo, Haggay חגי
Am: Amos, 'Amos 'Amos עמוס
Dn: Daniel, Daniyy'el דניאל
Dt: Deuteronomioa, Debarim דברים
Ep: Epaileak, Šofetim שופטים
1 Erg: 1 Erregeak, 1 Melakim מלכים א
2 Erg: 2 Erregeak, 2 Melakim מלכים ב
Es: Esaera zaharrak, Mišle' משלי
Est: Ester, 'Ester אסתר
Ez: Ezekiel, Yehezq'el יחזקאל
Ezr: Ezra, 'Ezra' עזרא
Hab: Habakuk, Habaqquq חבקוק
Has: Hasiera, Berešit בראשית
Ir: Irteera, Šemot שמות
Is: Isaia, Yeša 'yahu ישעיה
Jb: Job, 'Iyyob איוב
Je: Jeremia, Yirmeyahu ירמיה
Jl: Joel, Yo 'el יואל
Jon: Jonas, Yonah יונה
Jos: Josue, Yehošu 'a יהושע
Kt: Kantiketako kantika, Šir ha-širim שיר השירים
1 Kro:1 Kronikak, 1 Dibre' hayyamim דברי הימים א
2 Kro: 2 Kronikak, 2 Dibre' hayyamim דברי הימים ב
Le: Levitarrena, Wayyiqra' ויקרא
Ml: Malakia, Mal'aki' מלאכי
Mi: Mikea, Mikah מיכה
Na: Nahum, Naḥum נחום
Ne: Nehemia, Neḥemyah נחמיה
Nk: Negar kantak, 'Ekaḥ איכה
Os: Osea, Hošea הושע
Ps: Psalmoak, Tehillim תהלים
Qo: Eklesiastes-Qohelet, Qohelet קהלת
Rt: Rut, Ruṭ רות
1 Sm: 1 Samuel, 1 Šemu 'el שמואל א
2 Sm: 2 Samuel, 2 Šemu 'el שמואל ב
So: Sofonia, Šefanyah צפניה
Za: Zakaria, Zekaryah זכריה
Zen: Zenbakiak, Bemidbar במדבר

Yěhudah ha-Levi ✧ יהודה הלוי

HAIZEAREN HEGALETAN

עלי כנפי רוּח

Poesi antologia

אנתולוגיה של שירים

Argitalpen hirueleduna:
euskara, gaztelania, hebreera

מהדורה תלת-לשונית: עברית, ספרדית, בסקית



MAITASUN ETA ARDO BERTSOAK

...eta emaiozu zeure maitaleari esnearekin ezitia.

... "Edan ene ezpainen artetik mahatsen odola"



שירי אהבה ושירי יין

!ודבש וחלב אהבך הניקי!

"שתה מבין שפתי דם ענבים"

1

Haizearen hegaletan jartzen ditut neure agurrak
egunaren beroan ene maiteagana jotzen duenean;
joan zen egunaz oroit ledin nahi nuke, besterik ez,
sagartze-ondoan maitasun-ituna egin genuenekoaz.

2

Gazela graziatsua, edertasunaz gatibatu ninduzun,
eta zeure presondegian krudelki sartu, esklabo.
Bion arteko urrunaldia gertatu zenetik
ez dut inon aurkitu zure pareko ederrik.
Sagar gorria dastatzen dut, horren lurrina baita
zure aurpegi eta zure jantzien antzeko;
zure bularren irudia du berak eta
zure masailetakoa errubi horren kolore.

- 1) Urrun dagoen maitearen gogorapena. Neurkera: *ha-šalem*.
 1. “Haizearen hegaletan”: cf. 2Sm 22,11. “Jotzen du”: cf. Kt 2,17.
 2. “Maitasun-ituna”, hebreeraz esaera honek Jainkoaren eta gizakien arteko itunen goren maila berbera du, Biblian bezala. Cf. Has 15,18.
- 2) Urrun dagoen maitearen iradokizuna, Goiburua arabieraz: “Eta orein emeaz poema hau esan zuen”. Neurkera: *ha-mērubbeh*.
 1. “Gazela” (*Šēbiyyah*) ohiko beste izen bat neska maitea izendatzeko. “Gatibatu”: Egiptoko menpekotasunaren aipua, cf. Ir 1,13.
 3. Maitasun gai honek maiz naturatik jasoriko imajinak eta aipamenak erabiltzen ditu, lore, fruitu, harri bitxi, izarrekin etab. paraleloak ezarritik. Ikus-usaimenezko metaforak, beste zentzuko batzuei buruzkoak ere izan daitezkeen arren.

3

Gau hartan, gazela gazteak erakutsi zizkidanean
bere masailen eguzkia eta adatsaren beloa,
errubia bezain gorria, bedelio bustizko
lokien gainean, haren irudi ederra estaliz,
eguzkiaren parekoa zen bera, egunsentian
bere gar distiratsuaz goiztiriko hodeiak gorituz.

4

Orein emeak bere jantziak nire malkoen uretan ikuzi ondotik
bere distiraren eguzkitan hedatu ditu lehortzera.
Ez du iturriko urik behar, ene begiak baitauzka aski,
ez eta eguzkirik ere, bere itxuraren ederraz.

- 3) Maitearen edertasuna azaltzen du. Zangalatrauan jarririko bertsoak, hebreeraz aditz nagusia hirugarren bertsoaren hasieran duela. Neurkera: *ha-šalem*.

1-2. Maitearen aurpegiaren kolore biziari buruzko aipamena, haren lokien zuritasunarekiko kontrastean. Haren ilea aurpegia ezkutatzeko darabilen beloa da. Arabiar eta hebrear poesian ilearen kolorerik ohikoena beltza da, baina hemen poetak kolore-ukitu bat ezarri nahi izan du, Al-Andalusko XI. mendeko beste poeta batzuek ere erabilia. Bedelioa Biblian (*bēdolah*) izenaz maiz aipaturiko harri bitxia da, inoiz 'diamante' gisa ere itzulia. Cf. Duvoisinien itzulpenean Has 2,12.

- 4) Maitearen deskripzioa eta maitalearen nahigabeen azalpena. Goiburua arabieraz dakar: "Neskatxak arropa ikuzten ari ziren ibai baten ondoan igarotzean bat-batean egin zuen [poema], ederrenetako bat". Neurkera: *ha-šalem*.

1. "Orein emea" Hispaniako hebrear poesian emakume maiteari eskuarki emandako izena. Jaramonik egiten ez zaion maitalearen negarra Erdi Aroko arabiar eta hebrear poesiaren topikoa izaten da. "Eguzkitan hedatu ditu": cf. Je 8,2.

2. "Eguzkitan hedatu": cf. Je 8,2.

5

Zutaz maitemindua borrokan dabil, gero eta gogorrago,
 eta urruntasunaren suak piztu dio amodioa.
 Gaitzesten nauzu, horrexegatik darabilzu ene aurka lantza!
 nik ere nekaturik daukat arima: atera ezazu ezpata ba!
 Neskatxa ederra! ez da komeni zure maitea gatibu egotea,
 hurbil zakizkio, ezerez dakion urrunaldiaren gurdia.
 Ene penen ohantzea bihur ezazu ezkon-ohe gozo,
 eta emaiozu zeure maitaleari esnearekin ezitia.

6

Usoak, eguzkia irudi, astroen esfera kurritzen du,
 sortu den guztiaren gain sendoki erreinatuz.
 Geziak ditu hark begiak, gizonaren bihotzean behin ere
 hutsik egin gabeak, bera herraz odolusteko.
 Bere Edeneko loreak ongi babesturik dauzka
 suzko ezpataren garrek gordetzen dizkiote eta.

5) Maitasunezko erregua. Neurkera: *ha-šalem*.

1. “Borrokan”: cf. Es 7,26, 2Sm 11,25.

2. Cf. Ps 35,3; Es 15,32.

3. “Neskatxa ederra”, lit. ‘oreinaren laguna edo “edertasunaren laguna”. “Gatibu”: cf. Ir 12,29.

4. “Esnea eta ezitia”: Lurralde promestuaren adierazpen idealizatua, hots, “esnea eta ezitia darizkion lurraldea” (ארץ זבת חלב ודבש *’ereš zaḇaṭ ḥalab wē-dēbaš*) cf. Ir 3,8, horrela azken bi bertsoak bestela ere irakurtzeko aukera emanez, hor urrunaldia erbestea eta elkarrenganako maitasunaren poza, aldiz, antzinako Aberrira itzultzea izanik.

6) Poema konbentzional honetan neska maite urrunduk bere maitalea gogorki darabil. Arabiar gaiak eta Bibliako irudiak tartekatzen dira. Neurkera: *mišqal ha-tēnu ‘ot*.

1. Maitea eguzkiarekin konparatzen da. “Esfera”: Erdi Aroko astrologiaren arabera, eguzkiak eta astroek Lurraren inguruan ibiltzean egiten duten orbita edo bidea. “Erreinatuz”: cf. Ez 20, 33.

2. “Geziak ditu hark begiak”: arabiar poesian maiz aipatzen den gaia. “Hutsik egin gabeak”: cf. Ep 20,16.

3. “Eden”: Cf. Has 3,24.

Sugegorriak dira zure masailak, baina baltsamoa darie;
 urrundua oinazetzen dakite, hurbila, ordea, sendatzen.
 Zeure ahotik eta zeure masailen abaraskatik emaiozu dastatzera
 maite zaituenari ukendu eta ezti pixka bat.

Ikusten nautenek, harriduraz, galde egiten didate
 ea ene aurpegiaren argia zerk iluntzen duen;
 eta nik erantzun: ene maitaleek, urruntzean
 ene eguzkiarekin joan baitziren, ene ilargia ere eramanez.
 Nola biziko naiz ni ba, haiek joan eta gero? Zer egin dezaket,
 horiek ene oinaze eta, aldi berean, ene baltsamo badira?
 Haiez oroitzean min dut, bihotzaren sarraila
 lehoiaren ahutzetan preso banu bezala.

- 7) Maitalearen erregua. Maiteak haren zoriona eta zoritxarra bere eskuan dauzka. Neurkera: *ha-qalua*.
1. "Sendatzen": lit. "zauria bendaz lotzen".
 2. "Ukendua eta ezti": cf. Has 43,11.
- 8) Maite urrunduari eginiko poema. Hura eguzkia da, eta urruntzean maitalea iluntasunean uzten du. Neurkera: *ha-dohar*.
4. "Bihotzaren sarraila": cf. Os 13,8.

Zer gertatzen zaizu, gazela? Ez al dituzu zeure mezulariak
maiteagana igortzen, bularra zugatik minez daukan arren?
Ez al dakizu Zoriak ez diola zure maitaleari eskaintzen
zure agurren hotsa entzutea besterik?
Urrunaldia gu baino indartsuagoa bada,
zaude apur bat, zure aurpegia ikus dezadan.
Ez dakit neure saihetsen artean
bihotza gatibu gelditu ote zaidan ala zure atzetik itzulia den.
5 Maitasunaren izenean! Oroit zaitetz maite ninduzun egunez,
ni zure gogoz nengoeneko gauetz oroitzen naizen bezala.
Zure irudia ene ametsen artetik nola iragaten den,
halaxe nahi nuke nik ere iragan zureetatik.
Gure artean negarrezko itsasoa dago,
uhin orrolariekkin eta ni ezin zuregana hel,
baina zure pausoak bera zeharkatzera hurbilduz gero,
urak ireki litezke zure oin zolen azpitik.
Ni hil ondoren belarrietara hel balekit
zure mantuaren hegaleko urrezko txilintxen hotsa
10 edo galde bazeneza ea nola doakion zure lagunari, *šě'ol*-etik
zure maitasunaz eta ongi izateaz ardura ninteke.
Hortxe dituzu bi lekuko, ene bihotzaren odola
isurarazi zenuela: zure masailak eta ezpainak;
Nola dezakezu hori uka, haiek ene odolaren testigantza
ematen badute, zure eskuek isurarazirik?
Zergatik nahi duzu hil nadin? Nik urte gehiago nahi ditut,
zure bizitzakoei eransteke!
Gauetz, zu maitatzean, loa ebasten badidazu ere,
ez ote nieke zure betazalei neure begien logalea emanen?

9) Maitea joatean sentitzen duen tristuraren adierazpena. Neurkera: *ha-šalem*.

1. Paronomasia, hebreeraz “zure mezulariak” hitza eta “zugatik mina” homofonoak dira (צִירִיד); horrela lehen bertsoaren hemistikio biek amaiera bera dute, eta garai hartako estetikaren arabera, prozedura hau biziki miretsia zen poemaren sarreran.

2. “Zoria”ri maitaleen urruntasunaren errua egozten zaio. Arabiar eta hebrear poesian behin eta berriro ateratzen den gaia berau.

4. “Itzuli” cf. Has 13,3. Maitearen urrunaldiak maitalea hil dezake.

7-8. “Negarrezko itsasoa” (cf. Is 51,15) “Itsaso Gorria”rekin konparatzen da, cf. Ir 14,21).

9. “Txilintxak”: txilin edo kanpaitxo txikiak, cf. Ir 28,33.

10. “*šě'ol*”: hildakoen mundua, infernua, gehena.

11-12. Legearen arabera (Dt 19,15) delitua frogatzeko, gutxienez lekuko bi behar dira.

14. “Loa ebasten badidazu ere”: cf. Es 4,16; Ps 132,4.

- 15 Zure suak malko-tantak miazkatzen ditu, eta
 harrizko bihotzak ere higatuko lituzkete zure zotinek;
 zure maitasunaren suan eta ene negarren uretan eroria naiz,
 ai ene bihotzaren! ene malkoen eta zure ilaunen artean jarria!
 Mingotsak eta gozoak inguratu didate bihotza:
 urruntzearen pozoiak eta zure musuen eztiak;
 zure hitzek hura xaflatan zapaldu ondoren,
 zure eskuek xingolatan ebaki zuten.
 Errubi irudia dakusat zafiroen gainean
 zure ezpain-hortzei begiratzean.
- 20 Eguzkia aurpegian daukazu, eta gau gisa hedatzen duzu
 haren leinuruen gainetik zeure adatsaren belztasuna.
 Zeta brodatua duzu gorputzaren jantzia, baina
 grazia-edertasunek apaintzen dizkizute begiak;
 neskatxen bitxiak artisauen lanak dira, baina
 distira eta begikotasuna dituzu zuk apaingarri.
 Eguzki-Ilargiek, Hartzak eta Pleiadeek gura lukete
 zure neba-ahizpen irudiko izan;
 mutilek eta neskatxek irrikaz, libre direla,
 nahi dute zure morroi-neskame bihurtu.
- 25 Zori eskuzabalari ez diot zatiko hau besterik eskatuko:
 zure ezpainen haria, zure gerriaren gerrikoa;
 nire abaraska-eztiak ezpainen artean dituzu,
 ene nardo eta ene mirra zeure bi bularren artean.
 Eskuinean jarria zaitut, eraztun gisa;
 oi ni zigilua banintz zure besoen gaineko!
 Neure eskuin-ezkerrak ahantziko nituzke, orein eme neurea,
 zure grazien maitasunaz ahantz banendi.
 Urruntasunak bihotza mingostu zidan, oroitzean
 zure musuen ondoan ene ezpainei zerien eztiatz.
- 30 Neure izpiritua emanen nuke zure mirra garbiko lurrinagatik;
 agian zure begitartea musuka nezake ene arimaren truke!
 Emakumeak laudorioz ohoratzen dira baina
 zuri zor dizute beren loria zure laudorioek berek.

15-16. "Zure suak": cf. 1Erg 18,38; Jb 14,19; Ez 11,19.

18. "Xaflatan": cf. Ir 39,3.

19. "Errubi irudia zafiroen gainean": ezpain-hortzen irudia; cf. Kt, 5, 14.

20. Maitearen aurpegia eguzkia da, ile ilunen gauak estalia.

26. "Ene mirra": cf. Kt 5,1;4,11;4,5.

27. "Eraztuna": cf. Je 22,24; Kt 8,6.

28. "Ahantziko nituzke": cf. Ps 137,5; Je 2,2.

Neskatxa maitatuen alorrean maitasunaren gari-azaoak
zureen aitzinean makurtzen dira.

Oi bizi ahal banintz zure pausoen atzeko
balsamo eta mirra usainak biltzeko!

Ez dantzut zure boza baina ene bihotz urratuan
zure oinotsa bederen aditzen dut.

35 Zure maitasunaren biktima biziak konta ditzazunean,
zure hilak pitz daitezenean, sar ezazu hor ene arima ere,
horrela bere gorputzera itzul dadin, zuk alde egitean,
joan zinenean, zure atzetik abiatu baitzen.

Galde egizu, orein eme ederra, zure maitalearen osasunaz,
berak ere zure berri jakin nahi baitu.

Itzul zaitez, eta gure Harkaitzak erakar zaitzala
zeure gogoko lekura eta zeure jatorrizko herrira!.

32. "Azaok": cf. Has 37,7.

33. "Mirra": cf. Kt 5,1.

34. "Zure oinotsa": cf. 2Sm 5,24.

38. "Gure Harkaitza": Jainkoa. "Zure jatorrizko herrira": cf. Ez 16,3. Maitea nolako den ohi bezala azaltzeak ikuspegi berria hartzen du hor Israelerako itzulera sartzean, poemari talde-interpretazioa emanez.

- Orein eme pinpirina, urrikal zaitez zu beti bizi izan zinen bihotzaz;
ongi dakizu, joaten bazara, urruntzeak hilaraziko nauela.
Nire begiok zu ederrestera ausartzen diren bakoitzean
zure masailetatik suge ausikilariak erasotzen didate,
5 beren pozoia suarekin biztu eta ni gaitzetsiz.
- Bihotza ebasten dit haren bihotz gainean dautzan bularrekin;
harrizko bihotz horrek, ezker-eskuin, bi sagar zutik
jaulkiarazten ditu, lantzak balira bezala.
10 Haren garrek bihotza izekitzen didate, hurbildu beharrik gabe,
haren ahoek odola edaten didate, eta ez dira ahalke!
- Orein emeak Jainkozko aginduak profanatzen ditu begiekin,
asmo txarreko heriotza dakarkit, eta inork ez nau mendekatzen.
Ikusi al duzue inoiz halako lehoi-bihotzik, orein-betazaldunik?
15 Urratzen daki, lehoi emeak bezala, eta geziak zorrozten,
ene bihotzetik odola atera eta edaten du, herioak gal nazan.
- Egun batez, haren amodioaren ardotan hordi auhenka nembilela,
bere agurra helarazi eta nitaz kexatu zen
bere otseinen bitartez; eta itzuli zirelarik otoiz esan zien:
20 “bake-mezulariok, itzul zaitezte ene izenean behin eta berriz!”
haren hitzek bihotza arrotatu eta izpiritua berriztatu zidaten.

- 10) Maiteagandik sentitzen duen erakarpnaren ohiko deskribaketa, maitalearen oneste-gaitzeste jarrera bikoitzarekin. Lehen estrofan maiteari bigarren pertsonan mintzo zaio; hurrengo bietan, ordea, haren gogortasuna hirugarren pertsonan azaltzen da. Muaxaha “burusoila”, hots, sarrerako errepikarik gabe. Bukaerako erdal harja hori garai hartako beste poeta arabiar bik erabili zuten (Ibn Baqī-k eta Ibn Ruḥaym-ek) aldaera batzuekin. Bertsoak 8 + 6 silabakoak dira.
2. “Hilaraziko nauela”: lit. “zure urruntzea nire zorigaitza”, Has 42,4ean bezala.
4. “Sugeak”: cf. Es 23,32. Dirudenez maitearen ile kiribilduaz ari da.
5. “Suarekin”: cf. Es 6,27.
7. “Harrizko bihotza”: cf. Ez 11,19.
10. “Ez dira ahalke”: cf. Has 2,25.
12. Asmo txarreko heriotza”: cf. Zen 35,20 hur.
14. “Lehoi emeak bezala”: cf. Ez 19,6.
16. “Ardoa”: cf. Kt 1,2.
19. “Bake-mezulariak”: cf. 1Erg 18,34.
20. “Berriztatu”: cf. Ps 51,12.

Behin, ene eskuak haren baratzean alha zirela, haren bularrei atxikirik,
esan zuen: “eduki geldi eskuok, ez baitaude oraindik ohiturik”,
eta bere hitzekin bigundu ninduen, ene bihotza urtuz:

25 “Non me tankes ya ḥabībi! Fa-enkara dan’ošu
al-ḥilāla raḥṣa; baštate fermošu!

11

Egun batez, neure altzoan bera ferekatzen nuenean,
bere irudia nire betseinetan islaturik ikusi eta
begi bietan muin egin zidan engainuz:
bere figurari ematen zion musu, eta ez ene begiei!

21. “Haren baratzean”: cf. Kt 6,2.

22. “Eduki geldi eskuok”: cf. 2 Sm 24,16.

25. Harjak honela dio: Ez niri ukitu, adiskide neurea!, oraino kaltegarria baita / Alkandora fina da; aski da, ederrori!

11) Maitasunezko distikoa, mutil gazte bati eginikoa. Al-Mutanabbī-ren dīwān-eko arabiar poema baten itzulpena, jatorrizkoan ageri den neskaren ordeztu mutil bat jarritz. Neurkera: *ha-mahir*.

1. “Neure altzoan”: cf. Is 66,12.

O eguzki! Beloaren zerutik erakuts ezazu zeure masailaren argia;
zure distira ikuste hutsaz jopua askatzen duzu, gaitzez gatibua.

- Zoriak eduki eta gorde nahi bazaitu, zeruko mana bezala,
baduzu ene bihotzean toki fermu eta segurua.
- 5 Buruaren loturez nik zu harrapatzean, zer egin dezake Patuak?
 Zure itxura ahantz baneza, O eguzki, Sortzailea ahantziko nuke
 Nire grina eta ene delizia zara, zer du bada Zoriak enekin?
- Zergatik zauritu bizitoki duzun bihotz penatu hau?
Nola zu irudika lureko aingerutzat, sasia erretzen baduzu?
- 10 Hementxe nago, hil nahi banauzu! Dei egidazu eta erantzunen dizut!
 Ez da ene ahoan gezurrik, zinez diotsut. Zailena eska iezadazu.
 Egun gutxi ditut eta zeurea duzu ene bizia, luzatuko ahal didazu!
- Penaz egon behar ote nik, zure aurpegiaren argia ukanik eguzki eta ilargi?
Zure hortz artetik ezta eta baltsamoa bil nitzakeen, baldin
- 15 haserrea eta hira zure begietako armak ez balira.
 Zergatik, o neskatxa, armarik gabe, hilko nau zure amodioak?
 Ikusazu ene arrosa zeure masailean, ni askatzeko irrikaz.
- Ilunak eta argiak osatzen dizute edertasuna, gozo eta sotila,
zu sortzean, Jaunak Ekialdea Mendebalera hurbildu baitzuen,
- 20 zure distiraren inguruan eskorpioi makurtua ezarritz, zelatan.
 Andereen antzera urrez jantzirik, edo ez,
 aski duzu zeure irudia, xarmaz apaintzen baitzara, eta ez bitxiez.

- 12) Muaxaha hau sarrerak eta bost estrofak osatzen dute, amaieran harja bat izanik, erdizka erdaraz eta erdizka arabieraz. Bertsoak 9 + 6 silabakoak dira, bokal laburra leku finkoetan izanik, ohiko neurkerari lotu gabe.
1. “Eguzkia”, maitea.
3-7. “Mana”: basamortuko landare eta harrien gainean agertzen zen zerutiko janaria, cf. Ir 16,33.
5. Hau da: ‘etengabe zutaz pentsatzen dut’.
6. “Ahantz baneza”: cf. Dt 32,18.
9. “Lurreko aingerua”: cf. Ps 34,8. “Sasia erretzen baduzu”, “Yahweh-ren aingeruarekin gertatzen zenaren aurkakoa: cf. Ir 3,2.
11. “Eska iezadazu”: cf. 2Erg 2,10.
12. “Luzatuko ahal didazu”: cf. Dt 22,7; 1 Re 3,14.

- Edertasunez aseara zara, zer erantzen dizute iduneko eta ilargixkek?
 zure sama besarkatzen eragotzi besterik ez, zure lepoa musukatzen!
 25 Orduan kantatu egin zuen Šaroneko zikoinak, alegeraki esanez:
 “non kier tener al-‘iqd ya mam(m)a amena ħul(l)a lī
 kol(l)o albo kierd fora meu sīdī non verad al-ħulī”.

13

Itunagatik! Maite neurea, zure bizitzagatik!
 gezia jaurti zidan maitasunaren biziagatik!
 Zin egiten dut jopua naizela belarria zulatu eta bihotza
 erdibitu didan amodioarena.

23. “Ilargixkak”: metalezko apaingarrak, ilargi itxurakoak.

25. “Šaron-go zikoina”, maitea aipatzeko era, Kt 2,1-ko airea duena.

26-27. Euskaraz: “Ez dut idunekorik nahi, o ama; edertasunak janzten bainau; / lepo zuria nahi du ene jaunak kanpoan; ez ditu apaingarrak ikusiko”.

Eskuizkribuetan, honez gainera, beste bi harja hauek ageri dira, arabieraz: 1) “Biluz ezazu zeure lepoa apaingarrietatik, alferrik dituzu eta; / zeu zara enetzat apaingari ederra, eta ene pena ere bai” eta 2) “Ez zaitut zuzen ikusten, ene adiskide. Gorputza gaixorik dut! Harengatik hoztu da erabat, zalantzarik gabe hiltzen ari naiz”.

- 13) Maitasunezko zin sakona. Epigrama laburra, paronomasiar: bertso biak hitz homofonoekin bukatzen dira, garai hartako gustuaren arabera. Neurkera: *ha-šalem*.
 2. “Belarria zulatu”: betiereko esklabotasunaren ezaugarria: cf. Ir 21,6. “Erdibitu”: Abrahamekin Jainkoarekiko itunaren zeremonian opagaiak ebaki zituen bezala, cf. Has 15,10.

Agur gazela gazteari,
haren maitasunaren suak erretzen nauen arren!

- Orein emeak, eguzki bezala agertuak,
bere maitalea tristatzen du beragandik urrunduz.
- 5 Amaitu ote dira jada
berak emaniko minak, ala promes
eta zin egin ote du ni hiltzeko?
- Bizia haren nahipean dago,
eta haren ondoan hilak berpizten dira.
- 10 Atsegina ematen dute haren hitzek;
haren ahoari bedelioak darizkio,
eta haiekin bi ilara txertatzen ditu.
- Haren ileak erreztatuak dira, osamaitua haren edertasuna.
Nola dezakezu, o gazela, irents, lehoiak bezala?
- 15 Ongi al deritzozu errugabea tormentatzeari?
Zure begietarako ene arimak deus gutxi balio du.
eta nire begiei ez darie negarra.
- Zeure masailetan duzu ene lekukoa,
nire odola: zelatan baitzaude ene kontra,
- 20 garaia baino lehen ni hil nahian.
Ez duzu bekatu hori ezkutatzerik,
eta ezingo zaizu barkatu!

- 14) Muaxaha, amaierako harja galdua izanik. Bertsoak 8 + 9 silabakoak, azkenaurrekoa laburra.
2. "Sua": cf. Zen 11,3.
7. "Zin egin": cf. Zen 30, 3 hurr.
9. "Berpiztu": cf. Ez 18,25.
10. "Grazia": cf. Qo 10,12.
11. "Bedelioa": Biblian maiz aipatzen den harribitxia, zenbaiten ustez 'diamantea'.

25 Gogoan dut egun hura, bizia itzuliko zidala
agindu zidanean, eta konplitu egin zuen:
bi sagarrekin kontsolatu zidan
arima, ene gorputzera bihurtu baitzen,
aurretik ni haiekin zeharkatuz.

30 Egun osoan egon zen ene ondoan besarkaturik,
eta eguzkia ezkutatzean alde egin zuen,
etxera joatean, mingoski oihukatuz:

15

Bizia emanen nuke, gau batean,
laute eta txirula egokituen soinupean jaiki zen oreinagatik,
ene eskuan kopa ikustean honela esan baitzuen:
“Edan ene ezpainen artetik mahatsen odola”.
Ilargia *yod* baten antzekoa zen
egunsentiaren jantzietan urrezko urekin izkiriatua.

25. “Bi sagar”: cf. Kt 2,5; haren bularrak.

30. Eskuizkribuan harja falta da, originalean arabieraz edo erromantzez zegokeena.

15) Ardo eta maitasun poemen arteko nahastea. Neurkera: *ha-mërubbēh*.

1. “Oreina”, maskulinoa, alegia, mutil bat. “Egokituak”: cf. 1Sm 16,17.:

3. “*Yod*”: hebrear alfabetoaren hamargarren letra (י), koma baten itxurakoa. Ilargiak urrezko igitai txiki baten irudia zuen.

“Ez zaitez urrun joan, gazela, betidanik maite izan baitzaitut oso.
Ene onerizkoa zara eta ene poza, eta aski dut zure faborea, aski dut!”

Orein graziatsuaren agur lurrintsu hori
ez zen mezulari bidez igorria izan.
5 Nik ere, haizearen hegaletan
mirraz nahasi dut neure sekretua, lagunari amodioak izkiriatur
ene eskuei darien mirrarekin; haren masailak lekuko ditut.

Neure mutil maiteak jauregian jazartzen nau
nire lurrinaren mihia ni salatzean,
10 baina nik bera erakarri eta garaitzen dut.
Maiteak nire ehizia dela sentitzen du, baina bihotza, ene aldean
haren kartzela da, ene jantzi artean eta ene idunekoen pean.

Baratzeetan alhatzera igotzeko
jaits zaitez, o oreina, liliak biltzera:
15 har itzazu palmondotik palmak,
‘En-Gedi-ko xuhandor lore-sortak, ene edertasunean blaituak.
Zein ederrik jalgitzen diren ene urak, ene landak ureztatzeko!

16) Muaxaha honek sarrera eta bost estrofa dauzka. Bertsoak 9 + 9, 8 + 6 eta 9 silabakoak dira; arauzko neurkera dute baina ez klasikoa. Azken bertsoak hebreeraz daude.

5. “Haizearen hegaletan” cf. 2Sm 22,11.

6-7. Mirra erretxina lurrintsua da, poltsatxoetan emakumeek beren bularretan jartzen zutena. Cf. Kt 5,5.

7. “Lekukoak”. Cf. 9. poema, 11. b. hur.

10. “Erakarri”: cf. 1Erg 22,22,

13. Baratzeetan”: cf. Kt 6,2.

15. “Palmondoa”: cf. Kt 7,8 hur.

16. “‘En-Gedi’”: ‘antxumearen putzua’, Itsaso Hilaren bazterreko oasi txiki eta ospetsua, iturri ederrez hornitua. “Xuhandor lore-sortak”: cf. Kt 1,14.

17. “Jalgitzen dira”: cf. Has 2,6.

20 Gora igo zinen gauean,
Ilargiaren ahizpak gatibatu ondoren,
Hartza, Orion eta Pleiadeak ikusi zenituen.
Haiek, ene adiskide izateko, nire bitxiak nahi lukete izan.
Zerutik ene eskuetara metxak igortzen dituzte ene txirikordetarako.

25 Gaez besarkatuko zaitut, arrats maitatuan,
eta ene gozotasuna zure ezpainen fruitu izanen da.
Zuri, osorik neure zaitudan horri esanen dizut:
“Oso ederrik zakuskit, ene maitea, Jainkoak ene eskuetaratu zintuen;
zuri ez besteri neure maitasuna, eta ene bular artean eginen duzu lo”.

19. “Gatibatu”: cf. Ps 68,19.

23. “Arrats maitatuan”: cf. Is 21,4. “Txirikordak”: ile sorta gurutzatuak

27. “Ene bular artean”: cf. Kt 7,13.

Nigatik! gazela, nigatik, jabe neurea,
izan bedi estimatua ene pena zure begietarako,
ez dakidala herioa hel.

5 Kontuz, kontuz, kontuz ene odolarekin,
zure eskuan ez beste aurkitzen baita ene bakea.

Urrikal zaitetz nahigabetuaz,
zure haserreagatik, baraurik negar egiten duenaz,
zure mesedearen manaren zain dagoenaz.

10 Mana, mana, mana ene baraurako,
eta indazu egunean eguneko alokairua .

Ene gaitzez burlatzen zarenean,
neure masailak aurkezten dizkizut
baina zuk honela erantzun: “Neure biziagatik!

15 ez , ez, ez da ene lakioan inor,
nik errurik ukan gabe hil zirenak besterik”.

Neure arimarekin eztabaidan nabil zikoitz batengatik;
baldin eta ene beldur balitz, loa
itzuliko lidake, eta agian

20 hegaz, hegaz, hegaz eginen nuke, lo natzan artean,
eta neure ametsen tolesetan atxilotuko nuke.

- 17) Maitasunezko muaxaha, bukaeran arabiera dialektalezko harja duena. Hurrengoak bezala, mutil gazte bati opetsia da, horri *ṣēḫi* ‘gazela’ (mask.) deituz. Literatur ohitura hau, arabiar eta hebrear poesian ohikoa zen eta ez zuen garai hartako poetentzat inolako homosexualitate-kutsurik adierazten. Arauzko neurkera, baina ez klasikoa. Harjak eta itzuliak 6 + 8 silabakoak; bertsoak 8 silabakoak.

8-9. “Mana”: zeruko janariaz ari da, “onets ezazu ene eskaria” esanguraz. “Indazu”: emadazu.

10. “Egunean eguneko alokairua”: cf. Dt 24,15.

18-20. Motibo tradizionalaren arabera, maiteak loa lapurtzen du eta ez dio maitaleari bere irudia ametsetan ere ikusten uzten.

Bere ezpainetako eztia eskatzen badiot,
gorritzen da goiztiriko eguzkia bezala,
haren bisaian nik ikusi arte

25 nola, nola, nola “aramearrak”
 aurpegia edomdarra bihurtzen duen.

Haren kantuak erraiak dizkit zeharkatzen,
ene sua bizteko, kantatzen duenean:

30 “musuka ezazu ene ahoa eta aski duzu, adiskidea,
 musuka, musuka, musuka ene ahoa,
 eta ahantz ezazu zeure asturugaitza, ene maitea”.

24-25. “Aramearra” Laban da, Jakob-en osaba eta aitaginarreba (Has 28,2), izen horrek ‘zuria’ esan nahi baitu, mutilaren masailak bezala, lotsaz gorrituak.

26. “Zeharkatzean”: cf. Es 7,23.

28. “Aski”: cf. Dt 3,26.

Oreina, gizonen artean bakarra,
Eguzkiarekin, bere arrebarekin, parekatzen da soilki.

Bihotza hersten didan oreinagatik,
zinez diot ez dudala maitasun-ituna hautsiko!
5 Bizia emanen nukeen arren, begi batzuen
musuagatik, lehoiaren bihotza ikaratzen eta
hiltzen dutenengatik, hark lehoiak irensten ikasi baitu.

Ai ledi urrikal bere adiskideen bihotzaz
bi sagar ematen dituen bihotza,
10 biak ezker-eskuin, lantzak bezala,
galburu-zurtoinean jaikiak
biziaren zuhaitzaren abar ederraren gainean,

aldaka meheez makurtzen den abarra,
printze infidela, bost aldiz saldukeria egina;
15 eguzkiaren uztarik bikainenetik
heldu da haren masaila: ez da arrosaren pareko,
balio handiagoa du eta ez da aldatzen.

Joan zenean ene lokarriak askatu zituenetik,
otoiz nago, eta inork ez nau urgazten.

- 18) Mutil bati eskainiriko muaxaha, erdarazko harja duela. Itzuliak 8-2-8 silabakoak; gainerako bertsoak 3 + 5. Arauzko neurkera, baina ez klasikoa.
2. “Eguzkia, arreb”: kontuan izan hebreeraz *šemeš* ‘eguzkia’ izen femeninoa dela.
7. “Ikasi baitu”: cf. Ez 19,3.
9. “Sagarrak”: bularrak.
- 11-12. “Galburu-zurtoinean”: cf. Has 41,5, bularrak aurkitzen diren tokian.
15. “Eguzkiaren uzta”: cf. Dt 33,14.
- 16-17. Masailak arrosak baino hobeak dira, zimeltzen ez direlako. Cf. Le 13,5; 37.

20 Zer ezkutatuko dut? Neure egoitzak salatzen nau,
ene malkoek ez dute ene gaitza ostentzen,
hain da astuna, ezin dezaket jasan.

Egun batek bizia ematen, beste batek heriotza.
Bihotz samindua, begiratzean, suntsitzen du,
25 edomeraz kantatzen duen gazelak bezala:
“así ke šin ešir bi-ḥad
qrebad meuš raḥos maiš enfermad!”

19

Errubizko ezpainak, perla-lerrodunak,
gezi zorrotzen pareko begiak,
masail ederrak, arrosa gorririnen antzera,
aurpegia Edeneko lorategiez ereina,
bedeliozko zurtoin lerdnaren gainean moldatua,
ohantze fidelean hazitakoa,
ongi gordea; hala dira haren amodioaren gaitzak
maitalearen bihotzean, eritasun sendaezina;
5 grinaren suaz mingostasunez asetzen du,
alde egitean suge pozoia eradaten dio.
Araoz diotsut, edertasunaren printzeorri!,
Ene gazela preziatua!: urrun itzazu nahigabeak
ene gau honetan, zeure laguntzaz bil ezazu
atsegin multzoa bihotz gaixo mindu honentzat.

25. “Gazela” (fem.). “Edomeraz”: hau da ‘kristauen mintzairaz’.

26-27. “Agian bortxaz irten gabe ere / neure poza hautsi eta gaixotuko naiz”.

19) Mutil baten edertasuna kantatzeko poema (“gazela” mask.). Neurkera: *ha-mērubbeh*.

1. “Geziak”: cf. Is 5,28; Ps 45,6, 120,4.

2. “Masailak”, lit. ‘lokiak’. “arrosa gorririnak”: cf. Kt 4,3; 6,7. “Eden”: Has 2,8.

3. “Bedelioa”: harribitxi mota. “Moldatua”, lit. ‘urtua’. Cf. Jb 41,15. “Zurtoina”: sama edo lepo zuria.

4. “Sendaezina”: cf. Dt 28,59.

5. Cf. Nk 3,15; Dt 32,33. “Eradan”: *edan* aditzaren arazlea, ‘edanarazi’.

6. “Arao”: sorginak, aziak eta gaiztakeriak uxatzeko hitzak eta esaerak.

- Kontuz! bihotz gogorreko eta aldaka biguneko hori,
 erabil nazazu eztiki eta neure aurpegiaren gainera eroriko naiz.
 Begiak besterik ez zaizkit galdu zuregatik,
 ene bihotza garbia da, baina ez nire begiak.
 Utzi nire begiei zure begitaratean bil ditzaten
 arrosak eta liliak, elkarrekin ereinak.
 Zure masailetatik sua hartuko dut, garra garrarekin itzaltzeko;
 egarri izan nadinean, hantxe dut ura aurkituko.
 5 Zure ezpain gorriak zurgatuko ditut, goriak
 ilaunak bezala, eta nire barailak suhatsak izanen dira.
 Ene bizia zintzilik dago purpura gorrizko
 hari bitatik, ene heriotzaren arratsetik.
 Mirra birjinazko lerroek zeremonietarako jantzia brodatzen dute
 arratsaldeek eguerdiaren inguruan bezala.

- 20) Yēhudah ha-Levik Granadara egindako bisita zela eta, Šēlomoh ibn al-Mu'allim-ek bidali zion adiskidetasun-poemari erantzunez. Neurkera: *ha-šalem*.
1. “Bihotz gogorrekoa”: cf. Ez 2,4; “Eztiki”: cf. 2Sm 18,5.
 2. “Ene bihotza garbia da”: cf. Ps 51,12; Es 22,11; Ha 1,13.
 3. “Arrosak eta liliak”: masailen gorritasuna eta aurpegiaren gainerakoaren zuritasuna. “Elkarrekin ereinak”: Biblian Le 19,19-an ageri den debekua gora behera.
 5. “Suhatsak”: sutarako kurrikak cf. Is 6,6.
 6. “Purpura gorrizko hari biak”: maitearen ezpainak. “Arratsaldeak”: haren ile iluna.
 7. “Mirra birjinazko lerroak”: gaztaina koloreko ile-txirikordak. “Zeremonietarako jantzia”: cf. Ir 31,10.

- Neure bizia emanen nuke haize horregatik, ene gaitzak
 bere gaiztat sentitzen dituen gizona bisititzen duenagatik.
 Hegaldatzen denean, ba al daki hegaz ote doan
 Eufratesen uren gainetik ala haren masailen gainetik?
 Honela diotsot: “Ene penak xukatzero etorri al zara?”
 eta berak erantzun: “Aitzitik; horien urradurak berriztatzero,
 zure adiskidearen urrunaldia luzatzen baita,
 eta oso gogorra da hura gabe egotea, haren lehoiak bezala”.
- 5 Nik erantzun diot: “Baina urrun eta hurran da,
 Ene bizi osoa haren biziaren pean dago!
 Bizi dadila eta beuka bakea bizi den tokian,
 eta haren bihotzak nahi bezala, bete bitez haren desirak”.

- 21) Gai nagusia: maitaleen arteko urruntasuna. Kasu honetan elkarren arteko maitasunak bizirik dirau. Neurkera: *ha-měrubbeh*.
1. Nire antzera maite-minez dagoen edo nik hura bezala maite nauenagatik.
 2. Haizeaz ari da. Cf. Has 1,2. “Uren gainetik” haren malko ugariak.
 - 3-4. Jantzi urratuak dolu-seinaleak dira.
 4. “Haren lehoiak”: cf. Ep 14,18. Samsonen igarkizunari buruzko aipamena, agian lehoien gogortasuna urruntasunarekin parekatuz.
 5. “Urrun eta hurran da” poetaren gogoko kontrastea (ikus n° 38, 6. b)
 6. “Beuka bakea”: cf. Ir 18,23.

Distiratsu eta xuri-gorriaren aurpegiak
eritu zidan bihotza.

- Mindurik nago gazelarekin,
gatibatu nauelako.
- 5 Arrobatu bainau krudelki;
eta ez dantzu adiskidearen erregurik,
erraietan sua daukanarenik.
- Nola kontsolatuko naiz?
hura zelatan dago
- 10 ni hiltzeko. Eta zer
itxaron dezaket segadan
ene oinak harrapaturik geldi daitezenean?
- Ene gaitzak urrunduko al ditu?
Hemen ez denak behar nau salbatu.
- 15 Ene bihotza sutan darabil
eta haren betazalek sutea
prestatzen dute ene barnean.
- Soilki, haren ahoko muztioa
edan dezadanean, usapal-enaren artean,
- 20 ihintzaren ur tantek
bedelio eta amatista
bustiak diruditenean.

22) Muaxaha, arabierazko harjaduna, mutil bati eskainia. Bertsoak 6 silabakoak, oxitonoak (zazpi silabakoak). Arauzko neurketa, bertsoen hasiera-bukaeretan *yated* izanik; ez da klasikoa.

1. Cf. Kt 5,10: “Ene maitea xuri-gorria da”.

2. “Eritu”: cf. Kt 4,9.

15-17. “Sutan”; cf. Os 7,6.

- “Negua joan da eta maitaroa
heldu da.
25 Adiskide neurea, jaiki, eser zaitez,
itzal itzazu nahigabeak
ontzi atseginetan.
- Zoria lagun zintzo
bilakatu da,
30 eta haren hodeiek, ihintza, mana bezala,
maitale penatuari
eskaintzen diote bere negarraz”
- Adiskideen
kanpalekuaren aitzinean erranen dut
35 bihotz nahigabetuarekin:
“Lorategiko haizetxoak lurrintsua da,
jaiki zaitezte eta dezagun edan!”

23

- “Zoaz adiskidearen etxera eta haren ardora,
eskuinean eguzkia bezala biraka darabilen kopara.
Gorrixka da, kristalak hari distira emana,
hainbestean non haren koralak, lotsaz, gorriarazten baititu koralak;
Kristalak, bekaitzez, nahi luke ardoaren distira ezkutatu,
harik eta, husturik, luzaroago ezin gorde arteraino”.
Betor nigana eta uxaraz biezazkit penak oro!
-izan bedi hori bion arteko itunaren seinale-
5 Ingura nazatela mota guztietako
kantari-soinulariek eta orotariko ederrek!

30. “Mana”: zerutiko janariaz ari da.

- 23) Jai baterako gonbita, joera hedonistaz. Neurkera: *ha-měrubbeh*.
2. Koparen kristalak ardoaren kolore gorria areagotzen du. Cf. Nk 4,7.
3. Cf. Ir 2,3. Moises umea gorde zuen ihizko saskia iradokiz.
4. Subjektua: ardoa. Cf. Is 35,10; 51,11. “Ituna”: cf. Has 9,12.
5. “Kantariak”: cf. Ps 68,26. “Orotariko”: cf. Has 1,12.

Ontziak, ardorik gabe, astunak dira,
 buztin baitira, lurrezko murkoak bezala,
 baina betetzean, ardoak arintzen ditu,
 halaxe arimek ere gorpuak.


Zugatik, adiskide, kantu eginen dut bizi naizen artean,
 eta zure muztio nire ezpaineak dastatuagatik.
 “Ene anaia” deitzen diot bidali zenidan pitxerrari
 haren ahotik dastatuz neure oparirik hoberena.
 Nire adiskideek berek horditzat edukiko naute;
 eta horregatik galdetuko didate: Noiz arte?
 Eta nik erantzunen: Nola ukan dezaket aurrean Galaad-eko baltsamoa,
 eta bera edan ez, ene gaitzak senda ditzan?
 5 Nola erranen diot ezetz pitxerrari,
 oraindik ez baditut hogeita lau urte bete?

- 24) Arabierazko distiko baten itzulpena, Mošeh ibn ‘Ezra’-k ere erabilia. Neurkera: *ha-měrubbeh*.
1. “Lurrezko, buztinezko ontziak”: cf. Is 45, 9.
 2. “Gorpu”; hebreerazko hitz honek, Biblian erabiltzen den adieran, euskarazko *gorpu*-ren adikide zehatza da. Cf. 1Sm 31,12.
- 25) Oparitan pitxer bete ardo bidali zion lagun bati. Dirudienez, gaztaroko poema da. Neurkera: *ha-měrubbeh*.
2. “Opariak”: Has 24,53.
 3. “Zenbat denboraz?” edo “noiz arte?”. Cf. Ir 8,5.
 5. “Oraindik”: cf. Qo 4,2. “24”: כד *kad* ‘pitxer’ hitzaren zenbakizko balioa hogeita lau da (7=4, 7=20). Gazteen artean ohikoa da jostatzea: cf. Qo 11,9.



placit. fait. vint.

placit. fait. vint.



EZTEI-KANTAK

Ene maitea enea da eta ni harena!



שירי חתונה

לי דודי ואני לו!

“Zeinen ederra zaren, begi ederrekoa,
hordia, eta ez ardoz!

- Oi ederra! Nora zoaz?
Bihotzen neurrizko jabea.
5 Ez al zara errukiko begiekin
eginiko laidoez?
- Erakustazu, otoi, zeure begitarte.
Zergatik ezkututzen duzu aurpegia
zuri begiratzen utzi gabe?
10 Zutaz ezin daitezke begiak inoiz ase!
- Zafiro zuriak dituzu masailak;
zeure aurpegi soilaz apaintzen zara.
Nola ez du antsiatuko zure ederra ikustea
begirada zoliko gizonak?”
- 15 “Ene maitea, garrak bizten dizkidazuna!
Zatoz eta goza dezagun amodiotan,
ahorako eztiarekin, hobe baitira
zure laztanak, ardoa bera baino!”

26) Zajal tankerako poema estrofikoa, sarrera eta bost estrofa dauzkana. Aurreko hirurak senargaiaren ahoan jarriak dira; laugarrenean emaztegaia mintzo da eta azkenean taldearen ordezkaria. Zazpi silabako bertsoak dira, neurkera silabikoan. Itzuli guztien errimak יַיִן ‘ayin ‘begia’ eta יָיִן ‘yayin ‘ardoa’ hitzekin eratuak dira, garai hartako bertuosismo-zaletasunaren arabera.

2. “Hordia”: cf. Is 51,21.

7. “Erakustazu”: cf. Kt 2,14.

10. “Ezin daitezke inoiz ase”: cf. Qo 1,8.

11. “Zafiroa”: cf. Ir 24,10.

14. “Begirada zoliko”: Zen 24,3.

16. “Zatoz”: cf. Es 7,18.

18. “Ardoa baino”: cf. Kt 1,2.

20 Edan, maiteok; hordi zaitetze adiskideok,
nagusiaren baitan, aitoren umearen etxean!
eta seme guztiz maitearen bozkarioarekin
eradan iezaiezue nazireuei ardoa!

27

Mirto loretsua zara Edengo zuhaitzen artean,
Orion distiratsua zeruko argizagietan.
Jainkoak ontzi bete mirra birjina bidali dizu
lurringileek barik, Berak prestatua,
uso bat, egun batez mirtoen artean habia egitean
mirtoari usaina kendu ziona, lurrina jariatzeko.
Harekin zarenean ez duzu eguzkia irteterik beharko, ez eta
hark, zurekin izatean, ilargia agertu beharrik ere.

20. “Nagusia”: emaztegaiaren aita, segur aski.
21. “Seme guztiz maitearen”: cf. Je 31,20. Testu honetan Efraim-en aipamena agian pertsonaiaren izenagatik izan liteke.
22. Eradan: ‘edanarazi’ ‘edatera eman’, edan aditzaren arazle zaharra. Hain egun berezian, ardorik ez edateko botoa egindakoek berek ere, hots, nazireuek, jaian parte hartu behar dutelako. Cf. Am 2,12.
- 27) Senargaiari eskainiriko poema, haren bertuteak eta emaztearenak aipatuz. Arabierazko izenburua du: “Eta honela esan zuen ezkontza bedeinkatzean”. Neurkera: *ha-šalem*.
2-3. “Ontzi bete mirra” eta “uso” andregaiari doazkion irudiak dira.
4. Ezkongaiak elkar argitzen dute, neska eguzkia (שמש *šemeš*, hebreeraz femeninoa) eta mutila ilargia (ירח *yareah*, maskulinoa hebreeraz) balira bezala.

Zatozte senargaiaren edertasuna eta haren inguruko lagunak ikustera!
 Poz zaitezte haren eztei egunean, bihotza alai duen egunean!

5 Alegera bitez ene herriko nobleak,
 neure kantuak kanta ditzadanean
 eta neure lagun zintzoei erranen diedanean:
 Egun hau Jaunak sortua da, goza dezagun eta poz gaitezen hartaz!

10 Orein eme atseginak, itzartzean,
 halaxe dontzeilen artean printzesak,
 amodiozko poemak hautatu ditu.
 Haren maitearen aitzinean kantatu eta diotso: zatoz nigana!

Maitea asetzen dute haren bularrek
 haren idunekoaren altxorrean pozturik:
 haren aitzinean emaztetzat esertzean
 hark honen alboan hartzen du atsedean, erregeak bere aulkian bezala.

15 Begietarako, egiazki,
 atsegina da, eguerdiko argia bezala!
 Juda eta Efraim artean,
 Ur-xirripen ondoan landaturiko zuhaitzaren antzekoa, osorik sendo.

28) Zajal tankerako poema estrofikoa, taldearen ordezkariak ezkontzako zeremonian esatekoak. Eskuizkribuak ez du aipatzen talde osoak estrofa bakoitzaren amaieran erreplikatuko zuen esaera. Akrostikoa: *Yēhudah*. Neurkera silabikoa, bertsoak eskuarki hexasilaboak izanez.

2. “Eztei egunean”: cf. Kt 3,11.

5. “Lagun zintzoak”: cf. Is 26,2.

6. “Egun hau”: cf. Ps 118,24.

10. “Zatoz nigana”: cf. Has 30,16.

11. “Asetzen dute”: cf. Es 5,19.

18. “Landaturiko zuhaitza”: cf. Ps 1,3; Jb 8,12.

Zergatik jalgi zara, o eguzki, zergatik zara ageri?
 ‘Ābiḥail-en alabaren ordua baita!
 Eguzkia itsusten du berak bere aurpegiaren distiraz,
 eta alferreko bihurtzen zeruko armadaren lanbidea.
 Ez du zeru goietan bizitzea hautatu,
 baina mirtoa zeru du bilakarazten.

Hel bedi ene maitea bere baratzer! Jar bitza bere mahai-aulkiak,
 baratzeetan alhatzeko.
 Ederrak haren paradisuako loreak, haiei so begira dago
 liliak biltzeko.
 Fruitu goxoak hartzen ditu, berriak eta zaharrak.
 Horrela poz bitez sinestean seme-alabak ezkongai
 mardul eta heze hauekin.

- 5 Ene maitea, zatoz enegana! ene jauregiaren atarira,
 baratzeetan alhatzeko.
 Ager zaitez ene dendetan, nire aloe-multzoen artean,
 liliak biltzeko.
 Ikus itzazu mingranak bezalako bularrok, opari gisa emanak.
 Horrela poz bitez...

29) Andregaiaren edertasuna gorestekoko poema. Neurkera: *ha-šalem*.

1. ‘Ābiḥail-en alaba Ester da, Hādassah חַדַּסָּה ere deitua, izen hau fonetikaz, *hādas* חַדַּסָּה ‘mirto’-tik aski hurbila izanez. Cf. Est 2,15; 2,7. Segur aski andregai ez zen horrela deitzen, eta izen hori prototipo sinbolikotzat erabilia dateke, emaztegai eder eta bertute onez hornitua adierazteko. Gauza bera pentsa daiteke ‘Ābiḥail izenaz ere, berau ‘gizon aberats eta prestu’ztat harturik. Andregaiak eguzki eta argizagien zeregina alferreko bihurtzen du, bere edertasunaz bere inguru osoa argitzen duelako.

2. Andregai eguzkia bezalakoa bada ere, ezkon-ohe edo ezkongelaren estalkiaren zerua nahiago ukan du, mirtoz apaindua.

30) *Larunbaterako Zulat-a*. Zajal tankerako poema estrofikoa, ezkontzeko zeremonian esateko egokia. Estrofa bakoitzean Bibliako Kantiketako Kantikako hitzak errepikatzen ditu. Akrostikoa: *Yēhūdāh ha-Levi ben Šēmu’el*. Ezohiko egiturako bost estrofa dauzka, neurkera silabikoan. Bertsoak 6 + 6 + 5 eta 6+ 5 silabakoak dira, laburrak kontatzeke. Lehen hiru estrofa emaztegiaren ahoan, azken biak taldeko kantariarenak.

1. “Bere baratzer”: cf. Kt 4,16; Kt 6,2.

2. “Paradisua”: lit. ‘Edeneko baratzea’. Cf. Kt 6,2.

3. “Berriak eta zaharrak”: cf. Kt 7,14.

4. “Mardul eta heze”: cf. Ps 92,15. Talde osoak estrofa bakoitzaren bukaeran errepikatzeke esatera.

- Ene maitea enea da eta ni harena! Bizi den jauregira deika nago,
 baratzeetan alhatzeko.
- 10 Ene gainean maitasuna, bandera gisa; haren ezkerre ene burupean
 liliak biltzeko.
 Iturriak ortuak urreztatzen ditu, etengabeko jarioaz.
 Horrela poz bitez...
- Gazte bikainok elkarrik amodioaren baratzean dostatzen dira,
 baratzeetan alhatzeko.
 Mahatsondo hautatua landatuko dute, eta hazi saindua ereinen,
 liliak biltzeko.
- 15 Lore zoragarrien kimu, landare atseginak.
 Horrela poz bitez...
- Etxola ederrak, nobleen seme-alaben biltoki,
 baratzeetan alhatzeko!
 Gerizpeko atsedeen gozoa, lorategietan, aloe ondoan,
 liliak biltzeko.
- Jainkoak ase ditzala atseginez, seme-alabez, Jainkoaren soroa!
- 20 Horrela poz bitez...

9. "Ene maitea enea da": cf. Kt 6,2.

10. "Maitasuna": cf. Kt 2,4. "Haren ezkerre", cf. Kt 8,3.

11. "Iturria": cf. Kt 4,15; Is 33,16.

13. "Gazte bikainak": cf. Ez 23,6.

14. "Landatuko dute": cf. Je 2,21. Ezkonberriek ukanen dituzten seme-alabez ari da.

16. "Etxola ederrak": cf. Zen 24,5: Jakob-en etxolak edo dendak Bala'am-en iragarpenaren arabera. Beharbada, juduek ezkontzetan erabiltzen duten *huppah*, baldakino edo palioa aipatu nahi du, horren azpian zeremonia egiten baita.

19. "Seme-alabak": cf. Ps 127,3.

Uhaitzen ondoan usoa,
begietarako eder.

Ikusazu, meazuloari zilarra dario,
nork baina, aurki lezake honelako usorik?
5 Ederra da ene laguna, Tirşah bezala,
Jerusalem bezain ikusgarria.

Nora, nora ote doa,
dendetan bizitzeko? Badu
bizilekurik ene bihotzean,
10 handi eta zabala.

Bihotza ebatsi zidaten haren bularrek;
ene aurka datoz, ni probatu nahirik,
haien sorgin araoak, sendoagoak
Egiptoko aztienak baino.

15 So egiozu bitxiaren distirari,
nola gorritzen eta nola zurbiltzen den,
eta txundi zaitez harri batean
zazpi kolore ikustean.

31) Zajal tankerako poema estrofikoa, ezkontzako zeremoniarako paratua. Sarrera eta hamaika estrofa dauzka. Lehen lauretan senargaiak neskaren edertasuna hirugarren pertsonan laudatzen du, hurrengo hiruretan berari zuzenki mintzatuz. Azken lau estrofetan taldearen ordezkariak hitza hartzen du, azken bietan andregaiari berba eginez. Azken bertso bietan, bat-batean, Mesiasen denboraz ari da, Israelgo herriari laster heltzekoa, Danielen hitzen arabera. Neurkera silabikoa, zazpi silabako bertsoekin. Akrostikoa: *Yēhudah ha-Levi ḥazaq* (“sendo izan bedi!”).

1. “Usoa”: cf. Kt 5,12. Yēhudah ha-Levi-ren poesian maiz Israelen sinboloa izan arren, hemen emaztegaiari doakio.

2. “Begietarako ederra”: cf. Has, 3,6.

3. “Meazuloa”: cf. Jb 28,1.

5-6. “Ederra”: cf. Kt 6,4.

9-10. “Handi eta zabala”: cf. 1Kro 12,23; Ps 104,25.

14. “Araoak”: sorginkeri hitzak, cf. Ir 7, 11 hurr.

15-18. Maitearen aurpegia, harribitxiaren antzera, kolorez aldatzen dena. Cf. Za 3,9.

- 20 Bilakaraz iezadazu suge-pozoa ezti.
Gizonak diru truke ezkon badaitez ere,
nik neure bihotza emanen dizut
bikoizturik.
- 25 Lilizko masaila, ene begiek bildua.
Mingranazko bularrak, ene eskuen uzta.
Zure ezpainak txingarrak badira,
Izan bitez suhatsak ene barailak!
- 30 Zelatan dira txirikorda biak,
gaueko otsoak jalgitzen dira zure adatsetik.
Haiekin da nahasten zure masailen argia,
egusentiko lehen printzak goiztiriarekin bezala.
- Orein eme graziatsua! Ofirko urregorria!
Haren argiak zurbiltzen daki eguargia.
Zafiroaren zuritasuneko ilargia,
zeruetan bertan bezalaxe!
- 35 Ez dago ilunik haren distiraren aitzinean,
gauean ez da haren kriseilua itzaltzen,
haren argia egunarenari gehitzen zaio
eta zazpi aldiz handiago egiten.
- 40 Horra hor mutil maitea, aldean lagunik gabea,
zatoz, eta izan zaitez harentzat lagun;
ez baita on bakarrik egotea,
bi izatea komeni da eta.

19. "Suge-pozoa", maitasun generoko esaldia, maiteek gaitzesteko jarrera adierazteko.
22. "Bikoizturik": cf. 1Sm 1,5. Dirua baino askoz baliotsuagoa.
26. "Suhatsak": cf. Is 6,6, su arteko txingarrak hartzeko.
- 27-28. Maitasun generoko metaforak. Ileak maitearen aurpegia babesten du eta haren belztasuna haren aurpegiaren zuritasunari kontrajartzen zaio.
31. "Ofirko urrea": cf. 1Kro 29,4.
- 33-34. Bada zafiro garden mota bat. Cf. Ir 24,10.
36. "Ez da haren kriseilua itzaltzen": cf. Es 31,18, "emakume sendoa"ren poeman.
38. "Zazpi aldiz": cf. Is 30,26.
40. "Lagun": cf. Has 2,18.
42. "Bi izatea": cf. Qo 4,9.

45 Amodio-garaia hurbil duzu,
bat bakarra izateko unea heltzen da;
halaxe hurrantzen da epe jarria
kanpaleku bien dantzarako.

32

Tente daude oreinak mirtoen artean,
eta mirra hutsa darie edonondik.
Mirtoak, haien lurrin gozoa irrikatuz, gainetik
bere hegoak hedatzen dizkie kerubin baten antzera.
Mirtoak, ustez, haien usaina gaindi lezake,
baina haien esentziek inguratzen diote lurrina.

33

Ortziko izarrak batu egin dira egun;
haien parekorik ez zeruko osteetan.
Pleiadeek haien elkartzea bekaitzez dakusate, ez baita
haien artetik sartzen airea bera ere.
Ekialdeko argizagia Mendebalera etorri da,
eta eguzkia aurkitu du haien alaben artean.
Abar lodiekin sabai bat eraiki du,
haiekin eguzkiarentzat denda bat eginez.

43. "Amodio-garaia": cf. Ez 16,8.

45. "Epe jarria": cf. Dn 12,7.

46. "Kanpaleku bien dantza": cf. Kt 7,1. Mošeh ben Maimon-ek, bere *Yemengo juduei gutuna*-n, Midraš-en interpretazioari jarraikiz, *Kantiketako Kanta Rabbah*, 7,1, dioenez, "Sinai mendiko poztasuna"z ari da, han (Ir 19,17-ren arabera) Israeldarren kanpalekua eta Jainkoaren kanpalekua (Ps 68,18) baitziren. Cf. Targarona Borrás-en itzulpena, 163 or. etah.

- 32) Zeremoniarako, mirto-abarrez apaindu den *huppah* edo baldakinopean dauden ezkongai bien laudorioa. Egoerak aukera ona eskaintzen du joko formal ederra egiteko. Neurkera: *hamērubbeh*.
1. "Oreinak": ezkongaiak, cf. Za 1,8.
 2. "Hegoak hedatzen": *huppah* apaintzen duten abarrak, cf. Ir 25,20.
 3. Ezkongaiari mirtoari baino usain hobea darie.
- 33) Ezkongaien goresmena. Dirudienez senargaia Ekialdetik heldua da (edo Penintsularen Sortaldetik, Brody-k iradokitzen duenez). Emaztegaiaren irudiarekiko joko: eguzkia *šemeš*, femeninoa hebreeraz. Dīwān-een hau ageri da arabieraz idatzirik: "Eta hau esan zuen, dosela azaltzean". Neurkera: *mišqal ha-tēnu 'ot*.
2. Pleiadeek, zeruan elkarturik ageri diren izarren eredu izanik, bekaizkeria diete ezkonberriei beren artean dagoen batasunagatik. Cf. Jb 41,8.
 4. "Sabaia", *huppah* edo abarrez apainduriko dosela, zeinen pean ezkontzeko zeremonia egiten den, eguzkiarentzako (= emaztegaiarentzako) denda izango da. Cf. Ps 19,5.

Agur esaiozue senargairik hoberenari!
 Haren adiskide eta lagun zintzoei!
 Indar beza adiskidearen agurrak urrun sentitzen duena,
 haren bihotza aurrez aurre dakusan arren.
 Etxe oneko kimu biok elkartzean,
 nobleen seme-alaba, landare atseginok,
 beren aurpegiari argia darie goi-errezeletik,
 hodei lodien artetik izarrei bezala.

Begi ederreko altsuma emankorra!
 Iturri ondoko altsuma emankorra!

5 Bidea utzi, oi senargai, eta ikusazu,
 edan ontzi gainezkatuetan
 neskaxen arteko gazte miresgarriarekin;
 egiazki komeni baita horregatik
 printzeek ardoa edatea.
 Begi ederreko...

Oi orein emea, sakonenean bizi zarena,
 kantaiezazkiozu amodiozko kantuak zeure maiteari!

- 34) Senargaiaren eta, oro har, ezkontideen laudoriozko poema, beren ezkontza egunean. Itxura aski konbentzionala du eta agian poetak ezteira joaterik izan ez zuen senargai bati bidalia zatekeen. Neurkera: *ha-mërubbeh*.
2. Testua balio bikoa da: lit. 'bere begietatik urrun duena'. Bigarren hemistikioan "bihotza" subjektua zein objektua izan daiteke. Cf. Dt 5,4.
 3. "Landare atseginok": cf. Is 17,10.
 4. Zeremonia egiteko *huppah* edo doselpean.
- 35) Zajal tankerako poema estrofikoa, ezkontzako zeremoniarako paratua. Sarrera eta bost estrofa dauzka, txandaka ezkongaei eta talde osoari zuzenduak. Mesias laster heltzeko esperantzarekin lotua. Neurkera silabikoa, bertso hexasilaboekin.
- 1-2. "Altsuma emankorra": *Ben porat*, Has 49,22-ean Josef-i ematen zaion izena. Litekeena da hori senargaiaren izena izatea, baina era sinbolikoan ere uler daiteke.
 3. Moisesek ere sutan ari zen sasiaren miraria ikusteko, bere bidea utzi zuen bezala. Cf. Ir 3,3,
 7. "Printzeak": balio iluneko hitza; agian 'nazireu' esan nahi du, hots, 'ardorik ez edateko botoa egindakoa'. Gure itzulpenak kontuan eduki du pasarte honetan Es 31,4-ri egin diezaiokeen erreferentzia.

10 Hurbil zaitez, jaun argi, neskatxa nobleagana,
bertutetsua baitzara, eta zure maitasuna
hobea da ardoa bera baino.
Begi ederreko...

Zein atseginak diren urtume biak,
leinu noblekoak!
15 Haien laguntasuna zoragarria da
lagun eta adiskideentzat,
ardoa pitxerretan edaten dutenentzat.
Begi ederreko...

Horrela poztuko da herri umiliatua
Santutegi eta Tronuagatik
20 ‘Elyon-en gerizpean eser dadin egunean.
Jauna Sionera itzul dadinean
begien aurrean agertuko zaie.
Begi ederreko...

Erregea haren aurretik ibiliko da,
gatibu dagoena putzutik ateratzeko;
25 haren uztarriko lokarriak hautsiko ditu,
eta haren askatzailea aterako du
ardoa pozturiko borrokalari azkar gisa.
Begi ederreko...

11-12. “Ardoa bera baino”: cf. Kt 1,2.

13. “Urtume”: ‘urteko kima edo adar berria’, hemen ezkongai gazteak.

17. “Pitxerretan edaten dute”: cf. Am 6,6.

18. Ezkongaietatik Israelen oroitzapenera eta horren askapenera iragaten da.

19. “Tronuagatik”: cf. Kt 3,9.

22. “Begien aurrean”: cf. Is 52,8.

23. “Erregea”: cf. Mi 2,13.

24. “Gatibu”: Josef (Has 37,24), herriaren sinboloa; segur aski horixe zen senargaiaren izena.
Cf. Za 9,11.

25. “Uztarria”: cf. Le 26,13; Ez 34,27.

26-27. “Borrokalari azkarra”: cf. Ps 78,65.

So egiozue errezelari, ikus ezkon-ohe tapizduna,
 orein eme maitatuarentzat prestatua,
 Sabako erreginaren loria, hark oparitzat bidalia.
 Berbera etorriko da asmakariekin zuek probatzera;
 eta erranen du: zein gazela bizi daiteke lehoiaren habian
 beldurrik eta ikararik izan gabe?
 Erantzun iezaiozue: zeu zara egiaz gazela hori,
 Yēhudah lehoi kumeari emana.

Ikusazu ea egunsentiak bere halakretaren belztasuna urratu ote duen,
 neskatzaren melodien ahotsean, haren usoen kantuen doinuan.
 Zer esan dezaket Yişḥaq-en etxekoez? Abarrak sustraia dirudi.
 Zoriak buru gainean izkiriaturik dauka duintasuna jarauntsi zuela;
 5 eta inork hura eskuratu nahia zeruetara igotzea bezala litzateke.
 Ongi iruditu zein hargatik haserre egon, esaiezue haren irrika dutenei:
 Itzul zaitezte! jaurgoarean jabea haren ugazaba besterik ez baita.

- 36) Igarkizuna da, argitasun, hitz joko eta irudiz betea, ezkontza-poemako gaiekin nahasirik. Izenburua: “Yēhudah izeneko gizon baten andregaiari”. Neurkera: *ha-mērubbeh*.
1. Zeremoniarako prestatuturiko *huppah* edo baldakinoa.
 2. “Berbera”: balio biko hitza, segur aski berariaz bilatua, bai emaztegia eta bai Sabako erregina adieraz baitezake, ezkutuko asmakizunetan aditua berau (1Erg 10,1).
 3. “Gazela”, kasu honetan maskulinoa, baina hurrengo bertsoan femeninoa. Bada itzuli ezineko hitz jokoa: ‘bizi daiteke’ eta ‘beldur izan’ hitz berberaz adierazten dira hebreeraz (*נל* *yagur*) eta hurrengo bertsoan ‘kumea’ antzeko beste berba batez (*נל* *gur*).
 4. “Lehoi kumea”: cf. Has 49,9.
- 37) Ezkontza egunerako poema estrofikoa. Muaxaha hau forma aldetik oso landua da, azkenean dakarren harja hebreeraz izanik. Sarrera eta bost estrofa dauzka, eta bertsoak 7 + 6 silabakoak dira. Arabierazko izenburua: “Eta honela esan zuen Yişḥaq ibn al-Rabib-ek Ibn Ma’āyōr-en alaba emazte hartu zuenean...”
- 1-2. “Halakret”: ‘antzinako gerra-jantzia, metalezko atalez egina’. Eztei eguneko goiztirian. Hebreeraz paronomasi efektua dago.
 3. “Abarrak sustraia dirudi”: cf. Am 7,16. Haurra gurasoen antzekoa da.
 - 4-5. Yişḥaq senargaiari handitasuna etxekoengandik datorkio, eta ezinezkoa da beste bideren batetik hura lortzea.
 7. “Jabea”: cf. Ir 21,4.

- Herri urrunetako lurrinak haizearen hegaletan dabilta zamalka;
orein emeari ebatsiriko ukendu usaintsuen gozotasunak.
- 10 Harengatik dute xuxurlatzen sekretu ezta: heldua da jada maitaroa.
Oi maitea, jaits zaitez! Zergatik zabilta hain berandu haren baratzeetan
[alhatzeko?]
- Zatoz amodioaren bazterrera eta bil itzazu bertoko liliak.
- Haren bularretako urriloei gaur lurrina darie,
haren idunekoan artean zuretzat fruitu goxoa gorde du.
- 15 Zaude pixka batez haren delizien zain, ilargia bete arte,
bihar ilargia izanen baita haren ilargixketako bat,
eta hura izanen duzu menorah, gelak argituko dizkizuna.
- Txit ederra duzu etxeko orein eme otzana, zazpi aldiz argitua.
Beloagatik ez balitz, zeruko izarrak zurbil litzake.
- 20 Abar busti horretako mingranak gorde itzazu begietatik!
Bere belo atzetik sugeak ilkiarazten ditu;
baina ez izan haien beldur, ez baitute pozoirik haren biperek.
- Intsentsuzko muinoaren arima mirra-mendiaren egarri izanen da,
harekin ezkondurik, enarak bere habia aurkitu arteraino.
- 25 Aratza da, ilargia bezain eder! Harentzat laudorio nahikorik ez.
Haren begitarteko egunsentiak Hartza eta horren izarrak iluntzen ditu;
eta graziazko kriseilua pizten daki, haren aurpegiaren argi-jarioz .

10. "Maitaroa": cf. Ez 16,8.

11-12. "Alhatzeko": cf. Kt 6,2.

13. "Urriloak": cf. Kt 7,14.

16. Gaua heldu arte itxaroten du, ilbeteko gauera arte; dirudienez, ezteia judutar ilargi-hilabeteko 15ean egiten da. "Ilargixkak": metalezko zatitxoak edo txanponak, ilargi itxurakoak, emaztegiaren aurpegiaren inguruan apaingarri gisa jarriak.

17. "Menorah": 'argimutilla' hebreeraz.

18. "Otzana": lit. 'etxeko oreina', etxekotua. "Zazpi aldiz": cf. Is 30,26. Testu hau mesianikotzat interpreta daiteke. Lit. "(eguzkiaren = emaztegiaren) argia zazpi aldiz handiagoa izanen da".

20. "Mingranak": bularrak; "abarra", ordea, gerria da.


22. "Biperak": 'sugegorriak'. Besteentzat hala izan arren, senargaiarentzat, ordea, ez dira pozoitsuak. Maitasun generoko ohiko baliabidea.

23. Cf. Kt 4,6. "Intsentsuzko muinoa" emaztegiaren irudia da, eta "mirra-mendia", aldiz, senargaiarena.

24. "Harekin ezkondurik": cf. Os 2,22; Ps 84,4.

25. "Ilargia bezain eder": cf. Kt 6,10.

27. Cf. Ir 25,37. "Argi jarioa": lit. 'harantzago'.



GORESPENAK ETA ADISKIDETASUN-KANTUAK

Ene bihotza zuekin da, jaun nobleok...



שירי ידידות ושירי תהילה

לבבי אליכם, סגלת נדיבים...

- Ene bihotza zuekin da, jaun nobleok,
 Maitasunaren sokekin herrestan naramazue eta.
 Yēhudah-ren poemak, Torah-ko lehoiarenak,
 kerubinen hegoetatik zintzilik daude.
 Haren bertsoek haren hitzak eduki al ditzakete?
 Ez al daude Jainkoaren hatzaz izkiriatsuak?
 Haiei euria darie, arimen bizi-emaile,
 eta txinpartak, bihotzen oinaztagarri.
 5 Oi, ahal banie, arrano-hegoen gainetik, urrunaldia arindu
 hain urrun eta hain hurran direnei!
 Nola ez dira urrun egonen, hodei artean bizi izanik?
 Nola ez dira hurran egonen, erraietan badira bizi?

Granada ondotik taupadaka iragan mintzenean,
 lagunak eta senideak irten zitzaizkidan ikustera;
 topagune hari Maḥānayim deitu nion,
 Jainkoaren aingeruak Jakob-ekin bat egitean bezala.
 Raḅ Yēhudah ikustatu banu,
 Maḥānayim-ez gainera, Pēnu'el ere dei nezakeen.

- 38) Segur asko 1090 baino lehenagoko poema, jadanik Yēhudah ben Gayyat Granadako hiritik alde egina zenean. Neurkera: *ha-mitqareḅ*.
1. Lagun batzuei zuzendurikoa, horien artean Yēhudah nabarmenagoa izanez.
 2. "Lehoia": cf. Has 49,9.
 3. Cf. Ir 31,18.
 4. Poemen eragin ezberdinak, generoen arabera.
 5. Cf. Ir 19,4. "Urrun-hurran": aldi berean.
 6. "Hodei artean": toki urrun eta gorenean. "Hurran", "erraiak": hitz jokoa hebreeraz: *qērobim / qērahim*.
- 39) Yēhudah ben Gayyat-i, goiburuaren arabera: "Granadatik pasatu eta R. Yēhudah ben Gayyat ikusi ez zuenean". Segur aski almorabideak heldu (1090) eta Yēhudah erbestera irten baino geroago idatzia. Antza denez, Yēhudah ha-Levi-k berak ez zuen hirira sartu nahi. Neurkera: *ha-mērubbeh*.
1. "Taupadaka": segur aski adi-adi zegoelako, beldurragatik baino gehiago (berau hebreeraz ohikoagoa den arren). Cf. Is 50,5.
 2. "Maḥānayim": 'kanpaleku biak' Has 32,2 hur.
 3. "Pēnu'el": cf. Has 32,31, hor izen hori azaltzen baita: 'Jainkoa aurrez aurre ikusi dut'. Ezin egin dakioket laudorio handiagorik adiskide urrunari.

- Ez du uste purpura gainean hazi zenak
 azkenean har bilakatuko denik.
 Zoriak gizakiei bere atseginen kopa luzatzen die,
 haientzat ezezaguna, jakina nik;
 haren zaporea ahoratzean honela diostate: “eztia!”;
 nik dastatu eta diotset: “hondakinak”.
- Haien aberastasuna biziaren zuhaitza dela uste dute, horregatik
 ezagumenaren zuhaitzera hurbiltzeko beldur dira.
- 5 Gorrok, entzuzue -zorionekoa belarriari
 mintzatuz entzuten dakiena!-:
 Zergatik pentsatzen duzue jakinduria txingarra dela?
 Hura eskuetan bazenute, eraztuna litzateke.
 Nola dastatuko dute hura lo egin besterik nahi ez dutenek? Jainkoak
 bere lehoiak hortzik gabe sortu zituen!
 Nola jasanen dute asto etzan horiek
 beren zama, txalmak altxatzean ere nekatzen badira?
 Abere taldeak dira, beti ere horma aurrean makurtuak,
 noren aitzinean meneratzen diren jakin gabe.
- 10 Jainkoarren zin badagite, ez itzazu sinets,
 ez dazagutenaz zin egiten dute eta.
 “Ken zaitez!” diotsote Jainkoari, eta haren fedearen misterioa eta
 haren bideetako jakintzarena ez dute ezagutu nahi.
 Ero erkidego horretan arrakasta ukanen du, soilik,
 bere arima zoro bilakaraz dezanak.
 Neurea ere ia galdu nuen, erromeskeriaz,
 hain jende hanpurutsuen artean izatean, lur jota,

- 40) Sibiliako familia ospetsuko kidea zen R. Me’ir ben Qamni’el-en ohorez idatziriko poema. Beronek Administrazioan kargu handia zuen, Marrakex eta Fez-era joan eta bertan almorabideen gorteko mediku izan baino lehen. Hasieran Sibiliako judu aljamako aberats eta boteretsuen aurkako sarrera satiriko luzea jartzen du, haien ezjakintasunaz eta ikasteko gogo urriaz irri eginez. Arabierazko sarrerak honela dio: “Eta hasieran berba satiriko hauek esan zituen Sibiliako bizilagunen aurka. Eta hortik Abū al-Ḥasan ibn-Qamni’el visirren laudorioetara iragan zen”. Neurkera: *ha- šalem*.

1. Cf. Nk 4,5.

3. “Hondakinak”: cf. Is 51,17.

4. Cf. Has 2,17; 3,24.

7-8. “Hortzik gabe”: cf. Ps 58,7. Ezin dezakete jakinduria berengana, bera ikasi beharra astunegi gertatzen zaie eta.

9. “Makurtuak”otoitz egitean, juduen ohituraren arabera.

11. Cf. Jb 21,14.

13. “Hanpututsuak”: lit. ‘beren adarrak gorantz altxatzen dituztenak’. Cf. Ps 75,6.

- Me'ir han izan ez balitz, harekin zoraturik
gelditu baitzen, haren maitasunaz xarmaturik.
- 15 Haziaren ordezt ezarri nuen eta uzta mesedegarria
lortu nuen, ereiniko amodioaren ondorio;
haren eskuak biziaren zuhaitzaren pareko dira, jakinduriaren zuhaitza
ahoan dauka eta haren aurpegia arratsik gabeko eguzkia da.
Haren urte gutxiz eta zientzia handiaz jabetzen direnek, ez
dute lehenago hobezintasun osorik inoiz ikusi .
Mahatsondo hori mirestea galdezka ari dira:
“Nondik jalgi da hori, non landatu zuten bera?”.
Haren gurasoak ezagutu balituzte, erran lezakete:
“halakoxe bertutea du, aitagandik semeagana iragana”.
- 20 Ongi da aitaren loria haren koroa izatea,
Aharonen buruan mitra bezala.

14. Goresmenerako iraganbidea.

16. Gorai patua Sibiliako gainerako jende arruntak ez bezalakoa da erabat: ikus 4. bertsoarekiko kontrastea.

20. Cf. Ir 28,40.

Herriko nagusiek, biltzean, eta erregeek ere, beren kontseiluan,
 guztiek goretsiko dute Yosef, berori baitute beren loriaren iturri.
 Jainkoaren beldurpean gobernatu nahi du, eta halaxe zuzentzen ditu

[gizonak.

Gizakiak duen gauzarik preziatuena, orok aldarrikatua, bakarra eta

[garbia,

5 buruzagiaren zeregina da, edertasunezko koroa.

Gizakiak duen gauza maiteenak lurra eta beronek daukana gainditzen badu,
 nik hau pentsatzen dut: berberak dio bere printzeak eman diola zentzua;
 Yosefentzat sortu zuen bera Harkaitzak, ez zuen anabasa egin.

10 Hargatik arindu zen zama astuna; boterea eta jaurgoa hark baititu!
 dorre gotortuan ezarri zuen herria, dozenaka ihesi zihoana.

Altsuma emankorra, zure arkuaren indarrak mesedegarriak dira zure obrak;
 ugalkortasuna zuregandik dator, eta zu laudatzen zaituzte etengabeki;
 eguzkia zara eta euri isuria, eta biak dituzu gainditzen.

15 Zuri esker argitzen dute betiereko argizariak, eta argiak distiratzen,
 lurraren gainean hiregandik laguntza hartzen duela aitortuz.

Zer eginen du umiliatu aldra horrek, Zoriaren aurka altxatuak,
 elorri zutitua erauzi eta haren egurra erre arte,
 Jainkozko ohoreez betea etorri baino lehen, haien mirtoen artean tente?

41) R. Yosef-en ohoretan. Segur aski, berau Yosef ha-Naš'i Ferruzi'el zen, Toledon, Alfonso VI.aren gorteko mediku eta pertsona garrantzitsua, "Cidiello" ezizenez deitua, 'jauntxoa' alegia, eta dirudienez, XI. mendearen azken hamarkadan Guadalajara bisitatu zuena. Muaxaha oso landua da, erromantzezko harjarekin, neurkera ez klasikoan.

1. Cf. Dt 33,5.

4. Cf. 1Sm 9,20; Kt 6,9.

5. Cf. Is 28,5.

6. "Maiteena": azken bertso bietan aipatu berri duen kargua, hots, judu aljamen buruzagitza. Cf. Ps 24,1.

8. Cf. Is 45,18.

9. Cf. Ha 2,6.

11. *בן פורת* *ben porat*, Josef-en deitura Has 49,22-an.

18. Cf. Za 1,8. Laudorio horiek goretsiriko pertsonaiari badoazkio ere, litekeena da pasarteetan Mesiasen aipurik ere izatea, bai "Cidiello"ri izaera hori emanaz edo figura askatzaile biek in paraleloki jokatuz.

20 Haren orroak printzeak ikaratzen ditu, eta xedea jotzen;
Jainkoak bera bakar egin du, estuasunean gotorleku sendo.

Oliozko ibaiak harrizko uhaitzetara limurtzen dira,
Jainkoaren herria gozotasunez zaintzen dakien sendoaren albisteekin.
Bizi bedi printzea! Errazue: “Amen” eta poz-kantuak aireratuko dituzte:
25 “Des kand meu Cidielu venid, tan bona al-bisara!
com raya de soli esid en Wadi-al hiyara”.

24-25. Euskaraz: “Ene Cidiello badatorrela, hau albiste ona!/ Eguzki-izpia bezala, Guadalajartik jalgia”. Ohi ez bezala, harja ez dago neskatxa baten ahoan, herriaren ahoan baizik. Agian testuinguru honetarako egokitua izan daiteke.

- Negar haiek, behiala Hermon-go ihintza bezalakoak,
 zergatik eta nola bilakatu ziren Dimon-go ur?
 Garden zihoazen, amodioen hasieran,
 baina hastantzeak gorritu zituen.
 Ez da maitalerik urrunaldi hori gabe,
 ene ahoko poema Hādad Rimmmon-en lantu bihurtzen duena.
 Ene bihotzaren zatiak hainbeste dira,
 eta kumino bezala barreiatu ditut.
- 5 Mortuetan negar eginen dut, hodeiak haserrearaziz,
 han, egiaz, agertuko dut neure sekretua;
 jeloskor sentituko dira eta esanen didate: Nola ez
 duzu fruiturik ekoizten, eremu latzean negar eginez?
 Eta nik erantzunen: “ez da ene negarra urria delako,
 ez baita horren antzeko zaparradarik;
 baina ene bihotzeko suteak ene malkoen aintzirako ura
 eltze batean bezala, irakinaraziko ez balu,
 mendiak urezta nitzake, haietan zedroak, akaziak eta
 gaztainondoak hazi eragin arte”.
- 10 Zenbat denboraz edanen ote dut urrunaldiaren mingotsa
 eta hargatik harriturik egonen,
 ene bideak inora ba ote daraman so eginez, enetzat
 Zoriaren ondasunen artean altxorrik ba ote den jakin guran!
 Ene eskaria goratzen dut, Zoriak entzunen ote nau
 ala ene azken egunak hasierakoak bezalakoak izanen ote?

- 42) Mošeh ibn ‘Ezra’ eta beronen anaia Yişhak laudatzeko, biak poetaren adiskide eta babesle granadarrak. Poeman aipatzen direnetatik, ondorioz anaia biak oraindik Granadan bizi zirela atera daiteke, eta horregatik almorabideak 1090ean heldu baino lehen idatzi zuela pentsa genezake, oraindik oso gaztea zelarik. Hor azaltzen duen adiskidetasuna bene-benetakoa zen, inolako erretorikarik gabea. Poeta beste leku batean da, baina hiri horretara joateko gogoia dauka. Arabierazko goiburuan honela dio: “Eta Ibn ‘Ezra’ tarrez, Jainkoaren borondatea bego haiekin guztiekin, honako hau esan zuen”. Neurkera: *ha-mahir*.
1. “Hermon-go ihintza”: anaien arteko batasunaren irudia, cf. Ps 133,3; “Dimon-go urak” Moab-en, odolez beterik zihoazen: cf. Is 15,9.
3. “Hādad Rimmon”: landaretzaren feniziar jainkoa, cf. Za 12,11.
4. Cf. Is 28,25.
- 4-9. Generoko ohiko baliabideak, urruntzeak nolako mina sortzen dion adierazteko.
8. “Eltzea”: Itzulpenean Mēnaḥem ben Saruq-en ulerkerari jarraiki zaio. Cf. Jb 41,12. Malko irakinek ez dute balio basamortua ureztatzeke.
10. Cf. Ez 4,16.
11. Cf. Has 24,21.

- Nik zer eraikitzen jardun, hark hori berehala birrintzen du;
 harekin ezin nezakeen jauregia altxa
 baldin jaun noblearen seme biak aurkitu ez banitu,
 anderaurenaren altzoan haziak.
- 15 Ez zen haien antzeko beste inor sortu: haien hitzek
 ‘Amram eta ‘Amonen semeenak ziruditen.
 Jaurerria haiekin ezin da senti umerik gabe,
 eta Legeak ez du alarguntasunik ezagutzen.
 Haien oroitzaz zinbaloak eginen ditut beren ospea aldarrikatzeko,
 mantuaren hegaleko txilintxak bezala;
 askorik esan arren, ez dut deus berririk iragarriko, zeren
 aldra bezalakoa baita haien kanpaien hotsa.
 Haiek alde egin baino lehen ere, badoaz haizeak
 beren oroitzean mirra eta zinamonoa eramanez.
- 20 Adiskidetasunaren hegoekin airatu ziren, baina
 bihotza erauzi zidaten, ihia ateratzen den bezala.
 Mina sentitzen dudanean, haien hegoek erremedioa dakarkidate,
 eta haien maitasunaz mingranen zukua dut edaten.
 Haien laguntzaz sendoagoa izanen naiz esklabotzen nauen Zoria baino,
 eta, neure jopu bilakarazteko, era berean tratatuko dut,
 baina ez da ene aitzinean Zoria ahuspeztuko
 ni Bet Rimonen ahuspeztu arte.

14. Ibn ‘Ezra’tar anaien laudoriorako iraganbidea. “Anderauren”: andre nagusia, etxandrea.

15. “Amram-en semea”: Moises. “Amon-en semea”: Josia, Judako erregea, erlijioaren berrezarlea. Cf. 2Erg 21,25; Sof 1,1,

16. Cf. Is 47,8 hur.

17. “Zinbaloak”: cf. Ps 150,5. “Txilintxak”: Apez Nagusiaren mantuan bezala, cf. Ir 28,33 hurr.

19. Edo “alde egin barik ere”. “Mirra eta zinamonoa”: cf. Es 7,17.

20. “Airatu ziren”: Jainkoaren arnasa uren gainean bezala, cf. Has 1,2, “Ihia”: cf. Is 9,13.

21. Cf. Kt 8,2.

23. Cf. 2Erg 5,18. Bibliako izen hori hemen Granadari ematen dio.

Maitea ametsetan joan zen orein emearen besartera.
Zeinen gozo litzatekeen ohea, ametsa egia bihur baleza!

- Neure arima aldatuko nuke soka luzeko loaren truke,
hark herri urrunetako usoagana hurbil banintza.
5 Zeinuak eman zizkidan eta seinaleak obra batzuekin:
bere masailetatik lauskitu zuen enetzat ontzi hordigarria;
beren esanen perlak bildu eta idunekoa zuen egin.

- Zer gertatzen zaio Zoriari? Zergatik urruntzen nau neure desiotik?
Igotzen banaiz, ene gezia behera darama, xedea jo ez dezadan;
10 Ekialdea dardararazten duenean, Mendebaldean dut nik herria.
Zoriak kalte egin nahi badit, eta nik laguntzarik aurkitu ez,
babes bila abiatuko naiz Ben ‘Ezra’tar biengana.

- Zaharrenari Yişhaq deritzo. Haren izena ezitia dute ene ezpainek!
Haren izenaren lurrunez zeru mugak beterik daude.
15 Ezin baliotsuagoa haren manuz eta haren zigiluz izkiriaturiko gutuna.
Haren luma eta hitzaren artean distira eta ahalmena dautza;
halere, ezpata du ahoan, halakretek salatzen dutena.

- 43) Yişhaq eta Moşeh Ibn ‘Ezra’tar anaien ohorez. Muaxaha, arabierazko harjaduna. Sei silabako bertsoak (hirugarrena laburra, laugarrenean segur aski azentua eramanez). Antzaenez, Moşeh jadanik Granadatik irtena zen (1095.az gero) eta Espainia kristauan aurkitzen da, erbesteturik.
1. Cf. Je 14,8. Poetak maitasunezko poesiaren mintzaira hautatu du. Testuinguruagatik, badirudi “orein eme” eta “uso” izenak darabiltzala bere adiskide Moşeh ibn ‘Ezra’ aipatzeko.
 2. Lit. ‘ametsa ulertaraziko balitz’, ‘egia bihur baleza’.
 4. “Zeinuak eta seinaleak”: maitasunaren frogak.
 6. Cf. Has 40,11.
 7. Dirudienez, *Sefer ha-‘Amaq* izeneko obraz ari da, Moşeh ibn ‘Ezra’ren gaztaroko lana berau, bere adiskide, Yēhudah ha-Levi-ri bidalia. Edonola ere, maitasun generoko ohiko hitz gisa uler daitezke.
 12. Zoriaren gaiak Ibn ‘Ezra’tar anaien laudorioetara zuzenik iragateko aitzakia ematen dio.
 15. “Gutuna” lit. ‘liburua’. Agian Yişhaq-ek, poetari bidaltzeko, idataraziriko gutunen bat aipatu nahi du.

Mošeh, ahantziko ote dute bera ene ahoak eta gogoetek?
Nola geldi ninteke arduragabe, ene begien argia joatean?
20 Aski berantzen da Mošeh, arren, galde egiozue Sinai-ri
 ea han jarri ote zuen bere etxola, ala sasitik dei egin ote zioten.
 Bidai arropak jantzi zituenean, zein egun mingots eta lazgarria!

Mendebaleko alabek begiak itzultzen dituzte Ekialde urrunera,
jaun noblea, atzo ihesi joandako kerubina ikustearren,
25 bidetik dabiltzanei kantu atseginez galdetuz:
 “Nire adiskidea erraturik dabil, zeinek estaltzen dio ilargia?
 berandu dabil berandu, eta gauean galtzen naiz”.

20-21. Poetak Mošeh ibn ‘Ezra’ren figuraz eta Moisesenaz, berau Sinain zegoela, jokatzeko du:
cf. Ir 32,1.

22. “Mendebaldea” antza, hemen al-Andalus da, “Ekialdea” Espainia kristaua litzatekeen
bitartean.

Behin sekretua agertu ondoren, zer ezkuta dezaket?
 Ontzia ezkerreko eskuan eta ene maitea eskuinean.
 Zuk zirikatzen nauzu, aski da, ez dut zugan sinesten,
 ezkerretik joanen naiz zu eskuinetik joanez gero.

- 5 Poz-alaitasunetara ohiturik nago, neure aitzinean Eden eta Gala'ad ikustera,
 eta ezin gaur dolurik egin; aitzitik, pozik emanen nik bizitzeko dudana.

Ene ahoa kaliza da oreinaren ahoan; ikusazu
 ene ardoa, ene fruitu gozoa, ahoa ahoarekin;
 ez didate balio erremediotzat zure agirakek,
 10 otoi, ez ekin horrenbeste!

- Sasimediku: alegera dantzut txirula, ardo soinua ene pitxarraren ahoan.
 Gaitzesle, oinazeen berresgarri, zaude geldi! Behartsu gisa orkatzari akara
 [eske nago.

Aurki ezazu, arima neurea, haren sekretua
 bertso estariekin: printzearen izena eta haren loria;

- 44) Mošeh ibn 'Ezra' rentzako maitasunezko muaxaha, arabierazko harjaduna. Burusoila da, hau da, sarrerarik gabea. Bertsoak 8 silabakoak dira (lau bakoitzean, ohi baino bat gehiago), 8 + 9ko itzuliekin. Yēhudah ha-Levik berak Mošeh ibn 'Ezra'ri eginiko gutun batean dioenez, poema hau bat-batean sortu zuen, dirudienez Yosef ibn Šaddiq-ek eginiko *Lel maḥšebot* muaxaha ospetsuaren eredu imitatuz, arabierazko harja berberarekin. Oso gaztea izan arren, Yēhudah izan zen hura imitatzea lortu zuen bakarra, eta Mošeh-ri eskaini zion, Granadara eginiko bisita baino lehen.

1-12. Lehen estrofa biek maitasunezko ohiko generoko baliabide eta irudiak errepikatzen dituzte. Maitalea bere maiteagandik urrundu nahi duen "gaitzesle" edo "zentsore"ari doazkio (3. ler.), figura hori, *'ādīl* izenekoa, arabiar poesiatik hartua izanik. Hemen aipatzen den "oreina" edo "orkatza" Mošeh ibn 'Ezra' bera izan daiteke. Ez da arrazoirik pentsatzeko, Brodyk nahi lukeenez, bertso hauek neskaxa baten ahoan baleude bezala ezarri direla.

5. Erdi Aroko poesian Gala'ad baltsamoaren sorterrria da (Cf. Je 8,22) eta, beraz *locus amoenus*-en sinboloa, Edengo Baratzea bezalakoa.

11. "Sasimedikua" edo "petrikiloa": cf. Jb 13,4.

13 hurr.. Erdiko atalerako sarbidea; "aurki ezazu haren sekretua" hasierarekin lotzen da. Bertso hau era askotara ulertu izan da. H. Brody-ren arabera: poemak ene sekretu ezkutua salatzen du eta guztiei jakinarazten die printzeari esker arnasa hartzen dudala. Sh. Abramson-ek, aldiz: poema zail honek bere sekretua arimari agertzen dio Mošeh ibn 'Ezra'ri eta bere loriari esker, hau da, Mošeh ibn 'Ezra'ri esker ez beste paratu ahal izan zuen Yēhudah ha-Levi-k hain poema zaila.

14. "Estari": estali, ezkutu.

- Zuek, lagun-adiskideok, saldu ninduzuen,
 ene bularra zuen egoitza izan ez balitz bezala.
 Agurra ere ukatu zenidaten, eta ia
 eragotzi zenioten zuen irudiari ene ohantzero hel zedin;
 ene bihotzeko odolaren azken hondarra isurtzeko izan ote zen,
 nik neure malkoei isilka ebatsia?
 Galde egiten didate: “Maitasunik erein al duzu?”
 Nik erantzun: “Bai, baina ene haziak ez ziren erne”.
- 5 Eta diostate: “Adiskide bat ukan gabe ongi pasatzen al duzu?”
 Nik ihardesten: “Ariman dauzkat neure atseginak”.
- Neure pentsamenduek gozatzen didate arima,
 neure lanen baratzea bihotzean daukat eta.
 Lagunak neure jakintzetan aurkitzen ditut,
 eta neure iritziak ditut nik adiskide.
- Nola gogoratu, ni gogoratzen ez nauen laguna?
 Zertarako, premiarik gabe, neure zauriak handiagotuko?
 Ene bihotzaren pareta artean bizi zenak
 egun batez alde egin zuen eta ez du jada ene besartean egiten lo.
- 10 Baina nik oraindik neure errurik ezari eusten diot,
 eta une oro haren maitasunaz oroitzen naiz,
 eta haren onespentetik ile bakararra gelditu ez arren
 ez du ene habailak kolpe hutsik eginen.
 Entzun baneza ene adiskideak aldatu direla,
 orduan ene herrian ortzia aldatua dateke.
 Bihotza ia eremu bihurtua nukeen
 baldin Mošeh-k ene haitzak erdibitu ez balitu;

- 45) Adiskidetasunezko poema Mošeh ibn ‘Ezra’ren urrunaldia deitoratzeko. Arabierazko goiburua: “Abū Harun [Mošeh] ben ‘Ezra’ harengandik urrundu zenean”. Neurkera: *ha-mērubbeh*.

1-12. Sarrera: Poeta etsiturik sentitzen da ordainik gabeko adiskidetasunagatik, eta bere bakartasunean aurkitu nahi du kontsolakizuna. Poemaren egiazko hartzailea 13. bertsoraino ez da azaltzen, alegia, Mošeh ibn ‘Ezra’, kanpoan eta segur aski kristauen arteko atzerrian dagoena.

1. Cf. Ps 88,19. “Ene bularra”: lit. ‘ene saihtsen artean’.

2. Zeuen aurpegiak niregana ametsetan hurbiltzen ere utzi gabe.

8. Cf. Jb 9,17.

10. Cf. Jb 2,9.

11. “Onespena”: lit. ‘ituna’. Cf. Ep 20,16.

12. “Aldatu zirela”: ene adiskideak ez dira jada halakoak.

13. Erdibituak izatean, haitzei ura darie. Cf. Zen 20,8 ss; Is 48,21; Ps 78,15.

15 bera dut jauna, bihotzean adiskidetasuna isurtzen didana,
 ene malkoak ene edalontzian isurtzen diren bezala,
 mezulari zintzoa, haren urruntzeagatik ene minak iraunkorrak
 eta ene zauriak izugarriak diren gisan.
 Ez dago, joan zenetik, haren urrunaldirako
 kontsolakizunik, txua irensten den tartean ere ez.
 Ene Jainkoa, senda itzazu haren urruntzearen zauriak,
 Eta egizu haren etorreraren aingeruekin bat nadin!

46

Nola ukanen dut atsedetik zuk alde eginda gero?
 Joan zinenean ene bihotza ere zurekin joan zen.
 Bihotza zure itzuleraren esperoan ez baneuka,
 zu urruntzean herioak joko nindukeen.
 Ikusazu, Beter-ko mendiak argi aitortzen dute
 zeruko euria zikoitza dela, ene negarrak eskuzabalak bezainbat.
 Sartaldeko kandela, itzul zaitez zeure Sortaldera,
 izan zaitez zigilu bihotz-besoentzat!
 Mihi hautatua! Zer duzu zuk totelekin berdinek?
 Zer egiten du Hermon-go ihintzak Gilboa'-n?

15. "Mezulari zintzoa": Moises, batez ere Palestinako poesia liturgikoan. Cf. Es 25,13.

16. "Txua irensten den tartean ere ez": ez eta une labur batez ere. Cf. Jb 7,19.

17. Berriz ere elkar gaitzela lehenbailehen.

46) Mošeh ibn 'Ezra'ri, jadanik Lizarran erbesteratuari, itzul zedila eskatzeko. Honek beste poema batekin erantzungo zion (Cf. Mošeh ibn 'Ezra'-ren *dīwāna*, H. Brody-ren ed., 164. zkia.; bada gaztelaniatzko itzulpena: A. Sáenz-Badillos, J.Targarona, *Poetas hebreos de al-Andalus (Siglos X-XII) Antología*, Córdoba, 1988, 164 or. eta hur.) Arabierazko goiburua: "Eta Abū Harun [Mošeh] ibn 'Ezra'ri izkiriatu zion Lizarrara, kristauen herrialdera". Neurkera: *ha-šalem*.

3. "Beter-ko mendiak" Cf. Kt 2,17. Mendi hauetako urik ezaz ari dela dirudi, berak adiskide urrunduagatik isurtzen dituen malkoekiko kontrastean.

4. Rabbin tradizioaren arabera, Tenpluko sartaldeko lanparak gainerako guztiak adina olio zeukan. Poemaren hartzailearen izaera bakarra eta aparta gorestekoa modua da. "Sortaldea": al-Andalus. "Zigilua": cf. Kt 8.6.

5. "Totelak": kristauak, arabieraz ez jakiteaz gainera berak ezin adi dezakeen hizkuntzaz mintzo direnak. Lizarrak ari denez, segur aski bertako euskaldunak aipatu nahi zituen, ez baita oso sinesgarria nork eta Mošeh ibn 'Ezra' bezalako pertsona ikasi eta harreman handiko batek garai hartan Lizarran mintzatzen zen okzitanieraz eta, neurri apalagoz, nafar erdaraz deus ezin ulertzea. "Hermon-go ihintza" anaiarteko adiskidetasunaren irudia, cf. Ps 133,3; Gilboaz, honela dio Davidek: "ez ihintzik, ez euririk zuen gainera! Ez bedi zuetan alor emankorrik izan!" (2Sa 1,21), hemen erbesteraldiko tokia aipatzeko.

Goraintzi poza erbesteratua duen gizonari;
 jadanik ez du zeinek kontsola, ai, zeinek kontsola ez du.

Yosefen joanaldiak bihotza labe zidan bilakarazi,
 baina Yēhudah-ren gorpuak erraiak zulatzen dizkit
 5 eta hirugarren anaiaren oinazeak pena are larriago dit egiten,
 haren mingostasunak arimatik zintzilik baitaude;
 zeharkaturik daukat bihotza, harena bezala.

Mošeh, jaun neurea, zuregatik arima emanen nuke;
 nik ere ez dut neure negarra isilduko,
 10 zorigaitzak kinka gogorrean harrapatu ninduen eta:
 arrano gisa arin hegaz egin zuenean, ez zuen etsi,
 harik eta ene arima agortu arte, zu maite zaituena.

Lehenari bihotzek aspaldian egin zioten uko,
 bigarrenaren irudia ametsetan besterik ez dakusat;
 15 bata gogoan dut, bestea zait falta.
 Ene begiak, noraino igo daitezke gora?
 Hantxe zait 'Ēlohim begi aurrean agertzen.

47) Muaxaha itxuran, erromantzezko harja batekin, Abū Bakr Yaḥya ibn Baqī-ren arabierazko beste muaxaha batean ere kontserbatua. Goiburuak honela dio: “Abū Harun [Mošeh] ben ‘Ezra’ri bidaliriko muaxaha, bere anaiaren heriotzagatik -Jainkoa hartaz urrikal dadila- kontsolatzeko”. Hirugarren anaiaz, Yēhudah-z ari da, hil zen lehenengoa; horri buruz Yēhudah ha-Levi-k eresi bat idatzi zuen (ikus 53. poema). Bost estrofa dauzka, 10 silabako bertsoekin, hirugarren eta seigarrenean bokal laburra eramanez. Eresi generotik aski hurbila.

1. Mošeh ibn ‘Ezra’z ari da.

3. Lau anaietarik txikiena, Yosef, Granadatik irtena zen gaztetan. Bere seme Yēhudah-rekin, geroago Alfonso VII.aren zerga-biltzaile izango zenarekin, Toledon kokatu zen, han 1128.ean hilez. Cf. Os 7,6.

5. Mošeh-renak.

7. Lit. ‘bihotzaren paretak zeharkaturik dauzkat’.

10. “Ikustaldi larrian”: hurrengo bertsoan azaldua.

11. Cf. Je 4,13.

14. Lit.: ‘bestea ametsetako ikuspenaz dakusat’.

Ai hautsetan sarturiko gizon maitearen!
argizagien artean gorde behar zenaren!
20 Haren mesedeak eten ziren, euri eskuzabalak
atertu eta gehiago isuri ez balira bezala,
haren argiek ez zutela argitzen ikustean.

Anaia urrunduaren kantua garretan daukat bihotzean;
kantuz ari da, bihotz urduriko neskatxa bezala,
25 garaia izan arren, ez datorkiolako bere maitea:
“benid la paška ë yo on šin el(l)u
jkom’ penad mio qoragon por el(l)u”

18-22. Hil berri den Yēhudah-z ari da. Cf. Dn 10,11.

23. “Anaia urrundua”: Mošeh.

26-27. Euskaraz: “Pazkoa badator eta ni hura gabe nago, / nolako pena duen ene bihotzak hargatik!”.

- Lurrak, neskato baten antzera, zurgatzen zituen
 atzo udazkeneko euriak, hodeiak eradoskirik,
 edo agian emaztegaia zen, neguan etxean gordea,
 arima zizpuruka, grina-denboren zain.
 Maitaroaren irrikaz zegoen, uda heldu eta
 horrela bihotz maitemindua sendatu zen arte.
 Urrezko sailaz eta zetazko brodatuaz jantzirik,
 bere arrokekin gozo eta atsegin hartzen duen neskatxa gisa,
 5 egunero aldatzen ditu bere jantzi apainduak,
 ingurutik beztimendak barreiatuz.
 Egunez egun aldatzen ditu ernamuinen koloreak,
 perlarena errubi eta esmeralda kolore;
 batzuetan zuri eta berde, bestetzueta gorri,
 gazela dirudi, maiteari musu ematean;
 haren loreak hain dira ederrak, ezen esan liteke
 zeruko izarrak ebatsi dituela.
 Goiztirian haren baratzea bisitatu genuen, mahatsaren
 alabak ernea, maitasun-txingarrek bizturik,
 10 elurra bezain hotza berari eusten dioten eskuetan,
 baina barne erraietan sua bezain gori;
 Lurrezko pitxerretik eguzkia bezala jalgitzen da;
 gure onizezko kopak hurbiltzean, urtu egiten da.
 Harekin oinez gabiltza, itzalpean, lorategiaren
 inguruan, euriaren negarraz pozturik:
 alai, hark hodeien malkoak, haren aurpegi gainean ihintz,
 banatzen dituen artean, iduneko baten perlak balira bezala.
 Muztioak bezainbat pozten dio bihotza enararen kantuak,
 halaxe lagunartea xaramelatzen duen usoaren kurrakak,
 15 hosto artetik kantatuak, dontzeilak kareletik bezala,
 dantzan ari eta gorputza bihurkatzen duen artean.
 Ene arimak goizeko haizea nahi du,
 hartan adiskidearen lurrinak besarkatzen dituelako;

48) Yişhaq ibn al-Yatom-en ohorez, XI. mendearen bukaeran Sibiliako judu aljaman garrantzi handiko familiakoa bera. Sarrerak (1-15. bertsoak) naturaren azalpen berezia dakar, genero bakikoko gai batzuekin nahasirik, poemaren mamari hots, pertsonaiaren laudorioari, literatur muina emanez. Metro: *ha-şalem*.

4. Cf. Ez 27,7.

6. Cf. Le 13,25.

9. Cf. Kt 4,13; Es 13,24. "Mahatsaren alaba": ardoa.

haizea jolasean ari da eta mirtoak kulunkarazten ditu,
 haien usaina urrunera daramakiela maitale aldenduei.
 Mirtoaren abarrak etengabeki altxatzen dira, palmek
 elkarrekin txalo jotzen diete hegaztien kantuei,
 makurtu eta ahuspezten dira
 20 Yişhaq-en aurrean, eta lurra, haren izena aditzean, pozten da,
 esanez: “Jainkoak plazer hori eman dit,
 Yişhaq-en sokekin loturik nago eta”.
 Mintzo naizenean, inork ez ditu ene laudoriozko hitzak
 gaitzesten, eta nantzuten guztiek halaxe dituzte berresten.
 Ongia eta gaizkia nahasi egiten dira nobleen ospean,
 baina harena ona besterik ez da, hor desakordiorik ez.
 Zein atsegina nuen haren izena entzutea, ene arima
 haren oroitzapenean murgildurik zegoenean!
 Baina beronek haren aurpegia ikustean, gorespenak
 gehitzen eta poemak berretzen ditu.
 25 Zugatik, ene jaun Yişhaq!, mintzo da ene mihia
 distiraz, eta bertsoak paratzen ditu etenik gabe,
 eta zurekin betiereko hitzarmena eginen dut:
 ez ditut behin ere zure handiespenak isilduko.
 Nondik hasiko natzaizu laudatzen? Ikusazu nola
 datxezkion zure arimari bertuteak oro.
 Nolakorik hoberenek zuregan ezarri zuten beren denda,
 zureztat adimenak bere kanpalekua bildu zuen;
 zure arima jakintza-maitasunez ase da,
 haren misterioak hondoraino arakatuz;
 30 hark zure bihotzean bere habia aurkitu du,
 eta zure baitan pozten eta etzaten da.
 Horregatik,ernal eta ugal zaitez, emaezu ondorengoei
 zeure izpiritu eskuzabala eta esku ugaria.
 Zeure iloben ilobak ikus ditzazula! Eta hodeiek
 isur bezate haien gainera mesedea!

18-19. Gorespenerako iraganbidea. “Palmak”: palmondoaren hostoak.

30. Cf. Kt 8,5.

31. Cf. Has 1,28.

Erakuts iezaiezu adiskideei zeure aurpegi maitea, orain
 egunaren begiak bizkar egin dienean;
 zatoz, otoi, eta ikusazu
 eguzki bat distiratzten eta beste bat ezkutatzten.
 Zugatik orroka dabil lehoikumea, baina lehoiak
 basoan orro egin al dezake, ehizirik ez badu?
 Har ezazu pitxerra, beroa baita, bihotzean uda bezala,
 eta hotza, negua eskuetan bezala.

- 49) Arabieraz daraman goiburuaren arabera, Yēhudah ben Gayyat jai batera gonbidatzeko, Lucenako Yiṣṣhaq ibn Gayyat-en semea, alegia. Aita judutar kulturagune ospetsu horretako maisu handia zen, liturgi poema askoren idazlea. Neurkera: *ha-šalem*.
1. Arratsean jaira joateko gonbita.
 2. “Eguzkia distiratzten”: ardoa, poesia bakikoan maiz erabiliriko irudiaren arabera.
 3. “Lehoikumea”: Judah, Has 49,9-ren arabera, hau da, poeta bera. “Ehizirik ez badu”: cf. Am 3,4.
 4. Bero/hotz kontrastea, generoko ohiko topikoa.

Jakoben seme Josef gizaldiz gizaldi
 bidali du Jainkoak janari emateko:
 Lehenbizikoa Taḥpanḥes-en altxatu zen
 herrien zutoihal gisa, anitzekin itun sendoa ezarriz.
 Izen bereko beste bat sortu da gure egunetan
 haren itxura eta itzal kementsuarekin;
 printzea deitu zitzaion hari anaien artean, eta beste hau benetako
 printze eta jauna da bere garaiko buruzagien artean.
 5 Ez zen jakinduria lasaitu harik eta prest eduki arte
 haren saihtsen artean bere tenplu eta saindutegia.
 Deus ez zuen behartsuak,
 ugari jaso zuen haren eskuinetik.
 A zer nolako arrazoia luke, erdiets ahal baleza,
 mihiak, haren izenaren laudorioak lortuz gero!
 Jainkoak bere herriari adorea eskaini zion
 haren eskutik, eta etsaia haren menpean zituen jarri.
 Bere egunetan beraiek kontatzen dituen eskuetatik
 iraganaraziko ditu gizon zintzo horrek ardi galduak.

50) Gorespen hau segur aski Josef ibn Migaš-i zuzendua da (1077-1141), talmudista handi eta Lucenako *yešibah* edo rabbi-eskolako burua 38 urtez izandakoari; horren ikasle ugarien artean *Moreh ha-nēbukim* 'Alderraien gidaria' filosofi liburu ospetsuaren egile izandako Mošeh ben Maimon "Maimonides"-en aita aipa daiteke. Ibn Migaš-en eta Yēhudah ha-Levi-ren arteko adiskidetasuna beronen gaztarotik zetorren. Neurkera: *ha-mahir*.

1-3. Jainkoak antzina Josef, Jakoben semea, gose garaian igorri zien bezala (Has, 42,6), laguntza eta hazkurria lor ziezaien, oraingoan izen bereko beste pertsonaia hau bidali die: Yosef [ibn Migaš].

2. "Taḥpanḥes": Egipton, cf. Da 9,27.

4. "Printzea": Cf. Has 49,26.

6. "Deus ez zuen": lit. 'bere eskua aurkitzen ez zuena. Cf. Le 12,8.

7. Dirudienez, pertsonaia, berak merezi duen bezala, goraiatzeko hitz egokiak aurkitzeko zailtasuna adierazi nahi du.

8. Cf. Ps 29,11, 18,48.

9. Cf. Je 33,13.

Oi, bizia eman ahal baneza, neure ezitia eta ardoa
bi ezpain gorrininen artean eradaten didan oreinagatik!

- Hura oroipen gozoa, ene behialako zoriona,
ene beso artean adiskidea eguzki loakartua zenean;
5 haren ahoko kalizatik bedelio-errubiak zurgatzen nituen nik.
Bion arteko maitasunaren indarrak sendotzen ninduen,
harekin batzen nintzen eta ez zidan okertzen uzten.
- Bihotza zapaldu arren, ez naiz harekin haserre, neure buruaz baizik,
haren dendetatik urruntzean mina handitzen zaidan artean.
10 Aurki banintza agian harengana ninderamake.
Baina enegandik tiratzen du Zori etsaiak jaurtiriko sokak:
eta urruntze-bidea erakusten dit, gorroto didalako.
- Itsaso Gorria, lagunok, lur lehorra da ene negarren aurrean!
Ez baitira begiok ene erraiez inola ere urrikaltzen
15 ene pausok atzerria ohondikatu zutenetik.
Ene begien atsekabeak bigarren itsaso batez estaltzen dit bisaia,
beldur naiz ez ote naizen bertan itoko, eta ni nork salba, egon ez.
- Davidekin guztiaz ahantzi eta neure pozez naiz gogoratzen.
Haren egintza handien gainean ene poemak, idunekotzat, jartzean,
20 agiraka egiten diot ene dolua handitzen duenari, neure osteak indartuz.

- 51) Rabbi al-Ḥasān (David) ben al-Dayyan-i opetsia. Muaxaha itxurakoa, erdal harjarekin. Sarrera eta bost estrofa. Bertsoak eta itzuliak 5 + 8 silabakoak, neurkera ez klasikoan, hirugarrena laburra dutela. Lehen hiru estrofek maitasunezko poema osatzen dute, genero horretako gai bereziekin: iraganiko zorionaren oroitzapena eta Zoriak ekarririko urrunaldiaren gaitzak. Laugarren estrofan gai nagusia ageri da: ben al-Dayyan-ekiko adiskidetasunak gainerako penak oro ahantzarazten dizkio. Azken estrofa harjara garamatza, segur aski helburu honetarako ukitua, goretsiaren izena eduki dezan.

1. Cf. Kt 4,3.

5. “Bedelio-errubiak”: hortzak eta ezpainak.

11-12. “Jaurti”, “erakutsi”: paronomasia hebreeraz.

13. “Itsaso Gorria”: lit. “Kanaberen Itsasoa”.

15. “Ohondikatu”: ‘zapaldu, oinak gainean ezarri’.

20. “Neure osteak indartuz”: cf. Ep 9,29.

Ene soin-uhala hordituko dut zorutzen nauen Patuaren odolaz,
ni ohiltzeko, arrotz plantak egiten baititu, ezagutuko ez banindu
[bezala.

- 25 Adi dut usoa, mirto artean habia daukana,
 ene poema kantatzen diodanean, edo neure Zoriaz kexatzen naizenean.
Bere boza eneganatzen du, kantuz ari den neskatxak bezala:
 “ben sīdī beni, el kerer eš tanto beni,
 deša al-zamani, kon filio ben al-Dayyani”.

21. Cf. Dt 32,42.

22. “Ohildu”: ‘egotzi, bota, kanporatu’.

27. Euskaraz: “Zatoz, ene jauna, zatoz! Maitasuna ondasun handia da, / Nasai ezazu, O Zoria, Ben al-Dayyani-ren semearen lotura!”

- Bihotzean dauzkat, zuretzat, baratze atseginak,
 eta zu joatean, zauri iraunkorrak.
 Zure izena gogoan dut, eta lurrinik hoberenak usnatzen;
 zure aldentzea ere bai, eta sugeen pozoia edaten dut.
 Zure mesedeagatik perlak dira ene ezpainetan,
 zure urrunaldiagatik, giltzurrunetan arantzak dauzkat.
 Agur zuretzat, beramatza ene maitasunak,
 hodeiek ezin eutsizko agurrak;
 5 gure artean diren itsas uhinak irudi dute,
 haizeak, lurrak, egoitzak bezalakoak.
 Adiskideari, zeinez neure loari erregutzen baitiot:
 Geldiro! lorategi zoragarria ikus dezadan arte,
 Geldiro! ametsaren sokak, ez etsi,
 harekin pixka bat mintzatu nahi nuke, aurrez aurre,
 haren makilaz ene erraietako harkaitza jo baitzuen,
 ene begietan iturburuak urratu arte.
 Pentsamenduek zokoratu ninduten, hura utzi nuenean,
 eta ene bihotzetik gogoetak galdu ziren.
 10 Ene begiak 'Ādonim-en gutunaren esperoan daude
 morroien begiek beren jaunak igurikitzen dituztenez.

52) Dunaš ben Abi Šekem-i zuzenduriko adiskidetasunezko poema, baina ez dakigu pertsonaia hori nor zen. Ohiko gaiak: urruntasunaren eta adiskidea berriro ikusteko gogoia. Neurkera: *ha-mērubbeh*.


1. Cf. Is 17,10; Es 27,6.

2. "Usnatzen": lit. 'biltzen, eskuratzen. Cf. Kt 5,1; Jb 20,16.

6. "Lorategi zoragarria": adiskidearen aurpegia.

8. Moisesek bere makilaz basamortuko harkaitzean egin bezala. Cf. Zen 20,11.

9. "'Ādonim": Hebreerazko izen hau Dunaš-en baliokidea da, hau da, poema honetan goresten den pertsonaiarena. Cf. Ps 123,2.



ERESIAK ETA NEGAR-KANTAK

Ai! alde eginik urrundu zinen...



קינות

... אהה! גדת ונפרדת ...

Zoriak gizona Abel zela ikustean,
 haren etsai bihurtu eta Kain bilakatu zen.
 Hortaz, preziatuenak hil nahi ukan zituen,
 eta hoberenak zituen eraman.
 Atzo arraila bat ireki zuen 'Ezra'-ren lau semeen artean,
 lantua ardoa baino gozoagoa bihurtuz.
 Urrun dauden biengatik egiten dut zizpuru,
 ikusten baitut Patua bere armak erabiltzen.
 Yosef ez galdetu dut eta diostate: Egon!
 Yēhudaz, eta erantzuten didate: Falta da!

Gizon ikasia, heroi eta printzea, arabiar eta hebrearren artetik estimatuena!
 Ai! alde eginik urrundu zinen, hondamenak eta hausturak menderatuta.
 Ai! arrotz gatibuaren antzera, adiskiderik gabe gelditu zinen,
 zure anaia-arrebak eta senideak non-nahi barreiaturik.
 5 Zeure lurreraino, hil eta gero, heltzen zaizu gizakion boza:
 Zer edo nor duzu hemen zuri hilobi bat lantzeko?

- 53) Yēhudah ibn 'Ezra' ren heriotzan egina, ibn 'Ezra' tar anaietako hirugarrena berau. Granadako judu familia honi buruz Ángel Sáenz-Badillos eta Judit Targaronaren ikerketa hau irakur daiteke: "Yēhudah ha-Levi y los Ibn 'Ezra' de Granada", *Miscelánea de Estudios Árabes y Hebraicos*, 37-38 (Homenaje al Profesor Pascual Pascual Recuero), 1988-89, 325-23. Neurkera: *ha-šalem*.
- 1-2. "Abel": Bibliako pertsonaiaren deituraz gainera, hebreerazko izen honek 'hutsalkeria, balio gutxiko gauza' ere esan nahi du. Balio bikoitz honek poetari hitz jokorako aukera ematen dio: Zoriak gizakiak hutsalak direla ikusita, hil egin nahi ditu, Kainek Abel bezala. Baina baliosuenak hautatzen ditu.
2. "Preziatuenak": Nk 2,4-ren aipua, hitzez hitz. Lit. 'begietarako atseginak'.
4. "Biengatik": Yosef, anaietarik gazteena, Granada utzi duena, eta Yēhudah, hil berria. Bitariko urruntze hauek, Erdi Aroko arabiar eta hebrear poesian, Zoriari egozten zaizkio.
- 54) Zajal tankerako poema estrofikoa, R.Yiṣḥaq, ibn 'Ezra' tar anaia zaharrenaren heriotzan eginikoa. Berau Lucenan hil zen 1121. urtean, haren anaia Mošeh kristauen herrialdeetan erbesteraturik zegoen bitartean. Hildakoa bakarrik zendu zela azpimarratzen den arren, poemari solemnetasuna gehiago dario sentimendua baino. Neurkera ez da klasikoa, hemistikio bakoitzean sei silaba luze izanik, silaba laburrak irregularki banatuz, lehen hemistikioak barne errima edukiz.
4. Aurretik haren anaia Yēhudah hila zen, eta gainerako biak, Mošeh eta Yosef, kristau erresumetan bizi ziren. Haren arrebez ez dugu datu zehatzik.
6. Is 22,16-ren aipua, hitzez hitz.

- Zer erranen dut? Gaitz eta mingostasunak agindu ditu Šadday-ren ahoak:
ene loria atzerriratu, ene distira urrundu eta ene deliziak eramatea.
Hauxe da ene patua, ene azken adurra, ene zoria, ene zatia.
- 10 Erauzi zen lorea, oihal finen gainean urrezko iduneko gisa ernea,
ene jakintsu eta hobezen burua, ene aitoren semeen distira.
Behetitutu zen ene eguzkia eta ene sustraia hil, nola ez dira ene abarrak
[ihartuko?
- Zertaz harrotuko naiz, alboan arantzak besterik ez badakusat?
Oihuz nago mingostasunez, lakioan harrapaturik: Norbaitek
[hegalik emanen balit!
- 15 Zer edo nor duzu hemen zuri hilobi bat lantzeko?
- Zeren esperoan nagoke haren heriotzaz nahigabeturik? Haren jakinduriaren?
Haren distira eta loriaren? Haren bertute handien?
Haren edertasun eta egintza onen? Haren erran atseginen?
Arima hartu zioten berrerospen gabeko egunaren?
- 20 Haren adiskideek ez zuten haren bihotzeko penaren berri, ez haren
[estuasuaren;
ez zuen han arrebarik bere masaileko negarra xukatzeke,
oinaze-egoitza hartan bere ahaide eta lagunengatik negar egiten zuenean.
Ai adiskideok! zuen anaia bizi zenean ez zenuten haren urrunaldiagatik
[negar egiten,
eta orain, joan eta hil denean, ez duzue haren zerraldoa eramanez;
arrotzei erranen die goraka: “indazue hilobi bat, haren jabe izan nadin!
Zer edo nor duzu hemen zuri hilobi bat lantzeko?
- Anaiak sakabanaturik daude, lau haizeetara nora ezean
eta arrebek zizpuruka dihardute, auhenka, negarrez.
Izan bitez hiri orotan eresiak! Familia guzti-guztietan!
- 30 Hura ezagutu eta entzun zuten orok deitore begite!
Jauna zendu zen, eta aienatu zen loria, eta poza eten,
zorigaitza loratu eta bozkarioak ihes egin zuen, zotinak heldu ziren
printzea eta eskriba hiltzean, iturria bere abarrekin estaltzen zuena,

8. “Ene loria”, hau da, ‘ene arima’, hitzak Erdi Aroan zuen adieran. Cf. 1Sm 4,21 hur.

9. Cf. Qo 2,10; Je 13,25.

12. Poeta lehen pertsonan mintzo denez gero, poema, aldi berean, Israelgo herri osoaz ari da.

13. “Arantzak”: cf. Zen 33,55.

14. “Hegalik”: cf. Ps 55,7.

19. “Hartu zioten”: ‘Jainkoak hartu zuen’.

25. “Hilobi bat”: Abrahamek Hebronon bezala, cf. Has 23,4

33. Brody-ren arabera “jakinduriaren iturria”.

35 aholku eta bokantzaren aita, zuzen mintzo zen mihia.
Ez dago zutaberik aldatzen, suntsitzen edo hausten ez denik!
Zer edo nor duzu hemen zuri hilobi bat lantzeko?

Zauriari beste saki bat erantsi zitzaion, ilusioak ezdeustu zituena:
distira atxilotu, kandela itzali eta bihotza sutu egin zuen.
Eta begiak urtu ziren, iturburu bezalako jarioaz
40 altzifrea amildu eta patriarka gorenaren burua biraka erortzean,
herriaren printze pozgarriarena, kontseilari emankorrena.
Herioaren primua eta itzala irten zitzaizkion basamortuko otsoa bezala;
ikaragarri den Haren dekretua harenganaino heldu zen, nora jo ukan gabe,
eta irakaskuntza, arimak eta bihotzak aldean eraman zituen,
45 etorkizuna birrindu zuen, itxaropena eta esperoa.
Zer edo nor duzu hemen zuri hilobi bat lantzeko?

55

Zuek, andre arduragabeok, egizue negar eta auhen gertatu denagatik!
Erosta egizue mingoski! Urra itzazue jantziak!
Ez dute malkoek etenik behar horrelako minaren aitzinean.
Arimetan dolua dago eta bihotzetan lantua
hain balio handiko haren heriotzagatik, erauzia izatean bihotzak birrindu,
betseinak zulatu eta betzuringoak ilundu dituenagatik.
Zuek, haren adiskideok, ihardets iezaiezue haren bertso eta igarkizunei,
izkiriba ezazue haren historia eresien liburuan:
5 Hebrearra izan eta arrotz gisa bizi zen presondegian gatibu,
adiskideen orde, zizpuru eta penak metatu zituen.
Errazue buruak soil daitezela, eta bete bitez karrikak oihuz,
atsedena zinkurin dadila bilaka, eta begiak iturri.
Ai jaunaren! Ai haren loriaren! Egizue dolu haren zigorragatik,
eta haren zoritxarraz deitoratzeko, bil zaitezte ostrukekin.

37. "Ezdeustu": cf. Jb 5,12.

42. "Herioaren primua": Jb 18,13tik jatoriko esaera. "Basamortuko otsoa": cf. Je 5,6.

- 55) Bere adiskide Mošeh ibn 'Ezra'ren heriotzan egina, 1135 baino geroxeago gertaturik. Poemak badauzka poeta handi horren laudorio hunkigarria, batez ere hark atzerrian pairaturiko penak gogoratu. Mošeh eta beronen anaia txiki Yosef hiltzean (1128an), poemaren amaieran ere gogoratzen dena, jadanik Ibn 'Ezra'tar lau anaia zendua ziren. Poetak, leunki, haien artean izandako tirabirak aipatzen ditu, behin hil eta gero, ezin konponduzkoak. Neurkera: *mišqal ha-tēnu 'ot*, sei silabako lau estikorekin, lehen hiruretan barneko erimak izanik.
1. Poetak erostariei edo, oro har, andre juduei agiraka egiten die. Cf. Is 32,9.
 3. "Heriotza": lit. 'galera'. Cf. Za 11,13.
 6. "Buruak soil daitezela dolu seinale gisa", cf. Am 8,10; Is 24,11.
 7. "Ostrukak": cf. Jb 30,29. Biblian basamortuetako animalia zakartzat hartzen da, txakalen antzera, bere ankerkeriagatik aipatua: Nk 4,3.

Sēfaradeko koroa noblea, nolatan erori den haren burua,
 gazte eta neskatxengandik urrun geldituz!
 Lau anaien taldea, Pleiadeak bezain trinkoa,
 nolatan eraman zuen haizeak, lau kantoietatik barreiatuz!
 10 Erbestera jaurti zituen asturugaitzeko egunean,
 haien artean arrakala ireki zuen, jadanik konpon ezina,
 haien hiria suntsitu eta beste hiri batzuetara eraman zituen.
 Eta utzi zuen haren printzea arrotzen artean umiliatua izan zedin;
 eta ezkutaturik eduki zuten, gatibu izan balitz bezala,
 oinaze eta zauri iraunkorreatatik kexaka.
 Non da mahats mordo hautatua? Non jakintsu eta izkiriatzailea?
 Non perpaus ederren eta hitz eztien jabe hura,
 zahartzaroaren apaindura, sainduekin, Jainkoarekin eta
 gizonekin tratatzen zekiena, fedearen zaintzaile zintzoa,
 15 Israelen gogoko kantari eta herrialde haietako distira,
 jainkozko Torah eta zientzien muina menderatzen zituen?
 Zeinek azalduko ditu haren misterioak? Eta hura gabe, biluzik dagoen
 belaunaldia, nortaz loriatuko da jende eta hizkuntzen artean?
 Heroia, herritik hautatua, haren belaunaldiaren bekatuagatik
 itsutu zuen Jainkoak haren argia, gainean hodeitzarrak jarritz.
 Mošeh, Mošeh, anaia neurea, ene ilargiaren eta ekialdearen distira,
 urte luzeetan neure kandela eta eguzki argitasuna izandakoa!
 Eta oinazea handitzenago zait Yosef-engatik, haren figura baitut falta,
 Ai ene, galduko naiz haien irudiak berrikusi gabe!
 20 Haien nahiaz hiltzen eta ezerezten naiz, arima mingosturik.
 Eten bedi poza hura eraitsi eta hil zen egunean!
 Haren penak ezagututa, bere urteak ere laburtu dituenak
 estal bitza haiekin haren hoben ageri eta estariak,
 kontsola ditzala doluz daudenak, haren gainean hegalak heda bitza;
 itzul bedi harengana eta haren arreba zintzoengana bihozbera.
 Eman biezaio bere kerubin-aingeruen artetik ibiltzea,
 Šadday-ren eta haren armadaren itzalean, atsedenleku lasaian!

9. "Haizea": cf. Jb 1,19.

10. "Arrakala": cf. 2Sm 6,8.

13. "Mahats mordo": cf. Kt 1,14.

15. "Gogoko kantaria": cf. 2Sm 23,1.

19. Mošeh ibn 'Ezra'k berak ere bere anaia Yosef-en heriotzarako eresiak idatziak zituen.

21. "Laburtu dituenak": Jainkoak.

23. "Atsedenleku lasaian": cf. Is 32,18.

- Ai gazteenen! beren buruzagia eraman diete eta!
 Eta Jaunaren tresneria daramatenen, haien printzea erori zen eta!
 Torah-ren alde borrokatzen dutenen, ai, haien adoretsua hil baita!
 Ai harri sailduen, haien perla eta zafiroa gabe!
 5 Eta zeruko argizagien, argia ostu diete eta!
 Ai Talmuda arakutzen dutenen, haien kandela itzalia baita!
 Tiara ederrenen, haren diademaren ingurua kentzean,
 Jainkoarentzat eraiki eta altxatu zen koroa saildua!
 Ai, zein den handia nahigabea! Ai, haien esperantza eten baitzen!
 10 Jainkoaren mendi maitea, mendi handi, zabal eta goren,
 Libanoko loria, Karmelgo distira eta edertasuna.
 Haren gailura zeruetan da, eta izar artean haren burua!
 Haren gailurra...
- Nork dakike erran-nahia aditzen, Rabbi Baruk falta bada?
 Nork askatuko ditu korapiloak, haren eskuina ahuldu ondoren?
 15 Nork sorotsiko ditu zapalduak, haren belarria gogortzean?
 Nork ulertuko ditu haien nekeak, behin haren begiak itzali eta gero?
 Nork egartsuei urik emanen, haren iturriak agortu badira?
 Nork ditu gosetiak aseko, haren mahaiak kendu ondoan?
 Nork Jainkoaren bila ari direnei bultzada emanen, haren etxea erraustuta?

- 59) R. Baruk-en heriotzaz (ben Yişhaq Albalia, 1077-1126), Kordobako *dayyan* edo epailea bera, Sibiliako artronomo eta talmudista ospetsu baten semea, Yehudah ha-Levi-ren antzera, Yişhaq al-Fāsi-ren ikaslea izanik. Haren loba Abraham ibn Daud-en irakaslea izan zen. Eresiak, egituren errepikatzea estetika-baliabide gisa erabiliz, jakintsu horren heriotzak guztiei zer nolako galera ekarri dien nabarmentzen du. Azken estrofan, formula erretoriko gisa, zenduari senideak eta ikasleak abandonaturik uztea aurpegiatzen zaio. Zajal tankerako poema estrofikoa, hamaika bertso hiru estrofarekin, ondoan bi bertso errepikak dituela. Neurkera: *mişqal ha-tēnu'ot*, 6 + 6 silabako bertsoekin
1. Lit. "Abere xeheen kumeak". Cf. Je 49,20.
 2. "Daramatenak": cf. Is 52,11. Segur aski levitarrez ari da (Cf. Zen 3,8 hurr.) R. Baruk leinu horretakoa zela zehazki ez dakigun arren.
 3. Adoretsua": cf. 1Sm 17,51.
 6. "Arakutzen": cf. Es 20,27. Lit.: 'barruko egoitzak ikertzen'.
 7. "Tiara": cf. Ir 39,28 hurr.
 10. "Mendia": cf. Ps 68,17.
 11. "Loria": cf. Is 35,2.
 13. "Aditzen": cf. Qo 8,1.
 14. "Korapiloak": hau da lege-arazoak.
 19. Bertso honetatik aurrera, "haren" posesiboa, lehenago hildakoari zegokiona, herriari doakio.

- 20 Nor haren aitzinean joanen, haren hodeizko habea desagertu bada?
 Nork ene herriaren alde borrokatuko, haren aitzindaria hiltzean?
 Jada ez dago keretar ez peletarrik, haren epaitegia hondatu baitzen.
 Jadanik ez da gehiago atxiloturik ez askaturik izanen, moztua baita
 haren loria, haren palma eta ihia, haren errementaria eta arotza.
 Haren gailura zeruetan da...
- 25 Dendako lokarriak erauzi eta haren ortzia ilundu zen.
šě'ol-eko uholdeek alde guztietatik inguratu zuten.
 Nola utzi zituen bere ikasleak idorrik, bere irakaspen gozorik gabe,
 bere mintegiak erre eta bere landareen sustriak erauzirik!
 Nola hondatu zuen bere jabegoa, bere nekeak gutxietsita!
- 30 Nola ahantzi zen bere etxekoez, eta nola utzi zituen, arduragabe, ezagunak!
 Nola baztertu zuen haien laguntza eta lagunak saldu!
 Ez zen bere arrebez arduratu, haren zauriengatik negar egiten dutenez.
 Ez zituen bere besoen artean heziriko lobak ere aintzat hartu.
 Ez zituen bere semeak ere ezagutu, haren saihets artean bizi izanak.
- 35 ez eta *Yiṣṣaq* ere, beti negarrez ari dena, malkoak inork xukatzeke.
 Nola utzi zuen txikiena, haren arimarekin hain josirik bazegoen!
 Haren gailurra zeruetan da...

20. "Hodeizko habea": cf. Ir 13,21 hurr.

22. "Keretak, peletarak": cf. 2Sm 8,18; David erregearen mertzenarioak. Izena Sanedrinari ematen zaio, cf. TB *Bēraḳot* 4a eta, toki honetan R. Baruk ari zeneko auzitegiari.

23. "Atxiloturik ez askaturik": R. Baruk epailearen erabakiagatik, cf. Dt 32,36. "Moztua": cf. Is 9,13.

24. "Palma eta ihia": cf. Is 19,15. "Errementari eta sarrailagileak": cf. 2Erg 24,14.

26. "Uholdeek": cf. Ps 18,5 hur. Eskuizkribuaren *lectio difficilior*-a da.

27. "Irakaspen gozoa": cf. Ps 119,92.

34. "Ez zituen bere semeak ere ezagutu": Levik bezala, cf. Dt 33,9. "Haren saihets artean": 'Haren bihotzean'.

35. "Xukatzeke": cf. Is 25,8.

Ai alaba neurea! Ahantzia al dute zure etxea,
šě'ol-era partitzean, zure hilkutxa daramatenek?

Ez dut zurerik ezer, zure oroipena ez bada.

Zure hilobiko hautsaz errukitzen naiz

5 zutaz galdetzera itzuli eta zu ez zaudela konturatzean,
 herioak aldendu gaituelako.

Alaba, bere amaren logelatik aterea!

Nola biziko naiz haren itxura ene arimatik jalgia bada?

Harkaitzak urratzen ditut haren aurpegi ederra

10 zurbiltzen ari dela ikustean.

Han šě'ol-eanean, haren eztei egunean, dakusket

bere errezela nola altxatzen duen zokilekin

eta zeinen gozo zaion bere hilobiko lurra.

 Tristura sentitzen dut, ene alaba, tristura zure faltagatik,

15 Herioak aldendu gaituelako.

Sasoa baino lehen mozturiko arrosa,

horren irudia ene begien arteko filakteria izanik!

Nola isur daitezke malkoak, ibaiak bezala!

Nola estal daiteke hauts artean Hartzaren alaba!

20 Nola bete daiteke harrez eguzkia,

eta šě'ol-eko lokarriak haren buruaren gaineko durbanteak izan!

 Ai, alaba neurea, ez dago juje-epairik zu sendatzeko!

 Herioak aldendu gaituelako.

57) Ama batek bere alabagatik eginiko eresia. Ez da izen berezirik agertzen, eta badirudi egoera orokor horretarako bertsoak direla. Poema estrofiko errepikaduna. Sei estrofa ezberdin xamarrek. Bertsoek seina silaba luze dauzkate.

4. "Errukitzen naiz": cf. Cf. Ps 102,15.

6. Cf. Rt 1,17, errepika honek poema osoaren mamia bildu eta berraipatzen du.

7. "Alaba aterea": cf. Kt 3,4. Alaba ezkondu baino lehen hila da.

9. "Harkaitzak urratzen ditut": cf. Ps 78,15.

10. "Zurbiltzen ari dela": behin hilda gero kolorea galtzean.

12. "Bere errezela", *huppah* edo eztei-palioa, zeremonia lurpean egin beharko baita. Cf. Jb 7,5.

13. "Gozo": cf. Jb 21,33.

17. "Ene begien arteko filakteria": cf. Ir 13,16. Honela jartzen dira otoitz egitean. Une guztietan alaba gogoan izango duela esan nahi du.

19. "Hartza": izar multzoaz ari da, gorentasuna eta handitasuna aipatzeko.

20. "Harrak": cf. Is 14,11.

22. "Juje-epairik": cf. Je 30,13.

25 Erdi-hurrenaren oihua dantzukiot haurrik gabeko amari,
 Lasai ezazu, bere ariman tristura sentitzen baitu,
 Herioa haren balkoietara igo zelako;
 haren erraiak moztu ziren, aldendu zitzaion arima
 eta haren poza orro bilakatu zen,
 bihotzean landaturik zeukan mahatsondoa erauztean.
 30 Zer oihu egin dezaket, alaba neurea, zure belarria erdaindu gabea
 bada eta zure mihiak ez badu niri erantzuteko hitzik,
 Herioak aldendu gaituelako.

Ai, alaba neurea, biziki nahigabetu nauzu!
 Ai, ama neurea, ai ene, mundura ekarri nauzulako!
 35 baina gaur nola nauzun gaitzetsi!
 Herioaren primuarentzat hezi ninduzun:
 ene arimari bere aldia heltzean agur egin zenidan,
 hautsezko koroarekin ninduzun koroatu,
 eta Herioaren errezelpean eserarazi ninduzun,
 40 zeure nahiaren kontra, egia, ez zeure gogoz,
 Herioak aldendu gaituelako.

Bere manuak inoiz ezereztu gabe agintzen duenak
 eroraraz bitza zure sokak leku atsegingarrietara.
 Hain handia izanik, bere armadekin haserretzen ez denak,
 45 gupida izan eta eten ditzala haren izurriak
 eta kotsola dezala zoritxarretik bihotza.
 Berpitz zaitzala bere eurien ihintzarekin azken egunean
 eta indar dezala zeure eskuina bere esku zuzenarekin,
 Herioak aldendu gaituelako.

26. "Igo zelako": cf. Je 9,20.

27. "Arima": lit. 'loria', cf. 1Sm 4,21, 22. Amarenaz ari da.

34. Hemendik aurrera estrofa honetan alaba hila mintzo da.

37. "Aldia heltzean": cf. Est 2,12. "Agur egin zenidan", cf. Dt 21,14: 'herioarekin ezkontzera bidali ninduzun'.

42. Azken estrofan poeta edo elkartasunaren ordezkaria mintzo da.

43. "Zure sokak": cf. Ps 16,6.

47. "Azken egunean": cf. Dn 12,13.

Sinaiko egunean mendiak zuregatik dar-dar,
 Jainkoaren aingeruak aurkitu zintuzten eta,
 Torah marratu zuten zure bihotzaren harlauzetan
 eta buruan beren koroa ederrak ezarri zizkizuten.
 Ez lukete jakintsuek zutik egoteko indarrrik ukanen
 jakinduria erreguka eskatuko ez balizute.

Adiskide eta auzook, ene haurride zintzook!
 Ai! itzali dira ene begiak, etxetik atera ninduten,
 aurpegia ez didazue jada ikusiko ene seme-alabok.
 Itzul zaitezte ene jauregietara. Zergatik egiten duzue negar ene aurrean?
 5 Zuen atsekabeak nahigabetzen nau,
 'Ādonaik eskua ene aurka jaso baitu.

Ene gaitzak sendabiderik ez du, heriotzako egunean
 neure etxea utzi eta neure soroari uko egin niolako.
 Betiko da ene atsedena. Poztasuna ilundu egin zitzaidan,
 ene nahia zapuztu eta ene asmoak bertan behera gelditu ziren.

58) R. Yiṣḥaq al-Fāsī, Lucenan bizi izandako talmudista handia (1013-1103) hil zenean egina, Yēhudah ha-Levi haren ikaslea izana baitzen; haren lege-kodea garrantzizkoena eta hedatuena izan zen, Maimonidesena agertu arte. Poema osoa maisuarentzako gorespina da. Neurkera: *ha-šalem*.

1. Yiṣḥaq al-Fāsī 1103.eko Siwan-eko 10ean hil zen, Moisesi Sinai mendian Torah ematea ospatzen duen Šabu'ot jaiaren ondoan. Hortik poemaren hasiera. Hark Legeaz dakiena Sinaitik bertatik dator, Moisesekin konparatuz, laudorio goren gisa.

2. "Zure bihotzaren harlauzetan": cf. Es 3,3; 7,3, "Ezarri zizkizuten": cf. Ez 24,17. Torah-ren koroa ederrekin.

3. "Indarra": cf. 2Kro 13,20. Brit. Libr. 5557f.19 eskuizkribuan poema hau askoz ere luzeagoa da.

59) Deitorea hildakoaren beraren ahoan jarria da, entzuleen artean eragin handiagoa lortzeko. Ez du pertsona konkreturik aipatzen, izaera orokorrekoa da eta. Zajal tankerako poema estrofikoa, lau estrofa ezberdin xamarrekin. Bertsoak bi hemistikiotan banaturik daude, barne errimarekin, bakoitzak 5etik 7 silaba luze artera izanik.

3. "Ene aurpegia": cf. Has 44,23.

5. Errepika hau Rt 1,13-ren aipu zehatza da.

6. "Sendabiderik ez": cf. Je 15,18.

7. "Utzi": cf. Je 12,7.

8. "Ene atsedena": cf. Ps 132,14. "Ilundu": cf. Is 24, 11.

10 Zuen atsekabeak nahigabetzen nau,
 'Ādonaik eskua ene aurka jaso baitu.

Seme-alabak hazi nituen baina ezin nuen haiengan atseginik hartu:
alferrik ahalegindu nintzen, hilabete hutsalak izan ziren ene soroak,
neure denda lurpean jarri eta hobian murgildu nintzen:
šē'ol-era eraman ninduten neure apaindura ederrak erauzi zizkidatenean.

15 Zuen atsekabeak nahigabetzen nau,
 'Ādonaik eskua ene aurka jaso baitu.

Egizu dolu nigatik, herri neurea! Eramaiozu ene bakea
ene umezurtz gazteari! Hargatik naiz erruki ni!
Leku honetara ezin da sartu, ez irten: amaren sabelera itzuli nintzen,
ene bizitoki betierekora: eguargia ilundu zitzaidan ene hodeiak txit gora
igo zirelako.

20 Zuen atsekabeak nahigabetzen nau,
 'Ādonaik eskua ene aurka jaso baitu.

60

Ai, adiskide neurea, gaur ez duzu albiristerik ukanen
 Šēlomoh hil dutela niri esateagatik.
Alda ezazu ene bihotza, bihur ezazu zeure bertsoa auhen,
 hautsi berri baitzait, haren bakea espero nuenean.

11. "Seme-alabak hazi nituen": cf. Is 1,2.

12. "Hilabete hutsalak": cf. Jb 7,3.

14-15. "Erauzi": cf. Ir 33,6.

60) Bere adiskide Šēlomoh ibn Ferruzi'el, "Cidiello"ren loba, Aragoitik diplomazi misio batetik zetorrenean, 1108.eko maiatzean hil zutenean. Ikus 53. poema. Neurkera: *ha-mērubbeh*. Bertso biak hebrear hitz berberaz amaitzen dira, taʿyis-en arabiar teknikaz, paronomasiarekin.

1. Mezulariak eskuarki "albiristea", hau da, 'mezua eramateagatik ematen den saria' jasotzen du, baina berri ertun edo txarrak dakartzanean, ordainsaririk gabe geldi daiteke. Cf. 2Sm 4,10; 2Erg 7,9.

2. "Hautsi berri baitzait": bihotza.

Haurra, bera sorrarazi zuen sabeletik erauzi zuten,
 eta gurasoak, haren gabezia urduri,
 dardarka dio: gal bedi sortu nintzeneko eguna!

Mundu honetara jaio ez banintz,
 5 ez nukeen mutikoaren heriotza ikusiko!
 ez nukeen mutikoaren....

Nolatan gelditu naizen bat-batean
 hazi eta hezi nuen seme hori gabe!
 Hautsetan sartzen dut neure bekokia,
 haren edertasunagatik hil bainaiz.

10 Harekin bantatzea espero nuen,
 eta hartaz harro nengoen etorkizunerako,
 zetorkidana jakin gabe.
 Ez nukeen mutikoaren...

Urrikal, urrikal zakizkidate zuek, adiskideok!

Jaunak ene beso artetik hartu du
 15 ene begietako argia, ene poz-atseginen semea.
 Neure malkoen uraz garbitu dut,
 eta neure saihetsen artean ehortziko,
 une oro erran ahal izateko:

“Ene bihotza, ene bihotza, ene erraia, errai enea!”
 20 Ene bihotza hil baitzen haur hori zendu zenean!
 Ez nukeen mutikoaren...

61) Mutiko baten heriotzari eginiko eresi orokorra. Zajal tankerako poema estrofikoa, sarrerarekin eta estrofa aski ezberdin bi dituela. Bertsoek, oro har, 8na silaba luze dauzkate, neurkera silabikoan.

2. “Gabezia”: ‘urrunaldia’ hebreerazko hitzari rabbien literaturan ohi duen balioa emanez.

3. “Gal bedi ...eguna”: cf. Jb 3,3.

5. “Ez nukeen ikusiko”: cf. Has 21,16.

7. “Hazi nuen semea”: cf. Is 1,2,

8. “Hautsetan sartzen dut”: cf. Jb 16,15.

9. “Hil naiz”: cf. Ez 28,8.

11-12. “Harro nengoen ... zetorkidana”: cf. Es 27,1.

13. “Urrikal”: cf. Jb 19,21.

16. Juduen ohituraren arabera, gorpua ikuzi egiten da.

19. “Erraia”: cf. Je 4,19.

Zakuzko jantzia darama printzesak bere senarragatik.
 Babesik gabe gelditu eta ustekabeen haren denda erantzi zuten.
 Haren bozaren tristurak bera dantzunaren bihotza urratzen du.
 Ez du nahi dolua kontsola diezaioten.

5 Trata ezazu emeki, arima mindurik dauka eta!

Bihur bedi haren heriotzako eguna iluntasun!
 Jakintsu bat hil zen, Mišnah eta Talmud doluz daude.
 Nola iraunen du zutaberik gabe haren etxeak tente?
 Bere lan guztietan zorionekoa zen eta onetsia.

10 Urrezko menorah osorik garbia!

Lurrak bere bizilagunak irensten ditu.
 Nola ezkututzen dituen hautsetan bere izarrak!
 Ez bedi hartaz fida bere egoiliarren bihotza,
 ez baita zintzoa bera maite eta gorrotatzen dutenekin.

15 Eta niri ere bihar deituko dit!

Kantoi-harria bere herrira itzuli zen.
 Jainkoari bere arima eskaini zion, oparizat.
 Zeruek haren arima irrikatzen zuten.
 Eta lurrak haren gorputza zuen nahi
 20 eta dei egin zion berarekin etzan zedin.

62) Senar baten heriotzagatiko eresia, segur aski balio orokorrekoa. Zajal tankerako poema estrofikoa, bost estrofarekin, 9 silaba luzeko bertsoz osatuak, neurkera silabikoan.

1. "Zakuzko jantzia": doluaren seinale. Cf. 2Sm 3,31; Jl 1,8.
2. "Babesik gabe gelditu": lit "bere itzalak alde egin zion", cf. Zen 14,9; Je 4,20.
3. "Urratzen du": cf. Jl 2,13.
4. "Dolua kontsola diezaioten": cf. Has 37,35.
5. "Trata ezazu emeki": cf. 2Erg 4,27.
6. "Bihur bedi egun hura iluntasun": cf. Jb 3,4 hur. "Haren heriotzako eguna": lit. 'aldentze-eguna, urruntze-eguna'.
8. "Haren etxea": Mišnah eta Talmud liburu sailduena.
10. "Menorah": 'argimutilla', cf. Za 4,2.
11. "Lurrak irensten ditu": cf. Zen 13,32.
12. "Hautsetan estali": cf. Jb 40,13.
15. "Niri ere": cf. Est 5,12.
16. "Kantoi-harria": cf. Ps 118,22.
20. "Dei egin zion": cf. Est 5,12; Jb 39,10.

Bere manuak inoiz ezereztu gabe agintzen duenak
isur beza haren hilobi gainera bere eurien ihintza.
Kontsola ditzala harengatik doluz daudenak
eta gida dezala atsedeneraino haren arima.

25

Dagokion atsedentokira!

22. "Ihintza": cf. Is 26,19.

24. "Atsedentokia": cf. Ps 23,2.



vint: fair

vint: fair



GOGOETAK ETA IGARKIZUNAK

*Gaua eta eguna ene aurkako bi basapiztia ditut,...
Nor da, begi eta betazalik gabe, negar egiten duena....?*



חידות ושירי מוסר

ליל ויום עלי שתי חיות

ומה-בוכה בלי עין ועפעף...?

Zoriaren morroiak esklaboen zerbitzari dira,
 Jainkoa zerbitzatzten duena da aske bakarra;
 horregatik, gizakiek beren atala eskatzen dutenean,
 “Jauna da ene zatia” dio ene arimak.

Lasterka noa egiazko biziaren iturrira,
 eta horregatik azalekoa eta hutsala mesprezatzten dut.
 Neure Erregearen aurpegia erdikusi besterik ez dut nahi:
 Bera jauresten baitut, beldurrez, eta beste inor ez.
 Oi bera ametsetan ikus ahal baneza!
 Betiereko loan nengoke sekula itzartu gabe.
 Haren begitartea neure bihotzaren barruan banekusa,
 ez lukete ene begiek kanporantz so egin nahiko.

Zergatik fidatzen zara Zoriaz, egiati ez bada?
 Ai, handia da ene nekea eta laburra, aldiz, bizia!
 Gizakiak hurkoari bekatutik saihesteko aholkua ematen dio,
 esanez: “Saia zaitez grinak engaina ez zaitzan”.
 Baina bekatu dagienean, honela dio: “Zer egin dezake gizakiak?
 Sorkariak eta grinak oro Sortzailearen eskuan daude!”

- 63) Jainkoaren peko menekotasunak ez bestek ematen dio gizakiari askatasuna. Paradoxa itxuraz. Neurkera: *ha-mahir*.
1. Judutar tradizioirik garbienaren bidetik. Cf. TB *Qiddušin* 22b: “Israelgo semeak ene morroiak dira, eta ez morroien morroiak...”
 2. “Beren atala”: dagokiena, Zoria beren alde egotea. “Ene zatia”: cf. Nk 3,24.
- 64) Joera mistikoan ia. Poetak Jainkoaganako maitasuna adierazteko maitasun-generoko hitzak darabiltza. Neurkera: *ha-šalem*.
1. Cf. Ps 36,10; Je 2,13.
 2. Cf. Ir 34,24; Is 8,12; Jb 31,34.
 3. Cf. Je 51,39.57.
- 65) Gizakiaren dilemaz, alde batetik iragankor eta tentsiopean, egin nahi lukeenaren eta bera darabilten kanpoko botereen artean: Jainkoa eta, beste maila batean, Zoria. Arabiar poesia aszetikoaren gai karakteristikokoak (*zuhd*). Neurkera: *ha-šalem*.
- 2-3. Gutxienez bi irakurketa egin daitezke: a) giza ahulezia ulertzea, eta b) ironiaz ez dugula neurri bera erabiltzen gainerakoak eta geure burua epaitzerakoan “Grina”: *yešer (ha-ra’)* rabbi-literaturaren hitza da, gizakiak gaizkia egiteko daukan joera adierazteko. Hispaniako hebrear literaturan “Denboraren” edo “Zoriaren” figurarekin nahasten da, arabiarrengandik jasoa berau.

Usoa belearen habian pausatu zenean,
 pentsatu nuen: Ai, jadanik piztia bere gordelekuan da.
 Hobe da belearen goizeko belztasuna
 usoaren arratseko zuritasuna baino.

Eguargiak azala argituko zidala uste nuen,
 baina eguneko izarrak, biraka, ilea zidan zuritu.
 Esan nuen gauek belztasuna itzuliko zietela ene biloei,
 baina aurpegia ilundu zidaten.
 Gaua eta eguna ene aurkako bi basapiztia ditut, eta
 ihesbide bakarra hartzaren hortzetik lehoiaren ahutzera joatea da.

Ene buruan ile zuri bakarti bat agertu zenean
 eskuarekin atera nuen;
 eta berak esan zidan: “bakarrik nagoelako atera ahal nauzu,
 baina zer egingen duzu ene atzean oste osoa hel dadinean?”

- 66) Genero honetako arabiar poesiak gehien jorratu duen gaia da. Irudiak eta motiboak errepikatu ohi dira, trebetasun handiko hitz jokoetarako aukera emanez. Hebrear poesian bibli aipamenekin tartekatzen dira. Neurkera: *ha-mahir*.
1. Usoak ile zuriak irudikatzen ditu; beleak, ordea, ile beltza. “Bere gordelekuan da”: Jb 37,8-en hitzez hitzeko aipamena.
 2. Gaztaroa / zahartzarora. Hebreeraz ‘belea’ (ערב *’orev*) eta ‘arratsa’ (ערב *’erev*) oso antzekoak dira eta horiekin aliterazioa sortzen da.
- 67) Zahartzaroaren saihets ezineko etorreraz paradoxa eta kontraste jokoak egiten ditu. Generoko ohiko gogoetak, arabiar fatalismoaren ukituren batekin. Neurkera: *ha-šalem*.
2. “Biloak”: ileak
- 68) Zahartzaroaren nahitaezko etorreraz. Neurkera: *ha-měrubbeh*.
2. Cf. Jb 19,12.

Gaztaroko egunak! Zer da gu bion artean?

Zein ongi edertzen dizkiozuen gezurrak bihotzari!

Ene buruan hamar bat agertu dira,

beltz barik zuri hazirikoak.

Gizonaren lagunak zarete, bera bizi arteraino,

baina *šě'ol*-ean ez zarete haren adiskideak izanen.

Ezingo nauzue luzarago engaina;

atzipe itzazue beste batzuk, nahi baduzue;

5 horrela eginez gero, diozuenez, Jainkoak barkatuko ditu

hoben ageria eta bekatu estaria;

arrazoirik baduzue eta hori egin ahal badezazue

ezaba ezazue liburuetatik ene zorra!

Oi bihotz neurea, zergatik harraie aberastasun-ondasunei?

Zergatik habil lasterka Zori oker eta gaiztoaren atzetik?

Begira, haren mantuaren hegaletik tira egiten duten guztiei

azkenean segada egiten ziek.

Zoriaren gaiztakeria ageria duk eta hik,

bilatu beharko ez hituzkeen handikeriak irrikatzen dituk.

69) Gaztaroko urteen etsipena, zahartzaroa heltzean. Arabierazko goiburuan poema hau egiazki Yēhudah ha-Levi-rena ote den zalantzan jartzen da. Neurkera: *ha-dohar* (gutxitan erabilia).

1. Cf. 2Sm 16,10.

2. Hamar ile zuri horiek gaztetasunak ez dirauela betiko gogoratzen dio, eta, ondoren, gaztaroko egunekin hasten da hizketan.

5. "Horrela eginez gero": gogoeta handirik egiteke, gaztaroko alaitasunak eta bere promes faltsuek bultzaturik.

6. Jainkoak gizakien bekatuak idatzirik dauzkan liburuetatik, alegia.

70) Gehiegizko handinahikeriaren aurka, jakintzako literaturako eta arabiar poesiako gaiak tartekatuz. Neurkera: *ha-mērubbeh*.

1. Zoriak, arabiar kontzepzioaren arabera, gizakia esperantza faltsuekin erakartzen du, geroago zapuzteko. Cf. Es 8,8.

2. Cf. Rt 3,9. Zoriaren mantuaren hegaletik tira egiten du babes eta laguntza bila.

3. Cf. Je 45,5. Honela ere itzul daiteke: 'Eta hi handikerien atzean al habil? Ez itzak bila!'

- Ene arima zizpuruka erretzen ari da aitaren etxeagatik,
 eta ametsetan ere hura ikustera igotzen da.
 Igotzen da erremediorik aurkitzeke, ametsak ez baitu
 arima sendatzen, eta itzartzean gaixorik sentitzen da.
 Gaixorik sentitzen da Hari otoitz ezin egin dionean,
 eta Horren loria eta argitasunik gabe agortzen da.
 Agortzen da baina biztuko da, nekatu da baina poza aurkituko du,
 anabasan galdu ez zelako, erbestera joatean.
 5 Erbestera joatean iturriko ateak ireki zituen,
 baina haren begiak ur sakonei adi gelditu ziren.
 Adi gelditu ziren tantaiari so, eta promes-zinak egin zituen
 jakinduria ez zuela behin ere bazterrean utziko.

Eguzki-Ilargiek beren zerbitzua beteko dute sekulako,
 ez dira egunaren eta gauaren legeak ezereztuko.
 Seinaletzat baliatuko zaie Jakoben ondorengoei,
 beti herri bat izanen direla eta ez dela behin ere birrindua izanen.
 Alde batetik arbuiatzen eta bestetik erakartzen badituzte,
 ez dezatela esan “uko egiten dugu” burua zapaldurik ikustean,
 baina sinets bezate betiereko direla izanen, eta ez direla
 desagertuko harik eta egunak eta gauak amaitu arte.

- 71) Ukitu neoplatonikoekin poetak Sionez eta bere Sortzaileaz duen nostalgia adierazten du. Bertso bakoitza aurrekoaren azken hitzak errepikatuz hasten da. Neurkera: *ha-šalem*.
1. “Aitaren etxea”: edo beste irakurkeraz “*Bet 'El*”, hau da, ‘Jainkoaren etxea’. Aitaren etxea, ororen gain, Sion da, bertako Santutegiarekin, baina, era berean, adiera neoplatonikoan ere uler liteke: ‘zerua’.
 - 2-3. “Gaixorik”: maitasunez, maitasunezko poesian ohi den bezala,
 3. “Agortzen da”. Cf. Has 18,12.
 4. “Baina poza aurkituko du”: edo beste irakurkera baten arabera “igoko da”. Cf. Is,25,18. “Erbestea” hitzak ulerkera bikoitza onartzen du: “zerutik” edo “Siondik” kanpora. Azken bertsoak ulerkera neoplatonikoaren alde egiten du: jakinduria bere jatorrizko lekura igotzeko bidea dela” alegia.
 - 5-6.-“Iturria”: jakinduriarena, Š.D. Luzzatto-ren iritiz, 6. bertsoko “tantaia” bezala. Cf. Zen 30,4.
- 72) Je 31,35 hur.-ren glosa poetikoa: itxaropena erbestean den herriarentzat. Neurkera: *ha-šalem*.
1. “Beren zerbitzua beteko dute”: darabilen aditza liturgi zerbitzua konplitzen duten apezek edo levitarrek egindakoa aipatzeko erabiltzen den berbera da.
 3. Cf. Qo 12,3
 4. Cf. Has 8,22.

Lo zorroan zeuntzan eta ikaraz itzartu zinen.

Nolakoa zen egin zenuen amets hori?

Agian zeure etsaia erakusten zizun

ahul eta makurturik, zu goian zinen artean?

Esaiozue Agar-en semeari: ken ezak heure esku harro hori

heure anderearen semearen gainetik, madarikatu huenagandik!

Umiliatu eta hondaturik ikusi haut ametsetan,

eta agian itzartzean jada suntsiturik egonen haiz.

5 1130 urtean heure harrokeria desegina izanen zaik,

eta heure azpikeria guztiez gorrituko haiz lotsaturik.

Hi, “giza basastoa” deitua izan hintzena,

zeinen astuna izan den hire eskua, zeinen boteretsua izan haizen!

Hi, “gauza handiak esaten dituan ahoa” ezizenaz ezaguna,

zeruko sainduekin borrokan ibilia,

Hi, lokatz buztintsua, burdinazko oinduna,

azkena heldu eta gailurrera igo hintzena.

Aiheza Jainkoak jo estatua zauritzen duen harriaz,

eta egin huenagatik gatziga!

73) Amets baten itxurapenean, arabierazko goiburuan adierazten denez, poetak Islamari, hots, haren ustez amiltzear dagoen laugarren erresumari, Dn 2,40 hur. aipua aplikatzen dio; pasarte horien exegesi tradizionalaren arabera, amileraren data 1130. urtea litzateke, Abraham Bar Hiyya'-k ere aipatua. Neurkera: *ha-šalem*.

1. Cf. Has 37,10.

2. Cf. Is 2,11.

3. “Agar-en semea”: Ismael, arabiar herriaren asaba zaharra, Pentateukoaren arabera. “Heure andrea”: Sara, Isaak-en ama, judutar herriaren jatorrizko ama. Cf. Has 16,8. “madrkatu huena”: o “zeinekin haserretu hintzen”, cf. Za 1,12.

5. Paronomasia: urtearen zenbakia (ר"תס *ttš*), judutar kalkuluaren arabera, “desegina izanen zaik” esan nahi duen hitzaren antz-antzekoa da (ר"תס *tuttas*). Yēhudah ha-Levi-ren garaia oso emana zen mugimendu mesianikoetarako eta denboren amaieraz kalkuluak egiteko.

6. “Giza basastoa”: cf. Has 16,12; Dn 8,24.

7. “Gauza handiak esaten dituan ahoa”: cf. Dn 7,8. Mošeh ben Maimon (= Maimonides)-en *Yemengo juduentzako gutuna*-ren arabera, aipamen hori Mahomet-i doakio. Cf. J. Targarona-ren erdal itzulpena, *Carta a los Judios del Yemen* 155. orr. Cf. Dn 7,21.

8. Cf. Dn 2,33. “Azkena”, edo “denboren amaieran”.

9. Cf. Dn 2,34; Jb 41,3.

Ez naiz gonbidatua izan, ustekabeen pasatzen nintzen hemendik,
 eta ez nago zuen kontuan sarturik;
 ez banentor inork ez luke ene falta nabarmenduko,
 eta aurkituz gero ere, ez nindukete nahiko.

Begira abar labur eta balio gutxiko horri,
 urre edo zafiroarekin ezin konpara daitekeenari.
 Zauririk gabe ere kolore larua du, sendabide gabearen antzera,
 gorputza maite-minez gaixorik balego bezala.
 Maitale-aurpegiarekin eta tiranoaren bihotz fermuarekin,
 bera erretzen duen maitasunak irentsiriko gorputzarekin.
 Enbor hutsarekin, aldakak esturik eta ongi hornitua;
 gizonak ahuldu eta heroiak apaltzen dituena.
 5 Putzura lasterka doa, hordia edalontzira bezala,
 egartsua iturrira hurbiltzen denez, asetzeko.
 Txua falta duenean, bere ahoko lehoi-hortzek
 ez diote uzten bere egitekoa nahi bezala betetzen.
 Bost zerbitzari ditu, aholkulari,
 haien maitasunaz gozatuz bizitza osoa betetzen du.
 Poesia da haren lana eta bere egileari ospea ematea:
 horrelaxe ditu errege eta printzeak lausengatzen.
 Haren lanak gudurako balio du eta bakerako ere bai,
 batzuetan bizia du ematen eta bestetzuetan, aldiz, birrintzen.

[kalamua, idazteko kanabera]

- 74) Bera gonbidatu ez zuten jai batean. Epigrama benetan trebea, aliterazioz, errepikapenez eta hitz jokoz asean. Neurkera: *mišqal ha-těnu 'ot*.
 1-2. Paronomasia: lehen hemistikioan hebreerazko hitz berbera errepikatzen da bi esangura ezberdinez (egia esan, erro ezberdineko bi hitz dira). Gauza bera gertatzen da bigarren bertsoan ere.
- 75) Trebetasun handiko poema, garai hartako ohiturekin bat datorrena. Egileak, azaldiriko gauzaren inguruan kontrasteak ezartzen ditu hitzetan eta irudietan, poemaren zati batean hura pertsonifikatuz. Testuinguru horretan oso deigarriak dira Yēhudah ha-Levik, maitasunezko poesiatik harturik, darabiltzan elementuak. Neurkera: *ha-mērubbeh*.
 1. Cf. Jb 28,16; La 4,2.
 2-4. "Larua": 'horixka, gaixoen kolorea'. Ahultasun itxura du, maite-minez jota balego bezala, baina botere handia dauka gizakien gainean.
 5. "Putzura": tintontzira.
 6. "Txua": tinta.
 7. Eskuko hatzak, erhiak, cf. Jb 21,13.
 8. Cf. Es 19,6.

76

Zein gorpuk, lurraren gainean jaurti eta,
gizakiek biluzik ehortziak,
bere hilobi barrutik birpiztu eta kumeak
sorrarazten ditu, jantzirik guztiak?

[b'ihia, hazia]

77

Nor da, begi eta betazalik gabe, negar egiten duena
txiki eta nagusiei poza ematen dieten malkoekin
eta barrezka dabilenean, negarra ez darionean,
bere irribarrerekin bihotzak oro tristatzen dituen?

[hodeia]

78

Zein da errege hori, kapela gorritz jantzia,
mantu urdin, zuri eta brodatua duena,
ibilera harro eta hanpurusekoa
lo dautzanak bere bozarekin iratzartzen dakiena?

[oiarra]

- 76) Kontrasteetan oinarrituriko poema: gorpua / birpiztu eta kumeak sorraza; biluzik / jantzirik.
Neurkera: *ha-mërubbeh*.
- 77) Beste poema formalista bat, kontrasteetan oinarritua. Neurkera: *ha-mërubbeh*.
1-2. "Negar egiten duena": euria. "Barrezka": zeruan hodeiak irekitzen direnean, euririk ez dagoenean.
- 78) Poema formalista. Neurkera: *ha-mërubbeh*.



SINAGOGA-POEMAK

*Usua, zergatik kexatzen zara hainbeste
zinkurin eta zizpuruz?*



שירי קודש

יונה, מה-לך מקוננת תרבי תלנות ואנחות?

O Jainkoa! Non zu aurkituko? Gorena bezain gordea da zure lekua.
Non ez zaitut topatuko? Zure loriak unibertsoa betetzen baitu.

Barruan bizi denak Lurraren muturrak jaso zituen;
hurbilentzat gorena da, urrunekoentzat segurua.

- 5 Zu kerubinen gainean zaude jarririk, Zu zeruetan zara bizi.
Zeure armadak goretsi arren, Zu laudorioak baino gorago zaude.
Esferak ezin ingura zaitzake, eta are gutxiago Tenpluko atariak.

Haien gainera igotzean, tronu goren eta jasoan,
haien ondoan zaude, are hurrago haien izpiritu eta gorputzak baino.

- 10 Haien ahoak, beren kontra, haien Harkaitza Zeu bakarrik zarela aitortzen du.
Nor ez da zure beldur izanen? Zure erregetzaren uztarripean dira!
Nork ez dizu deirik eginen? Zeu baitzara elikatzen dituzuna!

Zure laguntza eske ibili nintzen, bihotz osoaz zuri deiez,
eta zure bila irtetea, neure aitzinean aurkitu zintudan.

- 15 Zure mirari harrigarrirei esker Santutegian zuri begira egon nintzen, adi.
Nork esan dezake ez zaituela ikusi? Zeruek eta haren armadak
zure beldurra aldarrikatzen dute, beren boza inork entzun gabe.

Egia al da Jainkoa gizakiarekin bizi dela?
Zer pentsa dezakete oinarria hautsetan dutenek?

- 20 Zu zara haien gorespeneren eta loriaren artean egoitza duzun Saindua.
Zure mirespena aldarrikatzen dute goietako bizidunek:
Haien gainean zure Tronua nabari da, eta zuk guztiak goratzen!

79) *'Ofan*, gorespen-poema aingeru koruen aipuekin, 2 Kro 6,18 glosatuz. Jainkoaren eta berak sorturikoen arteko urruntasuna gora behera, Hura horien artean bizi da. Muaxaha itxurakoa, estrofikoa, errima birekin. Lau estrofa, 6 + 6 silaba luzeko bertsoekin, neurkera silabikoan; bukaera hebreeraz dauka. Akrostikoa: *Yēhudah*.

3. "Barruan": gizakiaren bihotzaren barruan. "Igoarazi": cf. Es 30,4.

5. "Kerubinen gainean": cf. Ps 99,1; 1Sm 4,4,

6. "Zeure armada": segur asko, Israel, cf. Ir 7,4; zeruko armadak ere izan litezke.

7. "Tenpluko ataria": cf. 1Erg 8,27.

8. "Tronu goren eta jasoan": cf. Is 6,1.

14. "Zure bila irtetea": cf. Es 7,15.

15. "Zuri begira egon nintzen": cf. Ps 63,3.

17. "Beren boza inork entzun gaberik": cf. Ps 19, 2 ss.

20. "Haien gorespeneren... artean": cf. Ps 22,4.

21. "Aldarrikatzen dute": cf. Ps 89,6. Izaki bizidunek, cf. Ez 1,5 hurr.

22. Jainkoa Tronua eta zeruko esfera daramatenen euskarria besterik ez da, hau da, unibertso osoarena.

- Ene Jainkoa! Norekin konparatuko zaitut,
 ezeren antzik ez baduzu?
 Zerekin zaitut irudikatuko,
 itxurak orok bere gain zure zigilua badarama?
 5 Ahalmen guztien gainean igoa zara,
 eta edozein pentsamendu baino jasoagoa.
 Nork eduki zaitzake bere hitzen barnean,
 eta nork ulertu zaitu bere mintzairan?
 Ba al da zuregana iritsi den bihotzik,
 10 eta zu erdikusi zaituen begirik?
 Nori eskatu ahal zenion aholkurik, aditzeko,
 Zu baino lehenagokorik inor ez bada?
 Hona: mundu hau aldarrika ari da
 zutaz gainera beste Jainkorik ez dela esanez.
 15 Zure jakinduria gauza orotan nabari da
 eta guztietan zure zigiluaren seinalea da ageri.
 Mendiak sortu baino lehen,
 eta zeruetako habeak eraiki aitzin
 jainkozko egoitzan bizi zinen jada,
 20 sakontasunik ez goratasunik ez den tokian,
 orori eusten zeniola, Zerori ezein euskarriri atxiki gabe.
 Bihotzak ezin zaitzake konpreni,
 eta mihia neke du zu definitzea.
 25 Jakintsuen gogoetak nahasi,
 eta adituen kontzeptuak kordokatzen dira.
 Laudoriotan nagusia deitua zara,
 Baina Zuk laudorio guztiak gainditzen dituzu.
 Sendotasun handikoa izanik, nola harritu duzu?
 30 Zeuk beteak baitaude zeru-lurrak.
 Sakon-sakonean aurkitzen da Bera, nor haraino iritsiko?

80) *Silluq*, inoiz *qēduššah* gisa ere sailkatua izan zen arren. Poema hau, “Sorkuntzaren himnoa” gisa izendatua, José M^o Millás Vallicrosa hebraista handiaren ustez, Šēlomoh ibn Gabirol-en “Erregekoroa”rekin batera, Sēfaradeko juduek egindako poema sinagagal gorena da. M. Mishorren oharrari jarraikiz, poeman erresuma hitza naturaren hiru erresuma nagusien antzera erabilia da, hots, mineralena, landareena eta animaliena, baina hemen, psalmoaren arabera (Ps 103, 20-22) honako hauek dira 1) aingeruen erresuma, 2) zeruko osteena (astroen eta Jainkoaren gurdia daramaten izakiena) eta 3) Lurraren eta Lurreko izakien erresuma. Akrostikoa: *Hebrear alfabetoa. Yēhudah ha-Levi bar Šēmu’el*. Metrika askea. Segida erritmiko parekatutan osaturik dago, bakoitzaren bukaeran 104. psalmoaren pasarteak, errepika gisa, txertatuz.

5. “Ahalmen”: lit. ‘karroza’.

27. Cf. Ir 15,11.

eta oso urrun da, nork ikus dezake?
 Zure obrak, horiek dira agerpena,
 Biltzar sailduarekin duzun zintzotasunaren pareko.
 35 Halere, zure justizia eskuragarria da,
 eta zure legea jakingarria.
 Zure grazia konbertituek hurbil dute,
 baina bidetik saihestuek oso urrun.
 Arima garbiek behatzen dizute,
 40 eta arima orbangabeek antzematen zaituzte
 argi beharrianik gabe.
 Beren pentsamenduen belarrietan zaituzte entzuten,
 haien tinpanoak gorturik egon arren,
 Zure saildutasuna etengabeki aldarrikatuz:
 45 “Saildu, saildu, saildua, armadetako Jainko jauna!”

Armadetako Jainkoa, hori duzu zure erregetasunaren izen handia,
 Jainko Bakarra zure jainkotasunaren izena izanez:
 Zure erregetasunaren handitasuna ezin daiteke adieraz ez konta,
 Eta zure jainkotasunari ezin zaio deus besterik erantsi.
 50 Zenbat izpiritu miresgarrik distirutzen dute zure aitzinean!
 Eta zenbat ez dira urrundik besterik ikusten!
 Zeure gurdiko zutoihalak eraiki zenituen seinale eta lekuko gisa,
 gauza oro armaden Jainkoagandik datorrela erakusteko.
 Haiek guztiak dituzu jopu, zeure indar handiko
 55 bisaiaren zerbitzari, zeure nahiaren betearazle.
 Zure sorkarien begietarako ezin ikusizkoak izan arren,
 ongi dakuskite, ordea, zure profeten begiek.
 Horiei “urrunak” eta “hurbilak” esaten zaie,
 eta, urratsik gabe, badoaz eta badatoz.
 60 Haien mugidak ene Jainkoarenak dira, errege sailduarenak;
 Jauna Sinaira jaitsi zen sailduki.
 Zure baimenaz mintzo dira,
 Zure borondatearen arabera obratuz.
 Horregatik, haien hitzak entzuten dituztenek aitor dute,
 65 zure ahoa dela haien ordeztatu zena.
 Haiek, beren tropekin lehen erresuma osatzen dute,
 zeruetako armadak haien ezkutariak direla.
 Munduko argiak haien ondoan du bizileku,
 eta bakea haien dendetan aurkitzen da.
 70 Jakinduriaren iturria haien aldamenetik jalgi zen
 eta haien inguruan biziaren urbegia zen kausitu,

45. Cf. Is 6,3.

iluntasun beltzetik urrun,
 akats guztietatik eta heriotzatik landa.
 Zorionekoa haiekin bil daitekeena,
 75 egunez eta gauaz, haien himnoekin gorestekeo,
 kantuz, Davidek bere koruen buruan bezala:
 “Bedeinka ezazue Jauna, bere aingeruok!”

Bigarren erresuma zeruko armadak eratzen du,
 eta zure orgako piztiek, bizkarra begiz betedunek
 80 etengabe eskuin-ezker higitzen dituztenek,
 munduaren erpinean pausatuz.
 Haien aurrean izarren orbitak altxatzen dira,
 zure presentzia adoratzeko irrikaz.
 Milaka zutoihal, armadak eta armadak,
 85 guztiak jakintzaz hornituak, jarduteko sendo.
 Haien atzean eguzkia eta ilargia dira jaikitzen,
 zein bere lekuan, agertzen eta argitzen.
 Haiei izar distiratsuak oro gaineratzen zaizkie,
 anitz ahalmenen jabe,
 90 eta azken zeruak zaizkie eransten,
 haien gaineko urekin batera.
 Zeinek bere zereginean zerbitzatzeko gogoaz,
 guztiak beren xedera abiatzen dira,
 segada-eragozpenetan behaztopatu gabe.
 95 Ez da haien artean okerrik ez eta faltsurik ere,
 eta bakoitzak laguna onesten du,
 honi, ordainez, besteak ongi ikusia emanaz.
 Baterak kantatzen dute, ahotsak goratuz
 Jaunaren, Unibertsoaren Jainkoaren izenean.
 100 Bere psalmoetan haiei egiten zien hots kantariak:
 “Bedeinka ezazue Jauna, bere armadak!”
 Hirugarren erresuma eta haren leinua
 Lurrak eta beronek dauzkan orok osatzen dute,
 Haize- eta su-boladek beren ondorioekin,
 105 oro inguratzen duten urak,
 altxor gisa gordetzen dituen elur, txingor eta suzko uholdeek,
 eta haren manuak betetzen dituen haize erauntsiak,
 eta itsasoek, beren urekin, haren aginduz hedatuek,
 eta Libanoko oihanak, bere jakinduriaz irunak,

77. Ps 103,20.

79. Ez 1,18.

91. Cf. Has 1,7.

101. Ps 103,21.

106. Cf. Ps 148,8.

- 110 ereiteko barazki bigunak, eta landatzeko zuhaitzak,
eta landetako belarrek, lauoinekoaren janari direnek.
Itsasoetan arrainak eta baleak higiarazi zituen,
Eta hegaztiak ugaltu, zein bere motaren arauz.
Mahaia prestatu zenuen, eta ondoren Lurrak
- 115 lauoinekoak, narrastiak eta piztiak zituen ugaltu,
guztia gizonaren, zure ordezkoren eskuan uzteko;
bera zeure eskuz sorturiko ororen jauna eginez,
haren lepotik errege-leinua ilkiaraztea pentsatzen zenuelako,
apaizen erreinu eta aingeruen kanpaleku.
- 120 Zure izen saindua gorets zezaten sortu zenituen,
guztiak bilduz, zure laudorioetan poz zitezten.
Haiek guztiek sainduetsi eta gorai patzen zaituzte,
eta haurren eta gazteen ahoan sendotasuna ezarri zenuen.
Handitua izan bedi zure erresumaren loria, gauza ororen gainean
- 125 zure obra bete eta zure mezua daramatenen ahotik!
Horrexegatik, lauda bedi haren egilea psalmo bigunaz:
“Bedeinka ezazue Jauna, bere obra guztiok!”

113. Cf. Has 1,21.

115. Cf. Has 1,24.

127. Cf. Ps 103,32.

- Zeu izan zara betidanik maitasun-habia:
 Zu non ere gelditu, hantxe pausatzen ziren ene amoreak.
 Zure Izenagatik ene izterbegien agirakak atsegin ditut.
 Utz itzazu! Zuk oinazetu zenuena dute oinazetzen.
 Zure haserretik ikasi zuten ene etsaiek; eta nik maitatu behar ditut,
 zuritu zenuen ehizia jazartzen dute eta.
 Gaitzetsi ninduzun egunetik, mesprezatzen dut neure burua.
 Ez dut nik ohoratuko zerorrek erdeinatzen duzuna!
- 5 Harik eta zure hira ematu eta berrerospen berria igorri arte
 aurretik berrerosi zenuen soro honetara.

- 81) *'Ahābah*, Israelgo herriak erbestean duen egoeraren agerrera zirrargarria, bere erruagatik eta Jainkoaren haserrearen ondorioz. Juduen etsaiek Jainkoaren jarrera mindua imitatu besterik ez dute egiten. Halere, askapenerako esperantza ez da ezabatzen. Schirmann-ek azpimarratzen duenez, antzeko ideiak ageri dira *Kuzari* liburuan ere (I,113 hurr.). I. Levin-ek frogatu duenez, lehen lau bertsoak Abū-'l-Šiṣ-en arabierazko poema baten itzulpenak dira, agian gure poetagana sufitar iturrien bidez heldua. Azken bertsoan baina, Yēhudah ha-Levik juduen ikuspuntua adierazten du. Neurkera: *ha-šalem*.
1. “Zu non ere gelditu”: cf. Zen 9,17. Egiptoko basamortuan zeharko ibilaldiaz ari da.
 3. “Zauritu zenuen ehizia”: cf. Ps 69,27.
 4. “Ez dut ohoratuko”: cf. 1Sm 2,30.
 5. “Berrerosi zenuen soroa”: Israel, Egiptotik atera zenuena. Cf. Ps 111, 9; Dt 9,26.

Jainkoaren eskuina, egiazki izan zinen
 enetzako laguntza!
 Nola utzi nauzu egun honetan
 bakarrik zoritxarren putzuan?
 Hainbeste ezbehar pairatu ondoan,
 agortu egin zait freskotasuna.
 Eska itzazu ene laidoaren kontuak,
 berriz dei ez degiodan “jauna” neure jopuari!
 5 Jaiki zaitez ene alde, antzina bezala,
 orro-uluaren artean basamortutik nenbilenean.
 Berreros ezazu zeure gatibua
 morrontzaren egoitzatik! Aska ezazu bera!

Betor ene gainera zure mesedea
 zure hira iragan zen bezala.
 Nire hobena zure eta bion artean
 jarriko ote da betiko?
 Noiz arte arituko naiz zure bila
 neure ondoan eta ez zaitut aurkituko?
 Oi Zu, zure Kutzaren gaineko
 kerubinen hego hedatuen artean bizi zarena!
 5 Arrotzen jopu egin ninduzun,
 zure eskuineko mahatsondoa nintzena;
 Salbatzaile neurea, salba ezazu ene herria!
 Igo eta ager zaitez zeure egoitzatik!

- 82) *Rěšut*, otoitzaren hasierarako. Erbesteratzeagatiko kexak eta askatasun-eskaria. Akrostikoa: *Yěhudah*. Neurkera: *ha-qat'ua*’.
1. “Enetzako laguntza”: cf. Has 2,18. Eva Adamentzat bezala.
 3. “Agortu egin zait freskotasuna”, Ps 32,4an bezala.
 4. “Jopua”: musulmanei, Abrahamen jopua izan zen Agar-en ondorengoei, Has 16,1 eta hurr. arabera, Israel, aldiz, Saragandik, andreagandik datorren bitartean.
 - 5-6. Jainkoari berriz ere askatasuna eskatzen zaio, Egiptoko irteeran bezala. “Jaiki zaitez!”: lit. ‘itzar zaitez’. Cf. Is 51,9. “Orro-ulu artean”: cf. Dt 32,10.
- 83) *Gě’ullah*, Jainkoa askatzailea dela gogoratzen duen poema, bere herriaren alde lehenbailehen zerbait egiteko eskatuz. Akrostikoa: *Yěhudah*. Neurkera: *ha-qalua*’.
1. “Zure hira iragan”: cf. Ps 88,17.
 4. “Kerubinen hegoak”: cf. Ir 25,18 hurr. 1Sm 4,4.
 5. “Mahatsondoa”: cf. Ps 80,16.
 6. “Ager zaitez”: cf. De 26,15.

Zuregatik eztabaidaka ari dira ilunpean daudenak
 eta idolo urtuen zerbitzariak.
 Nik honela erantzuten diet: Ez al dago ongi
 zuen jainkoek behar duten Jainkoa zerbitzatzea,
 Bera haserre dagoenean ni jopuen jopu,
 eta, ene alde agertzen denean, erregeen errege egiten nauena?
 Haren bila nabil eta Unibertsoaren oinarriak
 sostengatzen dituen Harkaitza dut nik oinarri.

Orein eme poxpolina, egoitzatik aldendua!
 maite zaituena haserre dago. Zergatik ari zara oihuz?
 'Edom-eko eta 'Arab-eko alabagatik egiten du oihu,
 maitea pozten saiatzen direnengatik;
 basastoak dira, nola konpara daitezke
 orein arra zutarri duen orein emearekin?
 Non da profetia, non argimutilla, non da Itunaren Kutxa?
 Non ezarri zen Presentzia?
 5 Etsai neureok, ez ezazue ez, maitasuna itzal,
 hura itzali nahiko bazenute ere, su erregarria baita, izan.

84) Akrostikoa: *Yəhudah*. Neurkera: *ha-měrubbeh*.

1. "Ilunpean daudenak": cf. Is 50.10.

3. Erbesteratzea eta Islamaren peko morrontza herriaren erruaren eta Jainkoaren haserrearen ondorioak dira.

4. Bertso hau T.S., H 15,101 eskuizkribuan besterik ez da agertzen. Halere, originala dela uste dugu, bera baita, nolabait, poemari osotasuna ematen diona. Cf. Is 40.21; 26,4; Ps 18,32.

85) *'Ahābah*, Herriari Jainkoak bera zintzoki eta erabat maite duela gogoratzeko, oraingoz haserre dagoen arren. Neurkera: *ha-qalua* '.

1. "Orein eme poxpolina": Israelgo herria. "Maite zaituena": Jainkoa.

2-4. Kristauek eta musulmanek egiazko Jainkoa gurtu uste duten arren, Israelek ez bestek lortzen du hori, bera baita Herri hautatu bakarra. "Orein emea" omen den Israelekin konparatuz gero, "Orein arra" (= Jainkoa, cf. Kt 8,5) lagun duenarekin alegia, gainerakoak basastoak besterik ez dira (cf. Has 16,12).

5. "Hura itzali nahi ...": cf. Kt 8,7; "su erregarria": cf. Ps 78,21.

Ahantzi zara, Maitea, nire bular artean etzanik egon zinela?

Zergatik saldu nindiezun neure zanpatzaileei?

Ez ote nintzaizun lur mortuan gaindi pausarik gabe jarraiki?

Še‘ir eta Paran mendia, Sinai eta Sin ditut lekuko.

Ez ote zen zuretzat nire maitasuna, niretzat zure laguntza.

Zergatik, bada, gabetu ninduzun neure ospez?

Še‘ir aldera behartuta, Qedar-en arbuiatua,

Joniako labean neurtua, Mediapean nahigabetua.

5 Ez ote zara zu jaregile eta ni esperantzaren gatibu bakarra?

Emadazu, bada, zeure indarra eta nik neure amodioa dizut emanen.

Zu, bihotza itzarrik, gori eta triste lotan zauden hori:

jaldi, esna zaitez eta zabilta ene aurpegiaren argitan!

Jaiki zaitez, zamalka ezazu ordu onean! Izar bat agertu baita zuretzat!

Putzuan zetzana Sinaiko gailurreraino igo zen.

Ez beude pozik “jota dago Sion” diotenak,

hantxe baita ene bihotza, bertan ene begiak.

Ni agertu edo ezkutatu arren, haserre zein lasai azaldurik ere,

nork izanen du gupida handiagoa, nik baino, ene seme-alabez?

- 86) *Rěšut lě-nišmat*, otoitzaren hasierarako. Aingeru Epaltzak egindako itzulpena, pixka bat ukitua. Sion-en kexak, Jainkoari zuzenduak. Akrostikoa: *Yěhudah*. Neurkera: *ha-‘arok*.
1. “Etzanik egon zinela”: Jainkoa bere santutegian zegoenean, Tenplua apurtu baino lehen. “Nire bular artean”: cf. Kt 1,13. “Saldu nindiezun”: ‘zuk ni haiei’.
 2. “Lur mortuan”: lit ‘erein gabeko lurretan zehar’, hots, basamortutik, Egiptotik irten eta gero.
 4. Se‘ir ... Qedar”: kristau eta musulman erresumak. Bertsoan “lau erresumak” aipatzen dira, Dn 7,3 hurr. interpretatuz. “Jonia”: Grezia
 5. “Jaregile”: ‘berrerosle’, cf. Rt 3,12. “Esperantzaren gatibua”: cf. Za 9,12. “Emanen dizut”: cf. Kt 7,13.
- 87) *Rěšut*, otoitzaren hasierarako. Jainkoak bere herria kontsolatzen du oihartzun mesianikoa duten hitzekin, bere maitasuna segurtatuz. Neurkera: *ha-mitpaššet*, 4 estikotan, bertso bakoitzak 3na barne errima dauzkala.
1. “Lotan zauden”: cf. Kt 5,2.
 2. “Zamalka ezazu ”: cf. Ps 45,5. “Izar bat agertu baita zuretzat”: Bala‘am-en profezietako testua, eskuarki mesianikotzat hartua., cf. Zen 24,17. “Zetzana”: Israelgo herria, Egiptotik irten eta Sinai mendian Jainkoaren mezua jaso zuena.
 4. “Nork izanen du gupida?”: cf. Ml 3,17.

- Hautzaroko altzoan loakarturik, noiz arte egonen zara lo?
 Jakizu umezaroa, printzak bezala, astin daitekeela.
 Amairik gabe luzatuko ote da gaztaroa? Jaiki, jalgi zaitez!
 Begira iezaiezu zahartzaroaren mandatariei, agiraka.
 Aska zaitez Denboraz, txoriek beren gainetik
 gaueko ihintz ttanttak astintzen dituzten bezala.
 Egizu hegaz enara gisa, zeure erruetatik eta
 itsas orroekin ari diren Zoriaren indarretatik askatzeko.
- 5 Zoaz zeure Erregearen atzetik, Jaunaren ontasunerantz
 hurbiltzen diren arimekin batera.

- Deitore eginen dut nire zoritxarreatatik,
 Jakobekin erdibanatuko ditut neure eresiak
 eta Israeletik barreiatuko.
- Azken ezbeharrak kontatuko ditut
 lehenak ahantzarazi zituztenak,
 Israelengatik gertatuak.
- 5 Harri bitez erostari trebeak,
 eta gogoa ukan bezate auhenak esateko
 Israeli buruz.
- Še‘ir eta Qedarko osteen artean
 galdu dira ene tropak eta ez dago
 nor bildu Israelen indarren alde.
- Haiek beren artean borroka egiten duten artean,
 gu hil egiten gara haien porrotekin,
- 88) *Rēšut lē-nišmat*, otoitzari hasiera emateko. Akrostikoa: *Yēhudah*. Neurkera: *ha-šalem wē-ha-so‘er*.
 1. “Loakartua”: arimaz ari da. “Printzak”: liho-zatitxoak. Bigarren hemistikioan aliterazio bortitza ageri da, itzuli ezinekoa.
 2. “Zahartzaroaren mandatariek”: ilearen zuritasuna, zimurrak eta ahulezia.
 3. “Denbora”: hitz honek eskuarki ‘Zoria’ esan nahi dugu. “Astintzen dituzte”: cf. Kt 5,2.
 4. Hemistikio bietan paronomasia agertzen da, itzulpenean ezin islatuzkoa.
- 89) *Pētiḥah*. Eresi honetan poetak Israelgo herriak bizi duen egoera tamalgarria deitoratzen du, jentilen menean eta, itxuraz, Jainkoak bazterrean utzirik. Metrika librekoa, hirugarren lerroan Bibliako pasarte bana sartzen du, aipamen zehatza eginez, beti jatorrizko adieran hartzen ez badu ere. Pasarte horiek jatorrizko testuan beti ere *Israel* izenarekin amaitzen dira, horrekin poema osoan zehar errima eginez. M. Mishor-en oharrak.
 2. Cf. Has 49,7.
 4. Cf. Jo 24,31.
 6. Cf. Ir 18,8.
 8. Cf. Zen 1,3.

10 Israelen beti ere gertatu den bezala.
 Alde guztietatik segadak eta oztopoak dira
 eta ez dago inor erregutzeko
 Israelgo haurren alde.
 Eta beren borroketan inguruka dabiltzanean,
 heriotza eta galbidera doaz,
 banan-banan Israelgo semeak.

15 Izan ere, o Jainkoa! noiz arte
 Zure goi mendekuak
 segituko du epaitzen Israel?
 Oihu egiten badut ere, ez dit inor aditzen,
 baina Zuk, saildu zaren horrek babes ematen diezu
 Israelen gorespenei.
 Eta bihozberatasunaz epaitzen ez baduzu,
 mahastian txordoketan bezala arituko dira,

20 Israelgo gainerakoaren bila.
 Zapalketaz zapalketa,
 Marah-tik Ғaradah-raino, hala
 izanen dira Israelen egotaldiak.
 Berri ertuna entzutean
 ene jantziak urratu ziren, eta bihotza ere bai,
 Israelgo printzeengatik.

25 Buruzagi eta partaideen altxorra,
 jakintsu, aditu eta zuhurrena,
 Israelgo milakoen buruena.
 Distiraz eta loriaz hornituak,
 koroaz eta diademaz
 Israelgo zoragarri osoa denagatik.
 Ostea ostearen aurrean,
 erregeen aldeko zereginak betetzen

10. Cf. Rt 4,7.

12. Cf. Ne 2,10.

14. Cf. Is 27,12.

16. Cf. Ju 4,4.

18. Cf. Ps 22,4.

20. Cf. Je 6,9.

21. “Marah eta Ғaradah”. Bi leku-izen dira. Lehenak ‘mingostasuna’ eta bigarrenak ‘izua’ esan nahi du, juduek inon ez zutela lasaitasunik izaten adierazteko. Cf. Zen 33,8.9-24.25.

22. Cf. Zen 33,1.

24. Cf. Ju 5,9.

26. Cf. Zen 10,5.

28. Cf. 1Sm 9,20.

30 ari ziren Israelgo seme nobleak.
 Jainkoaren haserre-eguna iritsi zenean
 Kontseilariak lotsatu ziren eta hala bete zen
 Israelgo Sainduaren erabakia.
 Merkatariaik printze zituen hiriaren gainean,
 hartan hirurogei heroi zirela,
 Israelgo heroien artekoak.
 35 Eta etxeak suntsitu behar zituen aingeruak
 ordu horretan ez du die eraso
 Israelgo seme-alaben bizilekuei.
 Dekretua aldarrikatu da,
 Jaunaren ahotik aterea:
 Ama hiri bat errauts zedila, Israelen.
 Heriotzaren aingeruak gertu daude jada,
 Eta ezin erakar dezakete aldeko aingerurik
 40 Israelgo haurren lantzuak ez eta erreguek ere.
 Eta hirira oldarka sartu ziren egunean
 Še‘ir-ko semeen mendekua jalgi zen,
 Israeli gertatu zitzaionez.
 Kaleak gorpuz bete ziren
 eta eraileek beren ahotsa altxatu zuten
 Israelgo birjinak bortxatuz.
 45 Eta mendekuaren ezpata iragan ondoren,
 gatibutasuna, gosea eta egarria
 aurkitu zuten Israelgo seme-alabek.
 Horregatik artega da ene arnasa,
 Jainkoak, haserre eta furfuriar ebakia baitu
 Israelgo adar guztia.
 Noiz amaituko dira mirari hauek?
 O, armaden Jainkoa! Eta noiz arte bilatuko zaio
 50 bere errua Israeli?

30. Cf. Ir 24,11.

32. Cf. Is 5,19.

34. Cf. Kt 3,7.

36. Cf. Ir 12,27.

38. Cf. 2Sm 20,19.

40. Cf. Je 3,21.

42. Cf. Is 11,16.

44. Cf. Dt 22,19.

46. Cf. Ne 13,2.

48. Cf. Nk 2,3.

50. Cf. Je 50,20.

Urrikal zaitez eta babes gaitzazu!
Ala suntsitu eginen duzu
Gainerako Israel osoa?

90

Filistearrak bildu egiten dira eta edomdarrek ebasten digute.
Batzuk orgetan, besteak zaldiekin.
Guk zure Izena jartzen dugu dorre gotortutzat;
Harri gaitzazu zeure mesedeekin, babestuen Salbatzaile horrek!

- 5 Babestuei segurtatu zenien, zigortzean,
ez zenituela gaitzesten, eta orain ere ez dituzula baztertzen.
Beren etsaien uztarria jasaten dute, beren beldurra eta ikara;
jende borrokalari horiek konbentzitu nahi dituzte;
baina ugariagoak ditugu geure aldekoak, horiek beren alde baino.
- 10 Zure mesedeak itsasoa estaltzen duten urak bezain ugariak dira!
Harri gaitzazu...

Gure etsaiek basapiztien antzera borrokatzen dute,
'Elifaz-en kapitainek Nēḥayot-en buruzagiekin.
Horien artean bildots gazteak izutzen dira:
Nola ukanen du bakerik artaldeak lehoiak gidari izanik?

52. Cf. Ez 11,13.

- 90) *Sēliḥah*, penitentziarako poema, juduek su biren artean zuten egoera larriaz, musulmanen eta kristauen arteko borroketan. Jainkoa dute esperantza bakarra. Zajal tanketakoa, sarrera eta hiru estrofarekin. 5+ 5 silabako bertsoak.
1. "Filistearrak" cf. 1Sm 13,11, Hispaniako judutar poesian bereberek eta, kasu honetan almorabideak dira. "Edomdarrek", Esauren ondorengoak, aldiz, kristauak.
 - 2-3. Ps 20,8-ren aipamen aldatu samarra. Cf. Pr 18,10.
 4. "Salbatzaile" cf. Ps 17,7.
 9. 2Erg 6,16-ren hitzez hitzeko aipamena.
 12. "'Elifaz": kristauak: 'Elifaz Esau-ren semea da, cf. Ge 36,15 hur. "Nēḥayot": Ismaelen lehen semea (Has 25,13), beraz, musulmanak aipatu nahi ditu; cf. Is 60,7. M. Mishorrek ohartarazi didanez, lerro hau, aurreko bertso "basapiztiekin" bat, "'Elifaz-en zezenek Nēḥayot-en ahariekin" ere itzul liteke.
 13. "Bildots gazteak", Israel. Cf. Je 49,20.

15 Egintza miresgarri, balentria eta mirariekin besterik ez.
Harri gaitzazu...

Haien hobenek zapaltzaileen eskuetara eramán zituzten,
eta ez dute beste meriturik asaben aliantza baino,
eta estutasunean beren begiak Jainkoagana altxatzea,
20 morroiek beren nagusien eskuetara bezala,
ahul egonik, zergak eskatzen dizkietenen menpean.
Harri gaitzazu...

91

Usoa, nola uste duzu gorroto dizudala?
Ez al dakusazu betiereko maitasunaz zaitudala maite?

Ikusazu nola zuregatik mendekuz janzten naizen.
Jantzi brodatuak jantzi behar dituzu,
5 zuk mereziago baitauzkazu beste neskatilek baino.
Antzinatik jarri zintudan herrien buruan,
eta manatu nuen zeinu izan zintezela hurrengo gizaldirako.

Neure hamabi printzeak hautatu nituen,
neure apaiz eta profeten taldea;
10 hiru patriarkaren leinukoak dira ene aukeratuak.
Edengo zuhaitz hautuetatik eratu zintudan
zu zafiroaren harrobitik landuz.

Maitasunaren ezaugarriak inguratzen zaitu, babesle;
urruntzen bazara ere, indarberri ezazu zeure bihotza!

19. "Morroiek... bezala": cf. Ps 123,2.

91) *'Ahābah*, era honetako poemetan Jainkoak bere herriari gogoratzen dio, bere bekatuengatik bidaliriko zigorrak gora behera, harenganako maitasunak osorik dirauela eta laster askatasuna ekarriko diola. Muaxaha tanterakoa, sarrera eta 4 estrofarekin, bukaera hebreeraz duela. Hamar silabako bertsoak, 4. eta 8. laburrak dituela. Akrostikoa: *Yēhūdāh*.

1. "Usoa": Israelgo herria. Cf. Kt 2,14.

2. "Betiereko maitasuna": cf. Je 31,2.

3. "Mendekuz jantzi": cf. Is 59,17.

4. "Jantzi brodatuak": cf. Ez 16,10.

7. "Hurrengo gizaldirako": cf. Ps, 102,19.

8. Jakoben semeak, Israelgo 12 leinuen asabak.

10. Abraham, Isaak eta Jakob, hiru patriarkenak. Israelgo herri osoa haiengandik dator.

13. "Maitasunaren ezaugarria": cf. Kt 2,4.

14. "Indarberri ezazu": cf. Has 18,5.

- 15 ezkerretik bultzatzen bazaitu, eskuinetik, aldiz, hurbiltzen.
Zigortu zaitut bekatu egiten zenuelako, eta tristarazi zaitut;
baina ez zaitez aztora, ez baitzaitut bazterrean utziko.

- Prometatu dizut salbazioa erakustea,
berriz ere neure mendi sainduan zu landatzea.
20 Ene bihotzak ituna eta zina halaxe gordeko ditu.
Zeren zara beldur? Nik bermatzen dizut
Sionera berriz eramanen zaitudala, bertara itzularaziz!

92

Usoa, zergatik urrumaz ari zara, zergatik egiten duzu intziri?
Ospa itzazu zeure jaiak! Bete zeure zinak!

- Itxaron ahal nezake oraindik gatibutasunetik ilkitzea?
Eta Mendi Ederraz neure antsia beterik ikustea?
5 Oinazez nakusazue, ene maitea urrun dagoelako.
Zergatik deitzen didazue oraindik No'omi?
Ospa itzazu zeure jaiak! ...

- Oi hegoak emanen balizkit, enarari bezala,
neure Mendira hegaz egin eta aske naizela iragartzeko.
Neure Tenpluko hautsak mirra garbiaren usaina izanen luke enetzat,
10 eta maitasunez muinkatuko nuke neure oinen lorratza.
Ospa itzazu zeure jaiak! ...

Asko da zeure erregea zeure kausaren alde izatea,
eta zure herri ilun lainotsuan Hark zure urratsak prestatzea!
Ezar ezazu šofarra ahoan: festa badator!
Esaiozu zeure bihotzari: kontsola, kontsola zaitez!
Ospa itzazu zeure jaiak! ...

- 92) 'Ahābah, Jainkoaren eta Israelgo herriaren arteko elkarrizketa erako poema, maitasun-poesiako adierazpenekin eta berrerospen hurbilaren esperantzaz. Zajal tankerako forma estrofikoan: lau estrofarekin, 5 + 5 silabako bertsoekin, azken aurrekoa laburra izanik. Akrostikoa: *Yēhudah*.

2. "Ospa itzazu zeure jaiak": cf. Na 2,1.

4. "Mendi Ederra": Sion, cf. Da 11,45.

6. "Zergatik": cf. Rt 1,21.

7. "Oi hegoak emanen balizkit": cf. Ps 55,7; Es 26,2.

10. "Lorratza": oinatza, nire oinek Sion zapalduko luketen tokia.

13. "Šofar": cf. Os 8,1; ahari-adarra, 'Elul hilabeteko penitentzi egunetan jotzen dena.

14. "Kontsola zaitez": cf. Is 40,1 hur.

- 15 Ene aurpegia Sinai mendiaren
loriarantz eta sasiaren lekurantz zuzentzen duenak
demaioa ene belarriari bere erantzunik hoberena.
Neure izenez ezagutzen nauen Jaunaz fidatzen naiz!
Ospa itzazu zeure jaiak! ...

93

- Uso urrunekoa, jo soinua dakizun ongien:
doinurik hoberenaz erantzun iezaiozu deitzen zaituenari,
Gogoan izan zeure Jainkoa dela: zoaz laster!
Makur zaitetz ahuspez! Aurkez ezazu zeure eskaintza!
Abia zaitetz zeure habiara, zeure dendarantz,
Sionera, ipini seinaleak bidea erakusteko!
Zeure maiteak, zeure gaizki eginengatik erbesteratu zintuena,
gaur berreroslea duzu, zer erantzunen diozu?
- 5 Egon zaitetz prest Lurralde Ederrera itzultzeko!
Errauts itzazu 'Edom eta Arabiako soroak!
Suntsi ezazu zeu porrokatu zintuztenen etxea!
Handiago egizu maitasunaren egoitza zeure maitearentzat!

15. "Zuzentzen duenak": cf. Ez 21,7; Ir 25,37.

18. "Neure izenez ezagutzen nauen": cf. Ir 33,12.

93) '*Ahābah*, poeta Israelgo herriari mintzo zaijo lehenbailehen Sionera itzultzera bultzatu nahiz, Jainkoak bera maite duela eta laster berrerosiko duela gogoratu. Neurkera: *ha-šalem*. Akrostikoa: *Yēhudah*.

1. "Jo soinua dakizun ongien": cf. Is 23,16.

3. "Seinaleak bidea erakusteko": cf. Je 31,21. "Zure denda": Tenplua.

5. "Lurralde Ederrera", Sion: cf. Dn 11,16. "'Edom": Kristau herriak, cf. Has 32,3.

5-6. Hebreerazko testuan aliterazio ugari daude, ezin itzulizkoak.

Arrano-hegalen gainean igoarazi zenuen usoa,
zure altzoan, ganbera goretan, habia egin zuena,
zergatik utzi zenuen oihanetan babesik gabe, nora ezean,
toki guztietatik segadak ezartzen badizkiote?

- 5 Atzerritarrek beste jainko batzuekin erakarri nahi dute,
baina berak, ezkutuan, bere gaztaroko senarragatik egiten du negar;
bere lehen gizonagana jasotzen ditu begiak,
Dišan-en eta Dišon-en semeek beren mihiaz lausengatu arren.
Zergatik abandonatzen duzu ene arima šě'ol ean?
- 10 Nik ongi baitakit Zeuk bakarrik berrerosten duzula!

Betiko, oi hobezina, egonen al zara belorik gabe,
mesprezatur, Mizzah eta Šammah harriduraz betez?

- Neskamearen semeak beldurtu nau,
arkua esku sendoz desarratzen du eta.
- 15 Aldare da ene denda 'Ohōlibamah-rentzat,
eta 'Ohōlibah, zertan dago, noiz arte itxaronen du?
Ez dago zeinu ez seinalerik, argikuspen ez agerrerarik;
eta mirarien garaia noiz izanen den galdetzen badut,
profeziek honela erantzuten dute: “zaila benetan zure galdera”
Nik ongi baitakit...

- 94) *Gě'ullah*. Poeta aldizka Jainkoari eta aldizka Israelgo herriari mintzatzen zaio, judu herriaren menekotasun-egoera iluna azalduz, bere bekatuengatik kristau eta musulmanen morrontzapean, Jainkoak askatuko duelako esperantza, ordea, galdu gabe. Zajal tankerako estrofa eran, bost silaba luze neurkera silabikoan eta 5 + 4 silabako bertsoekin.

1. “Arrano-hegalen gainean”: Egiptotik irtetea, cf. Ir 19,4.
8. “Dišan eta Dišon-en semeak”: Še'irko semeak 'Edom-go herrialdean (Has 36,21); kristauak aipatuz.
9. “šě'olea”: hildakoen munduan.
11. “Hobezina”: cf. Kt 5,2, berau Israel gisa interpretatuz.
12. Mizzah eta Šammah ere 'Edom-go semeak dira, hau da, kristauak. Hebrear testuan bertso honetan eta hurrengo lauetan paronomasia ageri da.
13. “Neskamearen semea”: Ismael, hau da, arabiarren asaba. Cf. Has 21,10 hur.
14. “Arkua”: cf. Je 4,29; Has 21,20.
15. “'Ohōlibamah”, Esaturen emaztea, Has 36,2. Hemen ere kristauetz ari da, une horretan, gurutzaden ondorioz, Jerusalem agindu eta beren otoitz-elizkizunak Tenpluaren gaineko lautadan egiten dituzte eta. Cf. *Benjamin Tuterakoa, Bidaien liburua*, X. Kintanak euskaratua, Iruñea, 1994, 78. or.
16. “'Ohōlibah”, Jerusalem izen sinbolikoa Ez 23,4-ren arabera.
18. Denboren amaieraz ari da, hau da, mesias-aroaz. Cf. Dn 12,6.
19. “Zaila benetan zuren galdera”: cf. 2Erg 2,10.

20 Dontzeila ahulak hirietatik atera zituzten,
ohantze gurietatik eta aterpe lasaietatik
adimenik gabeko jendeen artean barreiatzeko,
ezpain toteleko eta hizkuntza arrotzetako herrien artean.
Beren herriaren jatorrizko sinesmenari atxiki zitzaizkion, ordea,
25 eta uko egin zioten irudi izunen aitzinean makurtzeari.
Zergatik gelditzen da urrunik zeruan Bizi Dena?
Neure zapaltzaileak hertsatzen nau eta maitea urruntzen zait,
egun hauen bukaera kartsuki eskatzen dugun artean!
Nik ongi baitakit...

Mesedearen zutoihala kendu zitzaidan;
30 hantustearen oina gainean dut, uztarri eta zama.
Zigorturik dakusat burua, neure erru larriagatik,
erbestera eta gatibu, haserre eta samindurik
ez printze, ez ugazaba, ez errege ez jaunik den tokian.
Esturapean nago, Harkaitza enegandik urrundu baita,
35 haserrez, bere oinak zapaltzen zuten lekua suntsituz,
bere furfuriaz haren atalase eta ate-habeak birrinduz.
Haren aurpegian suak dizeka eta *šě'ol* -eraino helduko da.
Nik ongi baitakit...

Betiko baztertzen al nauzu, Jaun neurea?
Ez al dago epe jarriarik ene ikuspenak bete daitezen?
40 Jaiki zaitez, Jauna, eta sakabana bitez ene etsiak!
Itzul zaitez ene egoitzara, Tenplura, antzina bezala!
Erakuts ezazu ene begien aurrean zeure loria, Sinain bezala!
Ordain iezaiezu ene auzoei ene gaitzengatik merezi dutena!
Ihintza bezala jaits dakiola laguntza beldurti eta ikaratuari!
45 Eraits ezazu bere tronutik neskamearen seme matxino hori!
Arin! neure penagatik *šě'ol*-era amil ez nadin!
Nik ongi baitakit...

26. "Urrunik": cf. Ps 10,1. Badirudi Jainkoak bere herriaren zapalkuntza urrundik dakusala, hor esku hartu nahi gabe.

29. "Mesedearen zutoihala": cf. Kt 2,4.

35. "Haserrez, ... suntsituz": Jainkoak berak utzi du, bere herriarekin sumindurik, Tenplua suntsi dezaten.

45. "Neskamearen seme matxinoa", Ismael, Agarren semea, 13. bertsoan bezala.

Usook, lurralde idor eta mortuetan bildu izanok,
 altxa zaitezte! ez baituzue hor pausalekurik kausituko; zuen etxea suntsitua da.
 Itzul zaitezte zuen atsegintokira, Ḥammat eta Yanoḥah hirietako herrira!
 On bekizue Jauna, atsedena erdiets dezazuen!

- 5 Jerusalemetik eta haren baserrietatik erbestera irten eta
 Siondik urrundu ginenetik, haren belardiak erraustuak gelditu ziren!
 Miragarriri erori ginen berak bere larunbatak irrikatzen zituen artean,
 baina esperantza gorde genuen, eta ez zen Jaunarentzako otoitzik
 [eragotziko.
 On bekizue Jauna...

- 10 Nork emanen dizkit usoaren hegadak? Gora hegaldatu eta pausa ninteke.
 Hegoa eta Iparra utzi eta Sionerantz hurrupatuko nuke haizea.
 Hasieran bezala, azkenean ere hamaika artzain eta printze sorraraziko ditu,
 eta zapaltzeko ezpata darabiltenen aurka, ezpata biluzia aterako.
 On bekizue Jauna...

- 15 Esperantza-gailurretatik zoazen horrek ez dituzu antsiak zapuzturik ikusiko;
 zuen batasuna hautsi arren, ez da horregatik ene anai maitasuna etenen.
 Alaba ederra, ene etxera, gaztetan bezala, itzuliko da.

95) *Sēliḥah*. Poetaren (1. estrofa), Israelgo herriaren (2., 3. eta 5. estrofak) eta Jainkoaren (4. estrofa) arteko elkarriketa, herrian erbestealdian pairatzen duen jaitsapena glosatuz eta bere egiazko egoitzara, Sionera, itzultzeraz bultzatuz. Zajal tankerako poema estrofikoa, bost estrofaduna, 7 + 7 silabako bertso 6 + 6ko itzuliekin. Akrostikoa: *Yēhudah Levi*.

1. "Lurralde idor eta mortuetan": judu herriaren erbestealdia.
2. "Ez baituzue...kausituko": cf. Mi 2,10.
3. "Ḥammat eta Yanoḥah": Israelgo hiriak. Cf. Jos 19,35; 16,6.
4. "On bekizue Jauna": Rt 1,9ren aipamen zehatza.
7. "Erori ginen": cf. Nk 1,9. "Berak": Sionek.
8. "Ez zen ...eragotziko": cf. Jb 15,4.
9. "Nork emanen dizkit usoaren hegadak": cf. Ps 55,7.
11. "Hamaika artzain eta printze": lit. 'zazpi eta zortzi', Mi 5,4ri jarraikiz, 'ugari' esangurarekin. Azken denboretako buruzagi karismatikoen artean, zer esanik ez, Mesias bera kontatzen da.
14. "Anai maitasuna": lit 'anaitasuna', cf. Za 11,14.
15. "Itzuliko da": cf. Le 22,13, Jainkoaren etxera, Sionera.

Salbamenaren kerubina itzegoko dut zuei atsedena emateko.
On bekizue Jauna...

Gutxi al deritzozue lur idorrean ihintza bezalako kontsolamenduari?
Hondaturiko lurraldea edukitzeari, bertako hondakinen gainean hiria
[berreraikitzeke?]

20 Heroi eta gerlari gisa, maitasun ezkutua sorraraziko du
eusten didanak, ni agorra izanik, ama zorionsuaren antzera.
On bekizue Jauna...

96

5 Uso burugabea, gogoan ukan bide osoa behaztopa dela,
bihiari adi zaudelarik, ehizatokiaz ahanzten zara;
zure bizitza limurtu zen, baina lakioa ez da oraino hautsi.
Nolako hitzaz erantzunen diozu bidali zintuenari?
10 Zure izpiritua areago gogortuko ote duzu
zure distira ahitu eta
zure indarrak ezerezean desegin arte?
So egiozu arretaz zeure bideari
eta beha ezazu begirada erneaz:
10 *Usoa, nondik zatoz eta nora zoaz?*
Gutxi al deritzozu munduan olgetan jarduteari,

16. "Kerubina itzego": beraren gainean zaldi edo zamari baten gainean bezala ibili, zamalkatu, cf. Ps 18,11. "Atsedena": cf. Zen 10,33.

18. "Hondaturiko lurraldea": cf. Is 49,8. "Hondakinen gainean": cf. Je 30,18.

19. "Heroi eta gerlari": Jainkoa, cf. Is 42,13. "Maitasun ezkutua": cf. Es 27,5.

20. Ia-ia Ps 113,9ren aipamena hitzez hitz.

96) *Sēliḥah*. Neurkera estrofa bakoitzeko 5. eta 6. bertsoetan besterik ez da errespetatzen, gainerakoak aske samarrak izanik. Akrostikoan *Yēhudah* irakurtzen den arren, neurkeraren erabilera bitxi horrek zalantzak sorrarazten ditu poema hau egiazki gure egilearena ote den erabakitzerakoan. Neurkera: *ha-'arok*.

1. "Uso burugabea": *Yēhudah* ha-Levik honela eskuarki 'Israelgo herria' aipatzen duen arren, testuinguru honetan bere arimaz ari da'. Cf. Os 7,11.

2. "Ehizatokia": ehiztari armatua ezkututzen den lekua, handik ehiziak hiltzeko.

4. 1 Kro 21, 12.

10. Cf. Has 16,8.

- zeure burua denborako atseginetara eskainiz, jubileu-urteak bailiren?
laino artetik heldu zinen eta handikeriekin zara joaten,
ohar zaitetz badatozela dolu-egunak,
15 utz itzazu alde batera erokeriak,
hantuskeria atseginak,
eta hauts ezazu une orotan
zatitan zeure bihotza.
Eta oihu egizu, negarrez:
20 *Usoa, nondik zatoz eta nora zoaz?*
- Baldin orain zeure grinetatik askatzen ez bazara,
noiz ordainduko duzu zeure zorra
zeure errebeldiaren odolengatik eta gogorkeriaren erruagatik?
Hona hemen, zeure bekatua eritasuna duzu, eta zure nahigabea ukendu,
25 baina aitorpenak kitatzea dakarkizu;
negar-malkotan has zaitezenean
Hark zure pena ikusiko du,
hiltzen eta berpizten duenak,
eta orduan hobena barkatuko dizu.
30 *Usoa, nondik zatoz eta nora zoaz?*
- Buru gainera igo zitzaizkizun bekatu-lanak,
zure bihotza sendotu eta haiek ere indartu eta handitzen ziren,
baina bihotza hautsi balitzaizu haiek ere ziratekeen hautsiko,
gogoan ukan zure aurka egiteko bildu zirela;
35 egotz itzazu zeure barrutik,
garbi itzazu zeure zaletasunak,
zeure bihotza eskain ezazu,
erre ezazu oparitan zeure gantza
eta isur zaitetz malkotan:
40 *Usoa, nondik zatoz eta nora zoaz?*
- Horra, oi arima, ederra zinateke, eguzkiaren pare,
odolaz lohiturik ez bazeunde;
ez zara araztu, aitzitik, zikindurik zaude,
eta nola lokaztu da berrerrosia ez den arima?

12. “Jubileu-urteak”: hau da, 50 urte. Hebreeraz יובל *yobel* ‘jubileua’ edo ‘jubileu-urtea’, Bibliaren arabera, berrogeita hamar urteko multzoaren azkena da, eta hitzaren adiera hedatuz, 50ko multzo osoa. Hori gertatzen zenean amnistia orokorra eskaintzen zen, esklaboak aske gelditzen ziren eta aurreko jubileutik salduriko lurak aurreko jabeen eskuetara itzultzen ziren, era horretara aldizka jatorrizko egoera idealera berrantolatzeko asmoz, betiko esklabotasuna, zorren metaketa eta lurralde zabalak gutxi batzuen eskuetara gelditzea ekiditeko. Moisesen legearen mezu sozial garrantzitsuenetako bat da. Jubileua pertsona baten bizitzan epe aski luzea da eta behin 50etara helduz gero, ohikoa izaten da heriotzaz filosofatzen hastea, oraingo honetan poetak bezala, bere arimarekiko bakarriketan damu-sentimenduak agertuz. Cf. Le 25,10-11. M. Mishorren oharra.

- 45 Erabil itzazu eskuzabalki damuak,
kontuan eduki zeure azken uneak,
sar zaitetz berriz ere itunean,
eta hartu zenituen harrokeri opariak
zeure ondotik jaurti itzazu.
- 50 *Usoa, nondik zatoz eta nora zoaz?*

97

- Usoa, zergatik ari zara hainbeste kexa eta zizpuruz?
Zatoz enegana eta erabaki dezagun: Ez ote nizun agirakaz esan?
Ez ote dituzu hegaletan errugabeen arima nahigabetuak?
Profeta eta apaizen odola isuri zenuen, bideetan bekatu eginez.
- 5 haren odola isuriarazi zenuen eta zure hobenak izkiriaturik gelditu ziren.
Zure harripean oihuz dago: “Jaunak ene mendekua eskatuko du!
Oi lur, ez ezan ene odola estal, ez bedi isildua izan ene garrasia!”
- Haren mezuak Jainkoaren herria bere ituna haustera eramán zuen:
10 Baalekin elkartu eta Jainkoa eta haren Egoitza bazterrean utzi zituzten.
Herria, erregea, haren nobleak eta Judako printzeak haren aurka.
Zakaria Jainkoaren izpirituak estali zuen, haren zuzentasuna berretuz.
Herriaren gainetik goratu eta igotzean hauxe esan zion:
“Zergatik duzue hautsi Jaunaren agindua? Bera duzue arrakasta-bide bakarra
- 15 Ene kontra bil bazintezte ere, ez nuke nik neure justizia abandonatuko.
Oi lur, ...
- Baina haren aurka elkartu ziren, inork kontra egin gabe,
eta guztiek harrikatu zuten gogorki, erregearen aginduetara.
Erhaileen eskuetan zelarik, Yo’áš-i oihu egin zion, minetan:
“Oi Yo’áš errege hori! Gogoan ukan, otoi, ene aitaren onerizko eta maitasuna.
- 20 Ez da ene ahoan faltarik, Šadday-en legea da bere herri hurbilarentzat.
Zergatik gaur hil nahi nau, bere erruei beste hobena erantsiz?
Izan Jaunaren beldur eta bila ezazu bera! Hauxe eskatzen diot Jaunari!
Oi lur,...

- 97) *Qinah*, Zakaria profetaren hilketari buruzko eresia, 2Kro 24,20ko testuaren arabera. Zajal tankerako poema estrofikoa, 5 estrofaduna. Lehenengo laurretan Jainkoa Israelgo herriari mintzo zaio, bere bidegabekeriak eta, batez ere, Zakaria profeta hiltzea gogoratuz. Azkenean herriak bere erruak aitortu eta errukia eskatzen du. Bertsoek 14na silaba luze dauzkate, neurkera silabikoan.
2. “Eta erabaki dezagun”: cf. Is 1,18.
3. “Hegaletan”: cf. Je 2,34. Usoa, Israel, Zakarias bezalako errugabeen heriotzen erruduna da.
6. “Izkiriaturik”: cf. Je 17,1.
8. Jb 16,18-ren hitzez hitzeko aipamena.
20. “Bere herri hurbilarentzat”: cf. Ps 148,14.

- Aski duzu horrekin, 'Ohōlībāh, zure hobenak zure kontra ari dira auzilari;
 25 ikusazu, horregatik erleek bezala alde guztietatik inguratu zintuzten,
 batzuek zure Tenplua erre eta oinazetan zintuzten erabili,
 beste batzuek zure semeak atzerriratu eta apaizak kendu zizkizuten,
 bestetzuek Še'ir-i saldu zintioten, neskamearen semeek zu nahigabetuz.
 Gogora itzazu haien erruak, haiek ere agiraka errepikatu dute eta:
 "Zergatik, natorrenean, ez dago inor, eta ene deiari inork erantzun ez?
 Oi lur, ...
- 30 Hona, neure bekatuak aitortzen ditut kopeta altxatzen ausartzeke.
 Egiaz, Zuk gupida ez baduzu, nori jasoko dizkiot begiak?
 Ardi galdu eta urrundua lehoi artean hiltzear da;
 bere habia ahantzi zuen usoa, arranoek ehizatu zuten ia.
 Edukazu zure Izenaren ardura, jauna, Siongo haur onetsien gupida,
 35 urrikal zaitez otoitz-etxeaz, etsaiek profanatu dutenaz.
 Libratu zeure herria hobotik esanez: "Aurkitu dut honen eros-saria".
 Oi lur, ...

23. "'Ohōlībāh": Jerusalem, cf. Ez 23,4.

24. "Erleek bezala": cf. Ps 118,10-12.

27. "Saldu zintioten": haiek zu hari. "Še'ir-i": kristauei. "Neskamearen semeak": Agarrenak, musulmanak.

29. "Ez dago inor": cf. Is 50,2.

32. "Ardia": cf. Je 50,17.

36. "Aurkitu dut honen eros-saria": cf. Jb 33,24.



SION GOGORATZEKO POEMAK

*Mendixka ederra, munduko alaitasuna,
Errege nagusiaren hiria ...*



שירי ציון

יפה נוף, משוש תבל, קריה למלך רב...

Ene bihotza Ekialdean da eta ni, berriz, Mendebalde muturrean.
 Nola dastatuko dut jakien gozotasuna?
 Nola nitzake neure botoak, neure promesak, bete
 Sion edomdarrek zanpatua badago, eta ni arabiarren menpean?
 Ez litzaidake neke izanen Sēfaradeko edertasun guztiari uko egitea,
 Tenpluko hondakinen hautsari begiratu ahal izatearen truke.

Mendixka ederra, munduko alaitasuna, Errege nagusiaren hiria,
 zuregatik zizpuruka ari da ene arima Mendebalde muturretatik!
 Ene erraiak inarrosi egiten dira antzinateaz oroitzen naizenean,
 zure Loria erbesteratuaz, eta zure Tenplu birrinduaz.
 Oi ahal banu arrano hegalen gainean hegaz egin,
 neure malkoekin zure hautsa ihinzatzeko, elkarrekin nahasiz!
 Zure bila ari naiz, zure erregea falta bada ere, eta zure Galaad-eko
 baltsamoaren orde, hor suge-eskorpioi erregarriak izan arren.
 5 Nola ez naiz egonen zure harrien aitzinean hunkiturik eta muin eginen,
 zure mokilen zaporea ene ahorako ezitia baino atseginagoa bada?

- 98) Aingeru Epaltzaren itzulpena, Benjamin Tuterakoaren *Bidaien liburua*-ren hitzaurrean agertua. Poetak Palestinara heltzeko daukan gogo adierazten du, aldi berean Islamaren menean bizi beharra eta leku sainduak gurutzatuen eskuetan egotea deitoratuz. Neurkera: *ha-mitpaššet*.
1. “Mendebaldea”, Yēhudah ha-Leviren poesian , ‘al-Andalus’ da. “Jakien gozotasuna dastatu”: cf. 2Sm 19,36.
 2. “Botoak eta promesak”: Jerusalemera joateko, cf. Ps 66,13. “Edom”: kristauak. “Menpean”: lit. ‘kate artean’.
- 99) Harako nahiak poetari Jerusalemeko hiria idealizarazten dio, une horretan daukan hondamen-egoera gora behera. Akrostikoa: *Yēhudah*. Neurkera: *ha-’arok*.
1. “Mendixka ederra”: Jerusalem, cf. Ps 48,3.
 3. “Arrano hegala”: cf. Ir 19,4.
 4. “Galaad-eko baltsamo”, gaixotasunak sendatzen dituen: cf. Je 8,22.

- Sion, ez al didazu galdetzen nola dauden zure gatibuak, zutaz
arduraten direnak, zure artaldeko hautuenak?
Mendebal eta Ekialdetik, Ipar eta Hegoaldetik har ezazu
zeure alde guztietatik hurbilen eta urrunen agurra,
eta nahiaren gatibuarena ere bai, bere malkoak, Hermongo ihintza bezala,
isuri zituenarena, zure mendien gainean haiek jariatzeko irrikaz.
Zure atsekabeagatik negar eginez txakala naizen arren, zure gatibuen
etorreraz amets dagidanean zeure kantiketarako lautea nauzu.
- 5 Bihotza sakonki hunkitzen zait Bet'el eta Pënu'el-ez,
Maḥānayim-ez eta zure sainduekin elkartzeko lekuez.
Hantxe bizi zen Jauna zurekin, eta zure Sortzaileak
ateak irekitzen zizkizun zeruetakoen aitzinean.
Jaunaren loria zenuen argi bakarra, eta ez zintuzten argitzen
ez Eguzkiak, ez Ilargiak ez eta izarrek ere.
Nahi nuke ene arima heda ledin
'Ĕlohim-en izpiritua zure hautatuen gainera isuri zen tokian.
Zu errege-etxea eta Jaunaren jarlekua izanik, nola
eser daitezke jopuak zure heroien tronuen gainean?
- 10 Oi ibil ahal banendi Jainkoa bere igarle eta mezulariei
agertu zitzaaien lekuetatik!
Nork emanen lidake hegorik hegaz urruntzeko,
neure bihotzaren zatiak zure mendixken artetik eramán nitzan!
Ahuspez eror ninteke zure hautsaren gainera, zure harriak
biziki maitatuz, haien hautsa ferekatuz,

100) Poetak Lurralde hautatuaren eta hiri sainduaren bikaintasunak goستن ditu, bere herriaren iraganeko oroitzapen loriatsuz beteak, oraingo egoera tamalgarria deitoratuz. Yēhudah ha-Leviren poema nabarmenetako bat da, agian bere azken urteetako nahiak hobekienik islatzen dituena. Neurkera: *ha-mitpaššet*.

1. "Gatibuak": erbestean dagoen judu herria.
2. "Hurbilen eta urrunen": segur aski, beste poema batzuetan bezala, fisikoki urrun egon arren, bihotzez hurbil daudenak. Cf. 21. poema, 5. b; n° 38.a, 6. b; 80.a, 58. b...
3. "Hermongo ihintza": cf. Ps 133,3, Sionen gainera erortzen diren adiskidetasun-malkoak.
4. "Txakala": cf. Mi 1,8, basamortuan horren ulua entzutea hil-kexatzat hartzen da. "Lautea": musika tresna honen soinua poztasun sinboloa da.
5. "Bet'el, Pënu'el, Maḥānayim" Palestinako lekuak: horietan Jainkoa Jakobi agertu zitzaion. Cf. Has 28,19; 32,3, etc.
6. Jerusalemeko atea zerukoekin bat datoz, cf. Has 28,17.
9. "Jopuak": kristauak, Jokobenak barik, Esaren ondorengoak direnak. Cf. Has 27,29.37. "Tronuak": cf. Je 3,17.
11. "Nork emanen lidake?": cf. Es 23,5.

- negar eginen nuke neure asaben hilarrien ondora iristean,
 eta hunkiturik nengoko Hebron en zure hilobi hautuen aitzinean.
 Zure oihana eta zure Karmel zeharkatu eta zure Galaad gurutza nezake,
 eta harriturik geldituko nintzateke zure ‘Ăbarim mendian.
- 15 ‘Ăbarim eta Hor mendiak, hortxe dautza
 argizari nagusi biak, irakatsi eta argitu zintuztenak.
 Zure lurreko airea bizia dute arimek, mirra garbizkoak dira
 zure hautsaren garauak, eta abaraskako ezti darie zure ibaiei.
 Atsegin luke ene arimak biluz eta ortozik zure behialako
 Santutegiko kondar isilen gainean ibiltzea,
 zure Kutxa ezkutatu zen tokian, zure kerubinak
 zure gela ezkutuenetan bizi izan ziren lekuan;
 neure ile ederra moztu eta jaurtiko nuke, Zoria madarikatuz,
 zure kontsakratuak lur satsuan profanatu zituelako.
- 20 Nolako poza emanen didate jan-edanek, zakurrek
 zure lehoiak herrestan daramatzatela dakusadalarik?
 Nola izan daiteke gozo ene begietarako eguargia
 erroien ahoan zure arranoen gorpuak ikustean?
 Oinaze-ontzia, kontuz! zaude pixka bat, ene erraiak
 eta arima ere zure mingostasunez beterik daude eta;
 ‘Ohōlah-z oroitzen naizenean zure pozoia edaten dut,
 eta ‘Ohōlibah-z oroitzean zure hondakinak oro ditut irensten.
 Sion, edertasun betegina! antzinatik maitasuna eta grazia
 bildu zenituen, eta zugar elkartzen dira zure adiskideen arimak,
- 25 zure ongi izateaz pozten eta zure hondamenaz
 dolutzen direnenak, zure kondarreatatik negarrez arituz.
 Gatibutasunaren putzutik zizpuru egiten dute zuregatik, eta
 aurkitzen diren tokian makurtzen dira, zure ateei begira,
 zure herriko artalde erbesteratuak,
 mendi eta lepoetan sakabanaturik, baina zure artegiak ahantzi gabe,
 eta zure mantuaren hegalari atxikiz, ahalegindu egiten dira
 igotzen, zure palmondoen abarrak hartzera.
 Zurekin pareka ote daitezke Šin‘ar eta Patros, beren handitasun osoan?
 Haien hutsalakeriek zure *tummim* eta *‘urim* ote dirudite ba?

13. “Hilobi hautuak”: Patriarkenak, Makpelah-ko haitzuloan. Has 23,2 hurr.

15. Moises eta Aaron hantxe dautza ehortzirik, cf. Dt 32,48 hurr.

19. “Ilea moztu”: cf. Je 7,29. Dolu-seinaletzat.

20. “Zakurrek”: cf. Je 15,3.

23. “‘Ohōlah”, Samariaren sinboloa, eta “‘Ohōlibah”, Jerusalemena, cf. Ez 23,4.

29. “Šin‘ar eta Patros”: Babilonia eta Egipto, cf. Is 11,11. “*Tummim*, *‘urim*”: zotz egiteko epaigailuak ziren, dadoak agian, Jainkoaren borondatea jakiteko, cf. Ir 28,15.30 eta Le 8,8.

- 30 Noren antzekoak dira zure gantzutuak edo zure profetak,
noren kide dira zure levitarrak edo zure kantariak?
Idolozaleen erresumen koroa aldatu edo hil arren, zure boterea
betierekoa da, eta zure koroek menderen mendetan iraunen.
Jainkoak bizilekutzat zintuen hautatu. Zorionekoa
zuregana hurbildu eta, aukeraz, zure atarietan egon nahi duena!
Zorionekoa, itxaronez, zure argiaren igoera
ikus dezakeena! Horren gainean zure egunsentiak argituko dira
zure hautatuen poza ikustean, zure bozkarioarekin
arraitzen direnean, zure gaztetako egoerara itzul zaitezenean.

101

Jerusalem!, zapaltzen zaituztenen gainera isuri
zeure matxinaden edalontzia;
zure amodioen garaia heldu da
itzulia baita oreina bere etxera;
entzun zure giza aldren poz artean,
zure mendixketatik heltzen den agurra.
Ospa itzazu, o Juda, zeure jaiak,
Bete zeure zinak!

- 5 Indar ezazu alderraien bihotza
eta berrets itzazu kezkatuen belaunak,
zeren oraindik lau zutoihalekin
zuregana helduko baitira hiru zidorretatik,
judu ahulduak
zure maitasunez gaixoak,
negartsuak, gizagaixoak,
zure lur zokilak ferekatzen dituztenak.

Uztarpetzen nautenek esan zuten,
neure Itzalak bazterrean utzia ninduela,

34. "Arraitu": 'poztu, alaitu'.

101) *Sēliḥah*. Jerusalemi eginiko deia, bere lehen oneratzeta, Israelen berrerospena eta hildakoen biztuera iragarritz, hots, profezia mesianikoak beteko direla. Akrostikoa: *Yēhudah*. Neurkera silabikoa: zazpina silaba hemistikio bakoitzean.

3. Cf. Ps 42,5; 1Re 5,4.

5. Cfr. Is 35,3.

7. Cf. Ne 34; Ca 2,5.

8. Cf. Ps 102,15.

10 baina nik badakit berrerosle adoretua dudala,
eta Hark miragarrero jarduten dakiela;
ene banderak altxatu zituen egunean bezala,
seiehun mila borrokalarirekin,
horrela bilduko ditu zure iheslariak
eta zure ateko morroiloak sendotuko.

Zergatik dago orain aterperik gabe erregearen semea,
gogorki zanpaturik tiranoaren oinpean,
sakabanatu eta herrari lur azalaren gainean,
'Edom, fidakor, lasai pausatzen den artean?

15 Zergatik hura negarrez ari da, egiptoar
jopuaren semeak aurpegira irri egiten dion bitartean?
Zure miseriak garbitzeko da, Jerusalem
eta gaztetasuna berreskura dezazun.

Hona, barkatua da bekatua,
eta Jauna bere herriaz gozatzen da,
eta arima nekatu eta garaituentzat,
baltsamo eta gozagarriak izanen dira
eta goi arnasa etorriko zaio, azkenik,
zure herri osoari

20 zure gaixoen zauriak egurastu
eta zure gatibuak askatzeko.

10. Cf. Jb 19,21.

11. Cf. Ir 12,37.

12. Cf. Ps 147,13.

14-15. "Edom": kristauak. "Egiptoar jopuaren semea": Ismael, arabiar herriaren asaba eta sinboloa. Cf. Has 21,8.

17. Cf. Is 40,2.

- Menperatuko ote du gorputzak –berez arrano-hegoei
 datxekien bihotzaren bizilekua izanik–
 bere biziaz nazkatua, Herrialde hautatuaren gainean
 bere masailak igurztea besterik irrikatzen ez duena?
 Beldurrez dago eta ikaraz, eta malkoak darizkio
 Sēfarad utzi eta ‘Ābarim-era joan nahiaz,
 itsasontzietara igo eta mortuak iragan beharragatik,
 lehoien gordeleku eta panteren mendietatik zehar.
- 5 Senideekin errietan dabil, haserre, baina abiatzea erabaki du,
 gelak utziz, eremuetan bizitzeko;
 oihanetako otsoak atsegin ditu,
 mutil gazteek neskatxa ederrak bezala;
 ostrukei kantari-soinulari deritze,
 lehoien orroak artalde-txistu begitantzen zaizkio;
 bere pozak bere bularren sutegian ezarririk dauzka
 eta bere malkoen jarioak ibai handiak dira.
- Mendietara igo eta haranetara jaitsiko da,
 hor zinak eta aginduak betetzeko.
- 10 Irten eta ibilian hasiko da, Šo‘an zeharkatuz,
 Kanaango herrialderantz, hilobi hautuen bila.
 Bere maiseatzailleen gaitzespenak inguruan dabilzkio berreturik,
 artean, berak entzun eta isilik, hitzik ez balu bezala.
 Zenbat eztabaida eginen du oraino? Noiz arte ihardetsi beharko?
 Zer ateratzen du haiek tristatzetik, hordi badaude?
 Zertarako zoriontzen dute erregeak zerbitzatzen dituelako,
 hori berari idoloak gurtzea iruditzen zaionean?
 Ongi al dago gizon prestu eta zuzenari zoriontsu deitzea,
 baldin, mutikoen eskuetan txoria bezala, loturik badago

102) Palestinarantz abiatzeko dagoela, poetak harako bidea egiteko erabaki sendoa erakusten du, bere asaba zaharren herrialdera bizitzera joateko. Hasieran gai hori hirugarren pertsonan jartzen du, baina 20. bertsotik aurrera lehen pertsonara iragaten da, adierazkortasun maila handitzeko. Azkenean bere bekatuen aitortpena egiten du: Arabierazko goiburua: “Eta honela esan zuen al-Andalus-en geldi zedila behin eta berriro esaten ziotenean”: Neurkera: *ha-mitqareb*, bertso bakoitzeko lehen hiru zatietan barne errimak dauzkala.

1. “Arrano-hegoei atxikia”: irten nahi duela adierazteko. Bere barne tentsioa gorputzaren eta bihotzarena arteko borroka gisa azaltzen du.

3. Erabaki hori hartzeko gainditu behar izan dituen zailtasunak kontatzen hasten da.

10. “Šo‘an”: Egipto, Palestinara itsasoz joateko nahitaezko ibilbidea ia. “Hilobi hautuak”: Patriarkenak, Hebronon.

14. “Txoria bezala”: cf. Jb 40,29.

- 15 filistear, agartar eta hititen zerbitzuan?,
 beste jainko batzuekin bihotza erakarri nahi diotenean,
 bere atseginarean bila abiatuz Jainkoarena bazter dezan,
 Sortzailea traditu eta Haren sorkarien morroi izan dadin?
 Ilun deritzo egunsentiaren aurpegiari,
 eta ardo eztiaren kopa, mingotsa da haren ahoan;
 nekatu eta unaturik, zapaldu eta abaildurik dago,
 zizpuruka Karmel eta Qiryat Yē‘arim-engatik,
 hilobi lasaien ondora bakeske joateko antsiaz,
 Kutxagatik eta bertan lurpean dautzan Harlauzengatik.
- 20 Haien ondotik iragatea espero dut, haien hobian ahuldurik,
 ene begiek haien hausturagatik ibaika urtzen diren artean.
 Ene pentsamenduak ere dardarka ari dira Sinaigatik,
 bihotza eta begi eneak ‘Ābarim mendia irrikatuz.
 Nola ez dut negar eginen eta ez naiz malkotan urtuko,
 handik hilen piztuera espero badut?
 Hantxe dira kerubinak eta Harlauza izkiriatuak,
 zokil artean, nonbait ezkutuan,
 mirarien herri eta profeziaren iturri den horretan,
 bere loria zerutiarrak aurpegia argitzen diela.
- 25 Haren hautsa ferekatu eta neure habia hantxe eginen dut,
 eta hargatik pena ukanen nik, hilobiengatik bezala.
 Nik nahien dudana asaba zaharren hobi artean
 egoitza ukaitea baita, leku saindu horretan.
 Abia hadi itsasora, ontzia, Jainkoak berak
 pausaleku hartu nahi ukan zuen hiriaren bila!
 Hoa arin heure hegaldian Jainkoaren eskuaz kulunkaturik!
 Lot itzak heure hegoak egunsentiarenekin
 nora ezean haizeak daramatzanen fabore,
 bihotza mila zatitan urraturik daukatentzat!
- 30 Ene gaztaroko bekatuen beldur naiz,
 Jainkoak bere liburuetan izkiriaturik dauzka eta,
 Areago naiz baina, zahartzarokoen beldur,
 egunero berretu eta errepikatzen baitira.

15. “Filistearrak”, berbereak; “agartarrak”: arabiarrek; “hititak”: Kam-en ondorengoak, agian beltzak.

18. “Qiryat Yē‘arim: Kutxa izan zen tokian, cf. 1Sm 7,1.

19. “Lurpean”: judutar tradizioaren arabera, Itunaren Kutxa eta Legearen Harlauzak profeten denboran desagertu ziren, eta toki ezezagunean lurperaturik dautza (Cf. TB *Yoma*, 53).

21. “‘Ābarim mendia”: hortxe hil zen Moises bertatik (Mo’ab-en) Aginduriko Lurraldea ikusi ondoren: cf. Dt 32.49 hurr. Ikus 100. poema, v. 15 eta 104.a ere bai.

28. “Egunsentia”: Ps 139,9.

30. “Izkiriaturik”: cf. Ma 3,16.

Ez naiz neure apostasiaz damutu,
nora joanen naiz ene nahigabeen erdian?
Neure erruak ahantziz gero, arriskuan jar ninteke,
ene arima eta odola bekatutan murgildu zirelako.
Halere, asko barkatzen duenarengan fida naiteke,
Berak boterea eta indarra baitu, gatibuak askatzeko.
35 Juzgatzen zein zigortzen duenean, gehitzean zein urritzean,
onerako zein txarrerako, zuzenak dira haren epaiak!

103

Zure hitzei mirra tanten usaina hartzen diet,
mirra-mendietako harkaitzetik hartu zenituen eta.
Zuk eta zure senitarteak dituzuen kalitateak
ezin ditzakete laudorioek goraipta.
Ene bila hitzaldi atseginekin jalgi zinen,
horien barruan, zelatan, gezilariak izanik;
erranairu horietan erleak ezkututzen ziren,
elorriak, ezti-abarasken barruan zorrotz ebakiak.
5 Ez al gara Jerusalemez arduratu behar
itsu eta herrenez beterik dagoen artean?
Gure Jaunaren Tenpluagatik egin behar dugu,
edo adiskide eta haurrideengatik.
Zuek diozuenek balitz, ikusazue zein oker dauden
harantz makurtzen eta belaunikatzen direnak,
eta atzerritar gisa bertan bizi ziren Gurasoak,
han beren hilentzako hilobiak erositik;

103) Lur promestura joan ez dadin hitz egiten dietenen argudioak ezerezteko asmoz. Arabierazko goiburua: "Eta norbaitek Palestinara ez joatea buruan sartu nahi zionean, esan zuen". Neurkera: *ha-měrubbeh*.

1. "Mirra": cf. Kt 5,5. "Mirra-mendiak": cf. Kt 4,6. Poetak hemen nolabaiteko baliobikotasunaz joka dezake: usain oneko hitzak dira, baina zapore mikatza dute, mirrarena bezalakoa. Edonola ere, lehen bertso biak solaskide aurkariarenganako adiskidetasunezko hurbilketa da.

3. "Gezilariak": lit. 'azkon-eramaileak', cf. 2Kro 14,7, 'agirakak' esangurarekin.

4. "Erranairu": 'esaerak, atsoitzak'.

5. "Itsu eta herrenak": cf. 2Sm 5,6 hurr. Horrela zegoen Jerusalemeko hiria Davidek hura jebustarrei hartu baino lehen, eta adierazpen berbera darabil oraingo egoera azaltzeko, kristauen eskuetan, juduenetan egon beharrean.

6. Poeta bere aurkariari erantzuten hasten zaio: Jerusalem Tenpluaren hondakinak eta zenbait judu gelditzen dira. Beraz, guztion interesa merezi du.

7. "Harantz makurtzen": otoitz egitean.

8. "Hilobiak erosi": cf. Has 23,3 hurr.

- alferrik litzateke han patriarkak baltsamatuak izatea,
eta beren gorpu-kondarrak herrira bidaltzea.
- 10 Haiek hargatik aritu ziren intzirika,
herria gaizto zitalez betea egon arren.
Alferrik eraiki ote ziren han bada patriarken aldareak,
eta alferrekoak izan ote ziren, halaber, han eginiko eskaintzak?
Ongi ote dago, bada, hildakoez gogoratu eta
Kutxa eta Harlauzak, aldiz, ahanztea?
Hobi eta harren lekuaren irrika ukanen ote dugu
betiereko bizitzaren iturria alde batera utziz?
Sinagoga izango ote da gure jabego bakarra?
Nola ahantz dezakegu haren Mendi Saindua?
- 15 Ba al dugu Ekialdean edo Mendebalean
esperantza-tokirik, bertan segur egoteko?
Atez beteriko herrialdea besterik ez,
horien aitzinean Zerukoak irekiz:
Sinai mendia, Karmel, Bet'el,
igorririko profeten bizitoki,
Jaunaren bilguneko apaizen jarleku,
errege gantzutuen tronu.
Guretzat eta gure haurrentzat izendatu zituen,
gaur han basapiztiak eta hontzak bizi diren arren.
- 20 Ez al zien antzina horrela patriarkei eman,
kardu zapalduen jabetza izanik ere?
Eta haiek handik luze-zabaletara ibili ziren,
lorategiko landareen artetik dabilenaren antzera.
Arrotzak eta egoiliarak ziren, eta han
hilobi, ostatu bila zebiltzan.
Handik ari ziren Jaunaren aitzinean,
bide zuzenak ikasiz.
Han hilak biztuko zirela zioten,
eta hersgailuz giltzaturik dautzanak ilkiko,
- 25 han gorputzak poztuko zirela
eta arimak lo dautzanengana itzuliko.

9. "Baltsamatuak": Jakob, cf. Has 50,3 eta Josef, cf. Has 50,26.

16. "Atez beterik": cf. 100. poema, 6. b.

22. "Ostatu": lit. 'arrotzentzako babeslekua'. Cf. Je 9.1.

24-25. Hantxe biztuko dira hildakoak, cf. Is 26,19. "Hersgailuz giltzaturik": cf. Jon 2,7.

- Ikusazu ongi, ene adiskide, eta uler ezazu,
hastan zaitetz lakio, arantza eta segadetatik.
Ez zaitzala Greziako filosofiak engaina,
ez baitu horrek fruiturik ematen, lore hutsak baizik!
Hauexek dira horien fruituak: lurra ez zela inoiz hedatu,
ez eta zeruko dendak zabaldu ere,
sorrerak ez duela hasierarik,
eta ilberriak ez direla behin ere bukatuko.
- 30 Entzun! nahasiak dituzu halako jakintsuen hitzak,
anabasa eta kare-mortairuzko oinarrian eraikiak;
handik itzultzean bihotza hutsik eta inarrosirik ekarriko duzu,
aho bete argudio eta hitz huts.
Zertarako ibiliko naiz bada bidexka oker bila,
galtzada nagusitik saihesturik?

104

- Agurtzen zaitut, ‘Ābarim mendia!
Zoko guztietatik zaitut nik agurtzen!
Zure baitan hil zen gizonik aukeratuena,
eta hilobirik hautuena zeuk ostutzen duzu.
eta bera nor den ez badakizu, egiozu galde
Ihien Itsasoari, bi zatitan ireki zenari,
galde egiozu sasiari eta Sinai mendiari
eta hitz hauekin erantzunen dizute:
- 5 “Hark zintzoki bete zuen Jainkoak
emaniko eginkizuna, hizketan trebea izan ez arren”.
Jainkoak laguntzen banau,
bisita egingen dizut, zin dagit!

26. Bere aurkariari kontseilu gisa esanik, poetak filosofiari oro har eta bereziki Aristotelesenari eraso gogorra egiten dio. Hortixek joko zuen *Sefer ha-Kuzari* bere obra apologetikoan ere, bere bidaia hasi baino lehentxoago amaituan.

28-29. “Ez zela inoiz hedatu”: Unibertsoa ez zela behin ere sortu. Yēhudah ha-Leviren ustez, hauxe litzateke, munduaren betierekotasunaz batera (29. bert.), Eskrituran oinarrituriko judutar fedearen aurka lihoakeen ideia filosofikorik nabarmenetako bat.

- 104) ‘Ābarim mendiari eskainiriko poema, zeinen gaintetik, hil aurretik, Moisesek Lur agindua ikusi zuen, ondoren bertan ehortzia izanik. Leku hau Mo’ab-en, Jordanez bestaldean, dagoen arren, Yēhudah ha-Levik bere arbasoen historia loriatsuari loturiko tokia deritzo. Neurkera: *ha-šalem*.
1. “Zoko guztietatik”: Israelgo herria munduko zoko guztietatik sakabanaturik aurkitzen delako.
 2. “Gizonik aukeratuena”: Moises, haren ganean hila eta ehortzia, cf. Dt 32,49 hurr.
 3. Itxurazko ezjakintasunaren eta galderen bitarteko literatur baliabideaz Moisesen bizitzako gertaera aipagarrienak gogorarazten dira. “Thien Itsasoa”: Itsaso Gorria.
 5. “Hizketan trebea”: cf. Ir 4,10.

Jaunaren Tenplua! Haren oinen atsedenlekuaren santutegi!
 Erbestera joan zen haren loria, eta haren jendea barreiatu zen;
 Hartaz interesatzen dira urruneko herrietatik,
 haren aitzinean makurtzen dira guztiak, non nahi diren.
 Haren aitzinean makurtzen...

- 5 Mendebalean, Etiopter eta Egipton erbesteratuak!
 Haien aurpegiak Jerusalemerantz zuzentzen dira,
 haien Aita zeruetan denaganantz,
 Bera zerbitzatzeko, haren Izena bedekatzeko.
 Haren aitzinean makurtzen....

- 10 ‘Elam-en galdua eta Šin‘ar-era eramana!
 Ahoa irekitzen du horrek bere herrirako bidea irrikatuz,
 oihaneko otso-ahutzen artean.
 Herstura bizitan bere zintzotasunean tinko dirau.
 Haren aitzinean makurtzen...

- 15 Siondik atzerriratuak, orain Sēfaraden direnak!
 Arabiarren artean barreiatuak, edomdarren tartean sakabanatuta,
 Tenpluaren lekuagatik dabilkie, urduri eta hunkituri,
 bihotza, bularra kendu zaion haurra bere amagatik bezala.
 Haren aitzinean makurtzen...

Beren otoitza isurtzen dute baina Harkaitza ezkutuan da,
 irainak dantzuzki, baina mutu gisa da ageri.
 Ametsetan bezala dakusate Siongo gatibuen itzulera,

- 105) Sinagogarako poema, penitentzi izaerakoa, *Sēliḥah*, Sioni buruzkoen artean sartua, Jerusalem eta Tenpluaren oroitzapena eta erbestealditik itzultzea gai nagusitzat darabiltzalako. Zajal tankerako poema estrofikoa, errepikarekin. Neurkera silabikoa, zortzi silabako bertsoekin.

1. “Oinen atsedenlekua”: Jainkoak bere oinak lurrean jartzeko lekua Tenpluan dauka.

3. “Hartaz”: Tenpluaz.

9.-. “‘Elam””: Persia ondoko herrialdea. Šin‘ar: Babilonia. Cf. Is 11,11.

12. “Bere zintzotasunean tinko dirau”: cf. Jb 2,3.

13. “Siondik erbesteratuak”: cf. Ab 20. Espainiako juduek ohoragarri iritzi zioten beti beraiek Jerusalemetik kanporaturikoen ondorengoak izateari.

16. “Bularra kendu zaion haurra”: cf. Ps 131,2.

19. “Ametsetan bezala”: cf. Ps 126,1.

20 baina inork ez daki, itzartzean, amets hori azaltzen.
Haren aitzinean makurtzen...

Noiz nik oihu egin eta Zuk gogoz entzunen didazu,
ene errugabetasuna argitara ateratzeko?
Jakin eginen baita, Zeuk salbatu eta askatzen duzun egunean,
Jaunak bere herria egiazki duela maite!
Haren aitzinean makurtzen...

106

Jakin bedi nazio orotan, bai eta ene jendeen artean ere,
Jaunak Siongo atea dituela maite!

5 Ate guztietan ezagut dezatela, haren ateen ohorerako,
Patrosek eta Šin‘arrek haren Tenplua ukan nahi zutela,
baina Sion izan zela, haren hiririk txikiena izan arren,
ene Santutegian bizi denaren Jauregia;
etzalekutzat gura izan zuela Sinai hautatu zuenak.

10 Haren mendi usaintsuak, oreinen bazkaleku,
haren mahastien altsumak, akara eta ezpelak;
haren usain-lurrinek ‘Ăbarim betetzen dutenak.
Ene olioaren usaina zinamono gisa igotzean,
Jainkoaren loria jaitsi zen ene hodei trinkoetara.

Ongi da bera hautatua izatea
igo eta Haren begitartea ikusten bera lehena dadin izan;

20. “Itzartzean”: cf. Has 41,1 hurr. Inork ez zekien ametsa egia noiz bihurtuko zen.

24. “Jaunak bere herria egiazki maite duela”: cf. Ps 149,4.

106) *‘Ahăbah*, sinagoga-poema honek Jainkoak bere herriagatik duen maitasuna gogoratzen du, eta oraingo honetan Sionen bere egoitza jartzeko aukeran mamitzen da. Muaxaha egiturako poema estrofikoa, sarrera eta bost estrofarekin, bukaera hebreeraz duela. Bertsoak 6 + 5 silabakoak, hirugarrena laburra hemistikio bietan. Akrostikoa: *Yăhudah*.

2. “Jaunak Siongo atea maite dituela”: cf. Ps 87,2.

3. “Haren atea”: Jerusalemekoak.

4. “Patros eta Šin‘ar”: Egipto eta Babilonia; hauek Jainkoaren Tenplua bertan eduki nahi zuten, baina hautetsia Sion izan zen.

7. “Etzaleku” ezteirakoa: cf. Kt 3,9.

10. ‘Ăbarim mendia; ikus 104. poema.

12. “Jaitsi”: cf. Ir 34,5.

14. “Haren begitartea”: Jainkoaren begitartea, cf. Ir 34,24.

- 15 seinale eta lekuko izateko egin baitzuen laudagarri;
 Gēbal, ‘Amon eta ’Edom, ene auzoak, lehortu zituen
 eta basamortuari ene iturburuetatik eman zion edaten.
- Ene maiteak, bere maitasunaz bihotza herrestan daramakidanak
 bere jaietan ezarri zuen, Mendebaleko kandela bezala,
 20 apaiz-profetek haren sekretuak ikasi arte.
 Ene aitzinean ibili zen mortuan, uluka,
 bere indar ezkutuak ene begien aurrean erakutsiz.
- Har ezazu berri ona, gaixoa, medizina datorkizunean.
 Poz zaitetz, deserriratu, erresumako hirian,
 25 heldua baita zapaltze-denboraren amaiera.
 Hermongo ihintza bezala jaitsiko da ene haurrentzako askatasuna,
 Siongo ateetan, Jaunaren etxeko mendian.

107

- Zureganantz zuzentzen naiz, ene begiak zure egoitzara itzultzen dira.
 Zure baitan oinarritzen zait bihotza, nik zure nahipera emana:
 zure dendan bizi den arrotz gisa, Zure pozerako
 Zuri dakarkizut eta zuri dizut eskaintzen.
 Zuri dakarkizut eta...
- 5 Zure amodioak erretzen nau, eta Zure atzean gartzen naiz;
 zure ondoan izatearren, neure senideengandik urrundu nintzen,
 eta zure oinatzen atzetik jalgiko naiz, arin, gelditzeke.
 Zu uzten zaituztenek agiraka egiten didate, baina ni zuri natxekizu,
 zure Etxepean babesten naiz, zure aurpegiko distirak argi nazan.
 Zuri dakarkizut eta...

15. “Laudagarri”: cf. Is 62,7.

19. “Mendebaldeko kandela”. Cf. *TB Yoma*, 39. Tenpluan lehenik bizten eta azkenik itzaltzen den lanpara da, eta horregatik gainerakoek baino olio gehiago hartzen du. Ikus *TB Minhot*, 86b.

21. “Uluka”; cf. Dt 32,10.

23. Azken estrofa esperantzarako dei eta Jerusalemara joateko gonbita da.

107) Penitentzi poema, *Sēliḥah*, bereziki “Sioneko poemak” deiturikoetan Jerusalemara heltzeko agertzen duen gogo bizi berberaz. Jaunari erregu egiten dio Haren Izena gehiago profana ez dadin, Zajal tankerakoa, errepikarekin. Neurkera silabikoa. Bertsoak 6 + 6 silaba luzekoak. Akrostikoa: hebrear alfabetoa.

1. Poeta Jainkoari mintzo zaio, bera bizi den tokia aipatuz: Jerusalem.

3. “Arrotz gisa”: cf. Le 25,35.

4. “Dakarkizut”: neure bihotza.

8. “Zu uzten zaituztenek”: cf. Je 17,13.

- 10 Hobe da egun bat Jainkoaren herrian atzerrian mila baino.
Hobestekoak dira Santutegiko hondarrak printzeen jauregiak baino,
han libre izango bainaiz, hemen morrontza latza pairatzen dudan artean.
Zure bila besterik ez nabil, eta Zutaz landa ez nau inork lagutzen;
eskuinean indarra daukazu eta babesza Zugan sinesten dutenentzat.
Zuri dakarkizut eta...
- 15 Ene arima basamortu idorra da, Horeb eta Siongo ihintzerako;
Gorenaren aterpea ukanen nik abaro, Libano eta Síryon-en bizitzearren;
ene begiok, behartsuenak bezala, ikuspeneko haranari so egiteko irrikan dira;
ene aurpegia Harlauzen eta Bilguaren leku ezkutura biratzen da,
zure Kutxaren altxorren poltsara, zure mahaiaren ondora.
Zuri dakarkizut eta...
- 20 Oi Zu, argia deitu eta, goizak heldu aitzin, gauak baztertzen dituzuna!
Aski da gezurtiek zure Izena profanatzea,
Izen horrekin goresten baitira martiri erhoak.
Bilauci salduko ote dizkiezu gauza preziatuok? Siongo haur maiteok?
Zure haur baitira haurrok, eta artalde hau zure artalde!
Zuri dakarkizut eta...

10. "Hobe da egun bat": cf. Ps 84,11.

11. "Santutegia": lit. הרעל *har'el*, aldarearen gaineko aldea, cf. Ez 43,15.



12. Jerusalemeko hondarren artean aske izanen da, jauregietan (Sēfaraden) jopu eta menpeko sentitzen den bitartean.

16. "Síryon": cf. Dt 3,9, Hermon mendiaz ari da. Ps 29,6.

17. "Ikuspeneko harana": antza denez, Jerusalem inguruko haranetako bat aipatu nahi du, agian Hinnom-goia, cf. Is 22,1.

18-19. Kutxa: Aginduen Harlauzeekin, toki sekretuan ezkutatua (Mesiasek erakutsiko duena). Ikus 100. poema, 18. b. "Bilgua": izkribu sailduena. "Zure mahaia": cf. Ps 128,3.

23. "Erhoak": erahilak, 'erho' aditzaren partizipioa.



ITSASOKO POEMAK

Orroka dihardute uhinek gurpilen ibileraz....



שירי ים

המו גלים ברוץ גלגלים...

- Berrogeita hamarrak gaintitu ondoan, gaztetasunari jarraikiko hatzaio,
 bizia hegaz egin hurran duanean?
 Jainkoaren zerbitzutik iheska ibiliko ote haiz
 gizonak zerbitzatzeko irrikaz?
 Nahiago ote duk jendeen atzetik ibili,
 Bera maite dutenek bilatzen dutena ukatuz?
 Alferkeria izanen al duk heure biderako hornitzeko?
 Salduko ote duk heure senipartea platerkada bat dilistaren truke?
- 5 Ez al dik behin eta berriro arimak esaten: Utz ezak!,
 eta al dik hilabete bakoitzak gogoia birberdatzen?
 Ez jarraiki haien nahiei, Jainkoarenei baizik,
 urrun hadi bost zentzuetatik!
 Gelditzen zaizkian egunetan izan hakio atsegin
 heure Sortzaileari, horiek laster baitoaz.
 Ez hadi saia Bera pozten bihotz makurraz,
 eta ez ibil igarpenen atzetik.
 Izan hadi sendo, pantera gisa, Haren nahia konplitzeko,
 orkatza bezain lasterra, adoretsua, lehoia bezala.

108) Itsasoratu baino lehen, poetak Palestinarako bidaia buruan darabil, hor gerta dakizkiokeen arriskuak Jainkoaren laguntzaz gaintitzen ahaleginduz. Poema osoa hitz joko etengabea da, euskaraz ezin emanezkoa. Arabierazko goiburua: “Eta esan zuen, halaber, itsasoaz”. Neurkera: *ha-mërubbëh*.

1. Poetak, heldutasunera heltzean, lehenagoko bizitza eta munduko hutsalkeriak alde batera utzi nahi ditu, Jerusalemen hil eta bertan ehortzia izateko ametsa betetzeko. Halere, poetak berrogeita hamar urteak 1125ean bete zituen eta ez zen Palestinarantz abiatuko 1141ra arte. .

3. Ps 111,2

4. Esauk bezala, Has 25,34.

5. Cf. Es 30,15 eta Ez 47,12. Lurreko ondasunek erakarririk sentitzen da oraino eta zail dakusa bere helburua betetzea.

6. Zentzuen nahikundeei.

8. Cf. Ps 12,3

- 10 Ez dik hire bihotzak itsas barnean hondoratu behar
 begi aurrean mendiak dardarka eta amilka,
 marinelen esku urratuak,
 eta itsasturi trebeak hitzik gabe ikustean;
 joatean alegera ageri zirenak, itzuleran,
 lotsarren, bizkarra ematen sumatzean;
 heure aitzinean itsasoa aterpe izanik,
 norarik gabe, segadetara ez bada.
 Bela eraginak ikaraz daudela,
 ohol arrakalatuak dardarka,
- 15 haizearen eskuak urekin jolas egiten duen artean
 gari-azaoak eultzira daramatzatzen antzera:
 batzuetan larrainean hedatzen ditiztek
 eta beste batzuetan gari joaren gainean metatzen;
 tente jartzen badira, lehoiak ziruditek,
 ahultzean suge antzekoak izanez;
 hauek haiei suharki segitzen zietek,
 araoekin gelditzen ez diren sugedorrien gisa,
 Sendoaren eraginez ontzi boteretsua ia hondatzean,
 masta eta bandera amil daitezenean,
- 20 arkak bere egoitzak nahasirik dauzkanean,
 beheko solairua, bigarrena eta herena ere bai,
 sokak tenkatzen dituztenek mina sentitzean,
 gizonak eta emakumeak oinaze handia izatean,
 lemazainen izpiritua gal dadinean,
 eta gorputzak beren arimez nazkaturik daudenean,
 masten sendotasunak deus gutxi balio ukan dezanean,
 adituen trebetasuna alferrekoa izan dadinean,
 eta zedrozko habeek lastozkoak diruditenean,
 altzifreak kanabera bilaka daitezenean,

10-18. Pairatu beharko dituen arriskuez konturatuta, horiek azaltzen saiatzen da beldurrik izan gabe. Itsasoaren berri gutxi izanda, bertako ekaitzak lehorreko irudiekin kontaktzen dizkigu.

15-18. Mendixkak eta lautadak eginez, uhinek bezala. "Araoekin": sorgin eta gaiztakerien aurkako esaldiekin.

17. Hebrear testuan ezarririko baliobikotasunagatik, testua aldi berean gari-azaoei eta urei doakie.

18. "Araoak": sorginak, aztiak eta gaizkileak gelditzeko hitz edo esaldiak. "Hauek haiei": uhinek lehoiei.

19 hurr. Ekaitz ikaragarriagatik ontzia hondoratzeko zorian dagoenean, poeta segur dago Jaunak, azken burua bere bidaiaren gidaria denak, ez diola urpean galtzen utziko. Cf. Is 33,21.

20. Darabilen lexikoak Noeren Arkaren pasarte gogorarazten du, cf. Has 6,14.16. Irudi honetaz maiz baliatzen da, poetak, Noek bezala, lehorra berriro zapaltzeko segurtasuna adierazten du eta.

24. Mastak, haizearen erauntsipean, kanaberak bezala makurtzean.

- 25 hondarrezko lasta itsasoen bizkarretan geun gisa izatean
eta trabesen burdinak belar bezalakoak;
jendeek nork bere sainduari oihu degiotenean,
orduak hik, Sainduen Sainduagana itzulirik,
Ihien Itsasoko eta Jordaneko mirariak izanen dituk gogoan,
bihotz guztietan marratuak.
Orduan itsasoaren orroak apaltzen dituena laudatuko duk,
haren urak lokazturik daudenean.
Satsuen bihotzen errugabetasuna aipatuko diok,
eta Hark, hire alde, Patriarken meritua dik gogoraraziko.
- 30 Haren egintza beldurgarriak berretuko zitik, hik, Haren aitzinean,
mahlim eta *mušim*-en dantzako kantua errepikatzean.
Berak gorpuei arimak itzularaziko dizkie
eta hezur lehorrak birpiztuko dira.
Une batez uhinak lasaitu eta Lurraren gainean
hedaturiko artaldean antzekoak izanen.
Gaua, eguzkia zeruko armadaren graduetara heltzean,
berrogeita hamarren buruzagiaren gobernupean,
andre beltz baten gisakoa izanen da, urrezko brodatuz jantzia,
mantu urdin harri bitxiz txertatuarekin.
- 35 Eta izarrek, itsasoen golkoan nahasirik
arrotz antza ukanen dute, beren etxeetatik egotzirik;
haien irudiak, itxura berberaz, itsasoaren bihotzean
argituko du, su eta garren antzera.
Uren eta zeruen aurpegiak bitxi distiratsuak dira,
oso argiak gauean zehar.
Itsasoak ortziaren kolorea bera dauka,
bi itsaso baitira, elkar besarkatuak!
Eta ene bihotza haien artean heren itsasoa da,
ene gorespenen uhin berriak altxatzen dituen artean!

25. "Lasta": itsasontziaren egonkortasunerako pisua, eskuarki harri edo harea zorroak. "Geuna": aspaldian garbitu gabeko lekuetan metatzen den hauts eta ilexka multzo arinak.

28. Cf. Ps 89,10.

29. Israelgo herriarena eta poetarena berarena ere bai.

30. "*Mahlim* eta *mušim*": Levitarren familiak, cf. Zen 3,33, Yēhuda ha-Levik asabatzen dauzkanak.

31. Israelgo herriaren berpizte nazionalaren sinboloa. Cf. Ez 37,4 hurr.

33. Cf. Is 38,8. Eguzkia izarrek dauden lekura heltzean. "Berrogeita hamarren buruzagia": Ilargia.

35-36. Eguraldia hain ona izango denez, izarrek itsasoko uren gainean islatuko dira.

37. Zeruan zein uretan itsasontzi batetik gauean ikus daitezkeen gauza bakarrak izarrek dira.

39. "Heren": hirugarren.

- Gauzak oro erabaki eta betearazten dituen zeru goietan da
 eta itsasoaren gainean, urrunean, distira dario Haren justiziarri.
 Ez da gizona bere bidearen jabe, Haren nahiaren arabera ez bada,
 gezurra baita haren obra urtua eta alferrrik ahalegintzen da.
 Putzutik eguna jaiki eta presaka abiatzen da itsasoak zeharkatzera,
 eta pozik dago, lasterketan dabilen korrikalaria bezala.
 Bere bekatuak bera okertzen du, bidean segadak ditu;
 Sartaldeko haizea eskatzen du, baina Sortaldekoa datorkio puzka.
- 5 Badaki bere indar eta adimendu soilekin ez duela inoiz
 bere entseina altxatuko, ez dela aterako, ez eta bere bidea eginen ere.
 Atzera itzultzen da eskerrak emateko, arima dar-dar duela,
 baina bere neke handian oihu egiten du, ahots mingotsaz:
 Nora joko dut zure izpiritutik urrun?
 Nora ihes eginen zure presentziatik urrun?
 Nora joko dut...?
- Orroka dihardute uhinek gurgipen ibileraz;
 lodi eta meheak dira itsas azalaren gainean.
 Zeruak ilundu dira eta haren urak gorritu,
 haren amildegiak altxatzen dira, haren gandorrek jasorik;
- 10 haren eltzeak diraki eta haren erauntsiaren azantza aditzen da,
 haren zalaparta gogorra inork ematu gabe.
 Sendoak ahuldu, eta urak urratu egiten dira,
 erdiak haranak dira, beste erdiak, aldiz, mendi.

109) *Mē'orah*, zajal tankerako poema estrofikoa, neurkera silabikoduna, launa silabako 4 ataleko bertsoekin, barne errimekin. Irudiz, ekaitza baten ondoan idatzia, baina, aurreko poema bezala, litekeena da bidaia hasi baino lehen moldatua izatea, Ps 107,23-32-ean oinarriturik. Estrofa bakoitzaren lehen letraz akrostikoa eratzen da: *Yēhudah*.

1. Cf. Is 14,24; Ps 65,6.

2. Cf. Je 10,23; Badirudi “Gizonak asma, Jainkoak xeda” adierazi nahi duela. “Obra urtua”: cf. Je 10,14, horrek ‘idoloa, huskeria’ esan nahi du, eta bereziki Palestinarako pentsatua duen bidaia, bere borondatearen aurka atzeratzen ari dena.

3. Cf. Ps 19,6.

4. Israelgo Lurraldera joateko Sartaldeko haizea behar du. Hemen “Sortaldea” sinbolikoa da eta irteten uzten ez dioten eragozpenak dira.

5. Ontziratu ahal izateko, Jainkoari laguntza eskatu behar dio. “Entseina”: Itsasontziaren bandera.

7. Ps 139,7.

8. “Ibileraz”: lit. ‘lasterka’. Uhinek karranka egiten dute txirringek bezala.

10. Cf. Is 42,13; Jb 41,23. Itsasoak eltzea irakinazten du eta horren zaratotsa entzuten da.

11. “Urak”: lit. ‘itsas korronteak’, cf. 2Sm 22,16.

Ontzi minberatua gora eta behera dabil;
 begi guztiak marinelei adi daude: non dira baina?
 Bihotza bakean daukat, Salbatzailearengan espero baitut,
 Moisesen, Aharonen eta Miriamen eskuan bezala;
 Neure jaunari diot dei egiten! Neure hobenen beldur naiz!
 Ez daitezela ene erreguak zama gerta!
 Nora joko dut...?

- 15 Sortaldeko haizea gogorrago dator, itsasoa igoaraziz,
 masteria hautsi eta bere aparrak sakabanatzen ditu.
 Haien harrokeria meneratua da, haien kapitaina izutua,
 eta masta nekaturik dago belak hedatzeaz.
 Su gabarik diraki, eta bihotza desesperatzen da,
 berari eragiten dioten arraunekin haserreturik.
 Haren pilotuak unatzen dira, eskifaia ahiturik dago.
 Marinelak durdituta, itsuturik haren begiraleak.
 Itsasontziak, hordi burlari eta trufati gisa,
 dohainik saltzen ditu barruan dauzkanak.
- 20 Horra hor Leviatan, itsas leizeetan ahaltzu,
qidduš-a esaten ari, senargaiak oturuntzan bildurikoei bezala;
 itsasoak bere eskuekin harrapatu nahi ditu.
 Ez da jada aterperik gelditzen, ez dago ihes egiterik!
 Nora joko dut...?

Begiak uhertzen zaizkit Zure aitzinean, Jauna!
 Neure eskariak igoarazten dizkizut, oparizatza.
 Beldur naiz neure biziagatik, eusten nauenaren aurrean dar-dar eginez;
 ‘Amittay-ren semearen oihua Zure aitzinean aurkezten dut!

12. “Minberatua”: lit. ‘eria, gaixotua’, hau da, zutik ezin egon daitekeena.
 13. Haiak Israelgo herria Egipton salbatu zuten bezala.
 14. Cf. Is 1,14 hur. “Nahiz eta zuek eskariak ugaltu, ez dizuet entzuten”. Bere bekatuengatik, Jainkoak bere otoitzari gaitz iritziko dion beldur da.
 16. “Haien”: Marinelen.
 17. “Su gabarik diraki”: itsasoak. Bihotza elementuen aurre-aurrean aurkitzen da izuturik, horiek, arraun erraldoi gisa, urei eragiten dietenean.
 18. Lit. “lanaren pisua jasaten dutenak”. Ofizialeen eta eskifaiaiko gainerakoaren artean bereizten du. “Durdituta”: burua galdurik, ia konorte barik, zer egin ez dakitela.
 20. Poetak Leviatan, itsas munstroa, cf. Jb 41, 23-24, mahaian *qidduš*-a, hots, bedeinkazio-otoitzak egiten diharduen senargaiarekin parekatzen du, itsas amildegi sakonetan jataldi ederra egiteko gertu.
 23. Hab 3,16. Lit “ene azpian dagoenaren beldur naiz”. “Amittay-ren semea”: Jonas, cf. Jo 2,3 hurr.

- Inoiz ahanzten ez den Ihien Itsasoaz oroitzuz,
 atseginez eta grinaz poema bat moldatzen dut;
 25 Jordaneko mirariak gogoratzean bozkarioa dut,
 eta Edenean bezala neure bihotza zabaltzen diot
 mingostasunak gozo egiten dituenari, haserre eta kolera-egunak,
 Mēribah-ko uren eguna, mesede bihurtzen duenari.
 Zeruetako Jainkoari adi dauzkat begiak,
 ur nahasietan bidea irekitzen duenari so.
 Lurraren beroa haren suminduratik heldu da,
 eta bere arnasak hotza ematen digu.
 Nora joko dut....?
- Bere haserrea bere mirabearen semeagandik urrundu
 eta haren arima salbatu zuen šē'ol-etik.
 30 Bakea ezarri nahi izan zuten Goialdeek
 amildegietan eta beldur-oihua amaitu zen.
 Ur jeloskorrak gurin bilakarazi zituen,
 izua ezereztu zen, eta estura urrundu.
 Nahigabetuek bihozberatasunaren aingerua entzun zuten:
 Goialdetik, oinotsak.
 Horrela emanen zaio gatibutzan zapalduriko herriari;
 gainean etsaien eskua eta zigor pisutsua, dituela.
 Itsasontzi gisa, astindu eta umiliaturik dagoenak
 berriz ere entzunen du esker-kantua:
 35 Jalgi zaitez, ene zintzoen alaba, ene hodei lainotsuetatik,
 Jaunaren loria gainean ageri duzu eta!
 Nora joko dut...?

25. Cf. Ps 119,32.

27. Is 43,16.

28. Lurra bero da Jainkoaren haserreaz eta Haren putzaz izotza sortzen da, cf. Jb 37,10. Naturaren indarrak Haren esanetara daude.

29. "Mirabearen semea": Isaak, "jopuaren semea"ri kontrajarririk. Israel aipatzeko, bere pertsonan irudikaturik.

32. Cf. 2Sm 5,24. "Oinotsa": Jauna bere herriaren alde borrokatzera irten delako seinalea.

33. Israelgo etsaiek Jainkoaren gaztigua betearazi besterik ez dute egiten.

35. Berdin izan daiteke "ene zintzoen alaba", hau da, Abraham, Isaak edo Jakob-ena, zein "alaba zintzoa". Cf. Is 60,1. Israelgo herriaz ari da.

Neure Jainko biziaganako gogoak ikaritzen nau,
 gure gantzutuen tronuen tokira joan nahiak,
 hainbeste, non ez baitit musu ematen uzten
 neure senide, adiskide eta lagunei.
 Ez dut negarrik eginen behiala erein eta ureztatu
 nuen baratzeaz, zeinetan hazi ziren ene landareak,
 eta ez naiz oroituko Yēhudah-z eta ‘Āzar’el-ez,
 bi lore miresgarri, neure ernamuinik bikainenez,
 5 ez eta Yiṣḥaq-ez ere, semetzat begiratzen nionaz,
 ene eguzkiaren uzta eta ene ilargien fruitu hautuaz.
 Laster sinagoga bera ahantziko dut,
 bere irakaspeneekin pausaleku ematen zidana,
 alde batera utziko ditut neure larunbatetako gozamenak,
 neure jaietako distira eta neure pazkoetako bonbazia,
 besterentzat utziko dut ene loria,
 eta neure laudorioak harrizko estatuei jarauntsiko dizkiet.
 Neure egoitzak kardu-itzalen truke eman ditut,
 neure sarrailen babesasizko hesien ordez;
 10 ene arima lurrinik hoberenez asetzen zen,
 baina sastraka-sundak ukanen ditut aurrerantzean usain.
 Utzi diot eskuen eta aurpegiaren gainean ibiltzeari,
 eta orain itsasoen sabelean ezarri ditut bideak,
 neure Jainkoaren oinen jarlekua aurkitu arte,
 neure arima eta neure hitzak bertan isurtzeko;
 Haren Mendi Sainduan biziko naiz, eta
 neure atea zeruko atean aurrean finkatuko ditut,

110) Jadanik itsasontzian, Herrialde Saindurako bidean. Hara heltzeko irrikak atzean Sēfaraden uzten duen guztiaren nostalgia eta ibilaldiko arriskuak jasangarriago egiten dizkio. Arabierazko goiburua: “Eta esan zuen bere etxekoez eta jaiio zeneko herriaz”. Neurkera: *ha-mērubbeh*.

1. “Gantzutuak”: Israelgo erregeak.

3. “Baratzea”: senideak eta ikasleak.

4-5. Jakin badakigu haren alabaren semea Yēhudah deitzen zela, cf. 116. poema, 13. bert. Litekeena ‘Āzar’el, delako Yiṣḥaq horren antzera, haren senide edo ikasleren bat izatea; ez dirudi, ordea, azken hau Abraham ibn ‘Ezra’-ren semea zenik, beronek bere bidaian lagundu zionez gero (cf. Goitein, Tabriz, 24, 1955, p.27.) Cf. Dt 13,14.

8. Cf. Is 42,8. Munduko handikeria guztiak alde batera utziko ditut.

11. Lurrean ahuspezturik, esklaboen antzera. Askatasunaren prezioa ukapen honetan datza.

12. Cf. Nk 2,1, Tenpluaren lekua.

13. Cf. 100. poema, 6. bert.

- Jordango urarekin loraraziko ditut neure akarak,
 eta neure landareak Šiloah-en ditut haziko.
- 15 Jauna badut, nolatan izan naiteke beldur edo ikara?
 Haren miserikordien aingerua da ene ezkutari!
 Haren Izena goretsiko dut ene biziak diraueino,
 eta eskerrak emanen dizkiot sekulako eta betiko.

111

- Uholdea heldu ote da, ba, unibertsoa suntsiturik utzita?
 Ez da lehorrik ageri,
 ez da gizonik, ez animaliarik, eta hegaztirik ere ez,
 guztiak akabatu ote dira? Oinazean hil ote ziren?
 Lasai nengoke mendi edo sakonunerik banekusa;
 eremu idorren bat ere pozgarri nuke.
 Alde guztietara begiratu baina ezer ez dago,
 ura besterik ez, Arka bat,
- 5 eta Leviatan, itsasoetako osinak irakinarazten,
 hainbeste non uste baitut leizeak ile urdina dirudiela.
 Itsasoan sabelak ontzia ezkutatu nahi du,
 uren eskuetan, ebatsiriko zerbait balitz bezala.
 Itsasoa sumindurik dabil, baina ene arima pozik dago,
 haren Jainkoaren Santutegira hurbiltzen delako.

111) Poeta, Lur promesturako bidean izaturik aurkitzen da ekaitz handiaren erdian. Noe Arkan bezala sentitzen da, baina guztia gutxi iruditzen zaio Israelgo Lurraldera laster iritsiko dela pentsatzean. Arabierazko goiburuak honela dio: “Haren poema itsasoaren erdian”. Neurkera: *ha-měrubbeh*.

1. Poetak lehen bertsoaren bi erdien bukaeran hebreerazko hitz berbera darabil (הרבה *hārebah*) Bibliako esangura bikoitzean hots, ‘suntsitua’ eta ‘lehorra’, haren garaiko literatur estetikan biziki miresten zen ondorio paronomastikoa lortzeko.

2. Lit. “oinazean etzan”, cf. Is 50,11: “Yahweh-ren zerbitzariak” bekatarientzako iragartzen duen zigorra da.

3. Hebreerazko testuak itzuli ezineko hitz jokoa dauka: הערבה *ha-‘ārabah* ‘idor’ / ערבה *‘ārebah* ‘pozgarri’, eta aliterazio eragin berbera lortu nahi du bertso honen lehen erdian beste barne errima batekin: ושׁוּחַהּ *wē-šūḥah* / מְנוּחָהּ *měnuḥah*.

4. Noeren Arkaz ari da.

5. “Leviatan”: “suge iheskor” edo “suge kiribildua” (cf. Is 27,1), kanaanar literaturako itsas herensugeetako bat da, Bibliaren pasarte batzuetan sartua. Gaurko hebreeraz ‘balea’ esan gura du. Pasarte honetan zuzenki Jb 41,23-4-ri dagokio.

6. Itsasoko apar ugariak adats zuria dirudi. Cf. Jb 40,25 – 41-23.

7. Erritmoaren haustura; poetak bere sentimenduen kontrastea agertzen du: alde batetik ikaraturik dabil, ia esperantzarik gabe, baina, beste aldetik, pozik dago Lur promestura hurbiltzen delako.

Hau da zure haizea, oi Mendebal lurrintsua!
 akararen eta sagarraren lurrina dakarrena.
 Merkatarien biltegitik irten zara,
 eta ez haizearen gordelekutik;
 enara bezala hegaldatzen zara, askapena iragarritz,
 zure poltsatik ateratako mirra garbia balitz bezala.
 Nola irrikatzen zaituen ohol baten gainean
 itsasoz nabigatuz daramazun jendeak!
 5 Ez dezazula ken zeure eskua itsasontzitik,
 ez egunez, ez eta gauez ere;
 zeha itzazu olatuak, itsas leizearen erraiak hautsiz,
 haize eman eta mendi sainduetaraino heldu arte
 agiraka egiozu Ekialdeari, itsasoa altzarazten baitu,
 uren golkoa eltze irakina bihurtuz.
 Zer egin dezake Harkaitzaren gatibuak,
 aldizka lotua, aldizka libre denak?
 Ene erreguaren sekretua Gorenaren eskuan da,
 Hark eratu baitzituen mendiak eta haizeak sortu.

112) Aginduriko Lurraldera doala, poetak Mendebaldeko haizeari bereziki atsegin deritzo itsasontziaren belak puztu eta bere helburura bultzatzen duelako: Arabierazko goiburua: “Eta honela esan zuen bere itsasaldian Mendebaldeko haizea azaltzean”. Neurkera: *ha-šalem*. Aingeru Epaltzak 1994an euskarara itzuliriko pasarte batzuk gorde izan dira.

2. Lurrinak bezalatsu; “haizearen gordelekutik”: cf. Ps 135,7.

3. Bertso honetan דֶּרֹר *dēror* hitza hiru aldiz ageri da ‘enara’, ‘askapena’ y ‘(mirra) garbia, hutsa’ esangurekin. “Mirra”: usain oneko erretxina, Itsaso Gorriaren inguruko herrietan hazten diren zuhaitz batzuetarik erauzten dena. Cf. Kt 1,13.

6. Israelgo lurraldera.

7. “Ekialdea”: kontrako haizea, bere helmugara iristen eragozten diona; ekaitza dakarrena da. Cf. Jb 41,23; Je 1,13.

113

Ene Jainkoa, ez itzazu hauts itsas gandorrak!
 eta ez iezaiezu itsas leizeei esan: agor zaitezte!
 Bitartean, zure mesedeak ezagutu eta itsasoko uhinei
 eskerrak emanen dizkiet, eta Sartaldeko haizeari ere bai.
 Zure maitasunaren uztarrria dagoen lekura hurbiltzen naute,
 eta arabiarren menpetik askatzen.
 Nola ez dira bada ene antsiak beteko?
 Zugan fidatzen naiz. Zu baitzara ene bermea!

114

Itsasoen bihotzean honela diotsot bihotz aztoratuari:
 O hik, urak altxatzean ikaratzen haizen horrek!
 Jainkoaren baitan federik bahu, itsasoa sortu eta
 betiereko Izen iraunkorra ukanen duenagan,
 ez hinduke itsasoak ikaratuko bere uhinak goratzean,
 hiregan baitago haren mugak ezarri zituen.

115

Adorea galdurik bihotzak, belaunak kordokan
 dardaraz gerriak, oihu egiten diot Jaunari.
 Sor eta lor gelditzen dira lemazainak amildegiairen aitzinean
 eta marinelek indarririk ez.
 Nola ez naiz horrela egonen? Ontzi baten barruan nago
 uren eta zeruaren artean zintzilik!
 Zabuka nabil! Harat eta honat! Deus ere ez ordea,
 azkenean ene jaiak ospa ahal banitza Jerusalem!

- 113) Ekaitzik ez egoteko eta sartaldeko haizeak jotzeko eskaria. Arabierazko goiburua: “Eta honela esan zuen bere bidaian Israelgo lurraldera heldu nahian”. Neurkera: *ha-mērubbeh*.
1. Cf. Is 44,27.
 2. Itsasoa bare dagoen artean.
- 114) Ekaitzean ere Jaunaz fidatzen dela adierazteko poema. Arabierazko goiburua: “Eta esan zuen itsas ekaitza heltzean”. Neurkera: *ha-mahir*.
3. Cf. Je 5,22.
- 115) Ezaugarri bereko beste poema bat. Arabierazko goiburua: “Eta honela esan zuen itsasoan ekaitza zenean”. Neurkera: *ha-šalem*.
1. Bertsoa hitzez hitz Na 2,11-ren aipua da ia osorik.
 2. “Indarririk ez”: lit. “ez dituzte eskuak aurkitzen”, cf. Ps 76,6.

Zuri esker nire arima segur edo dardarka dago.

Zure aitzinean makurtzen da beti, eskerrak emanez.

Hara eta hona ibiltzean Zugatik poztuko naiz.

Ibilaldi osoan goretsiko zaitut:

bai ontziak, ni eramateko,

zikoinen moduko hegoak eraistean,

eta bai ene oinen azpian osinek orro eta marruka egitean ere,

ene erraietatik ikasiko balute bezala,

5 itsas leizeak eltzea bezala irakinarazten dituzunean,

itsasoa surtan jarririko lapikoa bezala utzirik;

kristauen ontziak berberiarren itsasora hel daitezenean,

piratak segadetan, zelatan adi,

piztiak itsasontziei eraso eta

itsas herensugeak beren janarien zain,

edo estura senti dezagunean, ama berriaren antzera,

haurra zulora hurbilduta baina erditzeko indarririk gabe.

Eta jan-edanak falta banitu ere,

ene ahoan zure Izen atsegina jarriko dut, elikagai.

10 Ez naute ondasunek ez etxeek kezkatzen,

ez eta aberastasunek, ez eta ezein galerak ere;

nik sortu nuena bera ere bazterrean uzteraino heldua naiz,

neure alaba bakarra, ene arima barruko maitea;

haren semea ahanzteraino ere, neure erraiak urratuz;

haren oroitzapena besterik ez zait gelditzen, igarkizun gisa.

116) Sakrifizio eta pairamen guztiak, haren alaba bakarra eta iloba Sēfaraden utzi beharra barne, deus gutxi dira poetarentzat Jerusalemehortz dezaten lortuz gero. Arabierazko goiburuak honetara dio: “Eta esan zuen itsasoaren handitasunaz eta itxura izugarriaz, eta bere senideenganako maitasunaz” Neurkera: *ha-mērubbeh*.

2-8. Behin itsasontziratu eta gero, Jainkoari eskerrak emango dizkio, bai aldeko haizeak datozenean eta bai larruneetan ere.

5. Cf. Jb 41,23; Je 1,13 eta 109. poema, 17. bert.

6. *Kittim* eta *pēlištim*, kristau eta berbereez ari da, cf. Zen 24,24; Dan 11,30. Argi dago Yēhudah ha-Levik Mediterraneoa zeharkatzen zuten itsasontzi kristauek batean joan behar izan zuela. Berbereak edo berberiarrek aipatzeko, “Filistearrak” esatea ohiko erabilera izaten zen Erdi Aroan, Šēmu’el ha-Nagid-en poesian egiazta daitekeenez. “Piratak”: *hittim*, Kana’an-en seme zen Ḥet-en ondorengoak, cf. Has 10,15.

11. “Nik sortu nuena”: Lit. “ene izterretatik jalgia”.

12. Cf. Zen 12,12. ‘Aurrez aurre’ ikustearen aurkakoa. Antza denez, hura loba bakarra zuen.


- Ene barruko fruitua da bera! Ene pozen semea!
Nola lezake Yēhudah ahantz Yēhudah-k?
Ezer ez dut zure maitasunaren pareko,
zure ateetaraino heldu ahal banaiz esker onez!
- 15 Bertan bizi, pentsatuz ene bihotza dela
zure aldare gaineko opari eskainia!
Ene hilobia zure herrialdean finkatzea,
bertan lekukotasuntzat balio dakidan!

13. Cf. Je 31,20. Sēfaradeko juduen ohituraren arabera, ilobari aitona biziaren izena ipin dakioko.

15. Egiazko sakrifizioen orde.

- Dontzeila eta senideei,
 anaia eta arrebei, esperantzaren gatibuaren
 bakea guztioi! Bere burua itsasoari eman eta
 bere arima haizeen menpe jarri zuenarena.
 Sartaldearen eskutik Sortaldearen eskura bultzaturik:
 batak bere helburura darama, besteak, aldiz, atzeratzen.
 Haren eta herioaren artean urrats bakarra da, haietatik
 ohol batzuen lodierak besterik ez du banatzen!
 5 Zurezko kutxa baten barruan, bizi dela, ehortzirik,
 eta ez lurpean, lau ukondotara heldu gabe!
 Eseririk badago, ezin daiteke zutik jar,
 ez eta, etzatean, hankak luzatu ere.
 Eri da eta jentilen beldur,
 piraten eta lapurren ikarapean.
 Itsasgizon eta maila apaleko marinelak
 buruzagi eta kapitain ditu han.
 Ez dute bertan jakintsuek osperik, ez eta adituek
 inolako mesederik hartzen; igerian dakitenek besterik ez!
 10 Horregatik aurpegia une batez tristatzen da;
 nola ukan lezakete bozkariarik ene bihotz-erraiek,
 harik eta neure arima Jaunaren baitara isuri arte,
 Kutxaren eta aldareen lekuaren aitzinean?
 Jaunari, bekatariei ontasunekin ordaintzen dienari,
 neure poema eta laudorio hoberenak eskainiko dizkiot.

- 117) Itsasoz dabilenaren eguneroko bizimoduaren azalpena, bere gogo-beldurrak agertuz. Neurkera: *ha-mahir*.
2. “Esperantzaren gatibua”: cf. Za 9,12. Jerusalemara iristeko esperantzak harturik dagoena.
 3. Sartaldeko haizeak belak Palestinara puzten ditu; Sortaldekoak, aldiz, Sēfaradera itzularazten.
 4. “Haietatik”: haizeetatik.
 5. Lau ukondo: hilobiak gutxienez ukan behar duen neurria, cf. *TB Bābā’ Batra’*, 86,48.
 7. “Jentilak”: ‘judu ez zirenak’. Jakin, badakigu itsasaldi horretan berarekin batera Yiṣḥaq ere bazihoala, Abraham ibn ‘Ezra’ halaber tuterarraren semea.
 11. Haren azken nahia, aurreko poema batzuetan bezala, Tenpluaren aitzinean hil eta bertan ehortzia izatea da, segur aski Mesiasek zeharkatu beharko zuen atearen aurrean, cf. Za 9,9.



EGIPTOKO POEMAK

Ohora ezazu Egipto!



שירי מצרים

ותן כבוד למצרים!

Ikus itzazu hiriak! So egiezu hirixkei,
 Israelenak izan zirenei.
 Ohora ezazu Egipto! Izan bitez arinak
 zure urratsak! Ez ibili ohondika
 Jauna iragan zen karriketan zehar
 ateburuetan Itunaren odolaren bila,
 suzko habea, eta hodei-adarrak aurkitu nahian,
 begiek orok adi-adi ikusten zituztenak.
 Handixek datoz jainkozko Elkartasuneko gizonak,
 Jaunaren herriaren kantoï-harriak hantxe landu ziren!

Ene Jainkoa! belaunaldiz belaunaldi kontatzen da zure miraria,
 gurasoengandik seme-alabengana, inork hura ukatu gabe.
 Nilo honek aitortzen du bera odol bihurtu zenuela,
 inolako sorginkeria eta aztikeriarik gabe;
 zure Izen bakarraz, Moisesen eta Aharonen eskuan
 makila suge bilakatu zen.
 Lagun ezazu zuregan sinesten duen zerbitzaria,
 mirariak egin zenituen lekuak ikustera lasterka doana!

- 118) Egipton delarik, poetak, antzinako eszenatoki berean bere herriaren iragana berpizten du, horregatik Egiptok merezi dion errespetu osoa adieraziz. Arabierazko goiburua: “Eta esan zuen Egiptoko basamortuari buruz”. Neurkera: *ha-mërubbeh*.
2. “Ohondika”: oinekin zapaltzen.
 3. “Jauna”: Šëkinah, lit. “Presentzia”. Cf. Ir 11,4 eta 12,12 hurr. Pazkoaren aipamen garbia da.
 4. Ir 13,22 hur.
 5. Mealaritzako lexikoa darabil: Egiptotik bai “Jainkoaren herria”, eta bai Moises eta Aharon ere erauzi ziren, haren buruzagiak, cf. Ep 20,2.
- 119) Nilo ibaiaren bazterrean Ir 7,9.15ko pasarte biblikoak gogoratzen ditu. Arabierazko goiburua: “Haren beste poema bat, Nilo ondoan zenean”. Neurkera: *ha-mërubbeh*.
1. Cf. *Kuzari*, 1,83 hurr.
 2. Cf. Zen 23,23.

Eraman nazazue Şo‘an-era, Ihien Itsasora eta Horeb Mendira
 Şiloh eta Tenplu hondatuaren mendian ibiltzeko;
 Itunaren Kutxaren bideari jarraikiz
 haren hilobi gaineko hautsa miazkatzeko, eztia baino gozoagoa;
 bere habia ahantzi zuen ederraren egoitza ikus dezadan.
 Usakumeak egotzi zituzten eta orain belekumeak bizi dira han!

Zoriak biraka ekarri ninduen Nof-eko mortuetara.
 Esaiozu Patuari segi dezala ni herrestatzen, eta itzulika nazala
 Judako basamortua ikusi arte,
 Ipar muturreraino hel nadin arte, Leku Ederrera.
 Han neure Jaunaren Izenaren loriaz estaliko naiz, eta,
 neure burua inguratuz, haren saindutasunaren durbantea jantziko.

- 120) Behin Egiptora heldu eta gero, antzinako israeldarrek egin zuten ibilbide berbera egiteko dago. Ez dakigu norekin mintzo den: Brody-k Nilorekin jardunean ari dela uste du, baina otoitz hutsa ere izan liteke. Arabierazko goiburua: “Haren poema bat. Egipton”. Neurkera: *ha-‘arok*.
1. “Şo‘an”: cf. Zen 13,22. Erdi Aroan Fuşāţ-ekin identifikatzen da, hots, Al Kairoko hiri zaharrarekin.
 2. Itunaren Kutxa Sionen lurperaturik dago, inork ez dakien tokian.
 3. “Ederra”: Israelez ari da, cf. Kt 1,5. “Belekumeak”: infidelak, eta bereziki kristauak, une horretan Jerusalem agintzen zuten eta.
- 121) Basamortua ikustean. Arabierazko goiburua: “Eta esan zuen Egiptoko mortuaz”. Neurkera: *ham-ērubbeh*.
1. “Nof”: cf. Is 19,13; Egipto (Al Kairo-ren hegoaldean).
 2. “Ipar muturra”: Egiptotik begiratuta, Jerusalem ari da. “Leku Ederra”: Sion, cf. Ps 48,3.

Zuen arimak ene antsia konplitzea nahi badu,
 bidal nazazue eta neure Jaunagana joanen naiz.
 Ez dut jada ene oinetarako sosegurik aurkituko
 harik eta neure egoitza haren Egoitzaren ondoan jarri arte.
 Ez luza ene joatea,
 heriotza helduko ote zaidan beldur bainaiz.
 Jainkoaren loriaren hegaltzean nahi dut aterpe!
 Bego ene atsedentzeko ene asaba zaharren ondoan!

¡Mendi-mortu-itsasoak,
 agur egiezue ene lagun atsekabetuei!
 Ez dadila haien bihotza nitaz kezka, zeren
 atsegin baita egokitu zaidan zortea
 No-'Amon-en sorosten naute, jauregi batean
 urregorri-meatze eta menasta preziatuaren harrobi;
 Aharon-en baitan, Kutzaren egoitzan, pozlekuan,
 Šaron bezalako tokian, iturri eta ihiz beterik;
 5 jakintsu baten etxean, *haber* eta maisua baita bera,
 epaile, gizon zuzen eta prestu baten etxean,
 Jerusalemeko gizona, asabengandik jasoriko
 saildutasunaren jabe;
 Santutegitik helduriko sailduengandik,
 baltsamondoan mendietan jaiotengandik.
 Berak darama Torah-ren apaindura, eta gobernua ere bai
 Aharonen *'urim* eta *tummim*-ena zeraman bezala.

122) Šemu'el ben Ḥananyah Nagid-ari egindako eskutitz batetik, hari joateko baimena eskatuz, en la Neurkera: *ha-qal*.

1. Cf. Has 24,56. Abrahamen sehiak bezala, ez du gelditu nahi, ez eta bidaia atzeratu ere.
3. Lit. 'ene zoritxarra'. Beldur da Israelgo Lurrera iritsi baino lehen hilko ote den.
4. Poetak bere asaba zaharren artean ehorztea nahi du.

123) Alexandrian Aharon he-Ḥaber ibn al-ʿĀmānī *dayyan*-aren jauregian izandako egotaldi atseginari buruzko poema. Arabierazko goiburua: "Haren poema bat, aipaturiko adiskideaz". Neurkera: *ha-mērubbeh*.

1. Bera joatean atsekabez gelditu zirenei.
3. "No-'Amon": Alexandria; Biblian Egiptoren iparraldeko hiria da, cf. Na 3,8.
4. "Šaron": Israelgo eskualde oso emankorra, cf. Is 65,10; 45,10 etc. Halaxe deritza bere anfitrioiaren eskuzabaltasunari.
5. "*Ḥaber*": hemen, Torah ikasten eta aztertzen ari den gizona.
7. "Baltsamondoan mendietan": cf. Kt 8,14, Sion mendia.

- Bare zaitetz, itsasoko orro hori, ikaslea hurbildu
 eta maisuaren bisaia muinkatzen duen artean,
 Aharon maisuaren eskua, horren makila
 ez baita ahultzen, ez eta ihartzen ere.
 Irakatsi egiten du eta ez diotso bere ahoari “nahikoa”,
 banatzen du eta ez diotso eskuari “aski”.
 Egun Ekialdearen hegoei eskerrak ematen dizkiet,
 bihar Mendebaldearen hegoak madarikatu beharko badituz ere.
 5 Nola utz lezake inork atzean Galaad-eko baltsamoa
 eskorpioiaren eztenaz zauriturik dagoenean?
 Ala abar lodien itzala aldatuko du
 bero, izotz eta haize kiskalgarriaren truke?
 Maisuaren etxeko habeen babesaren ordeztan,
 Errege Handiaren hiriko Egoitza ukanen dut nik aterpe!

124) Aharon ibn al-‘Āmānī jaunari. Arabierazko goiburua: “Eta itsasontzitik ibn al-‘Āmānī Ḥāber-ari izkiriatu zion”. Neurkera: *ha-mahir*.

1. “Ikaslea”: poetak bere buruaz dihardu. Dirudienez Alexandrian dago, Israeleratzeko prest. Halere, aldeko haizerik ez eta eguraldi txarra dela eta, ezin daiteke itsasora irten, eta egoera horretaz baliatzen da bere adiskide eta ongileari agurra idazteko.

2. Cf. Dt 34,7.

4. Mendebaldeko haizeak bera Palestinara eraman behar du, baina une horretan Ekialdekoari eskerrak ematen dizkio oraindik Egipton apur batez egon eta bere adiskidearen abegikortasunaz gozatzeko parada eskaintzen diolako. “Mendebaldearen hegoak madarikatu”: haize horrek bere adiskideagandik urrunduko duelako.


5. Cf. Je 8,22; 46,11.

5-7. Bakarrizketa honetan poetak bere azken egunak Jerusalemen pasa eta bertan lurperatua izateko nahia adierazten du, horrek bizimodu lasaia, segurtasuna eta adiskideak uztea justifikatzen baitu.

BIBLIOGRAFIA - BIBLIOGRAFÍA - ביבליוגרפיה

- Baer, Y., *Historia de los judíos en la España cristiana*, Madrid, 1981.
- Barnavi, E. *Histoire Universelle des Juifs*, Paris, 1992.
- Bourseiller, Ch., *Los falsos Mesías*. Barcelona, 1994.
- Brody, H., *Studien zu den Dichtungen Jehuda ha-Levi's. I. Über die metra der Versgedichte*, Berlin , 1895.
Jehuda ha-Levi. Die schönen Versmasse, Berlin, 1930.
- Caro Baroja, J., *Historia Etnográfica de Navarra*, I, Pamplona, 1971.
- Carrasco, J., *Sinagoga y mercado. Estudios y textos sobre los judíos del Reino de Navarra*, Pamplona, 1993.
- Castillo, R. *Yehudah ha-Levi. Antología poética*, Madrid, 1983.
- Castro Alava, J.M. *Miscelánea tudelana*, Tudela, 1972.
- Clavería, C., *Los judíos en Navarra*, Pamplona, 1992.
- Doron, A. *Yehuda Halevi. A selection of critical essays on his poetry* (heb.), Tel Aviv, 1988.
"Estudios literarios", in *Yehuda Ha-Levi. Poemas*, Madrid, 1994.
- Heisenberg, J., *Une histoire des juifs*, Paris, 1970.
- Kintana, X., Magdalena, J. R., *Benjamin Tuterakoa. Bidaien liburua. Libro de viajes. Benjamín de Tudela*, Iruñea /Pamplona, 1994.
- Kintana, X., Kintana J., *Judu herriaren ibilbide luzea*, Donostia, 1995.
- Lange, N. de, *El pueblo judío. Odisea a través de los siglos*, Barcelona, 1989.
- Marín Royo, L. M., *Historia de la villa de Tudela*, Tudela, 1978.
- Millás Vallicrosa, J.M., *La poesía sagrada hebraicoespañola*, Madrid, 1940.
Yehudá ha-Levi como poeta y apologista, Madrid, 1947.
- Pérez Castro, *Poesía secular hispano-hebrea*, Madrid, 1989.

- Sáenz-Badillos, A. "Nuevos poemas atribuibles a Yēhudah ha-Levi", *Sefarad*, 41, 1981, 1-17.
"Las moaxajas de Yehudah ha-Levi", *Actas del VI Simposio de la Sociedad española de Literatura Comparada (Granada, 13,14,15 y 16 de marzo de 1986)*, J. Paredes, A. Soria eds. Granada, 1989, 123-30.
- Sáenz-Badillos, A., A. Targarona, J., *Poetas hebreos de al-Andalus (Siglos X-XII). Antología, Córdoba*, 1988.
"Yēhudah ha-Levi y los Ibn 'Ezra' de Granada", *Homenaje a Pascual Pascual Recuero*, MEAH, 37-38, 2. 1991, 325-43.
Yehuda Ha-Levi. Poemas, Madrid, 1994.
- Salaman, N., Brody, H., *Selected Poems of Jehudah Halevi*, Philadelphia, 1928.
- Schirmann, H., "The Life of Jehuda ha-Levi" (heb.), *Tarbiz*, 9, 1938, 35-54; 219-40; 284-305.
- Stürtze, Alizia, *Agotak, juduak eta ijitoak Euskal Herrian*, Donostia, 1990.
- Vernet, Juan, *Literatura árabe*, Barcelona, 2002.



Penintsulako Erresumak Yehudah ha-Leviren garaian, XII. mendearen hasieran.
